

Goienkaria

ASTELEHENEKO

2009ko azaroaren 30a > Astelehena > VI. urtea > 256. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net TOKIKOM

"Askotan familia-medikuaren ordeztu erabiltzen dugu larrialdi zerbitzua"

Mikel Sanchez
Larrialdi
zerbitzuak > 09



G2a

Xabier Lete:
emanaldi
hunkigarria > 32

ARTEA
Peña Gantxegi: tradizioa eta
modernotasuna uztartu zituen > 03

POLITIKA
Hamaikabat elkarteko presidentea
izendatu dute Iñaki Galdos > 04

ARRASATE
Akordeoiaren hiruburu bilakatuko
da berriro herria lau egunez > 14

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

Bergara eta Antzuola arteko AHTren lanen lizitazioa eginda

JAURLARITZA Gobernu Kontseiluak barikuan baimendu zuen; aurrekontua 125.071.308 eurokoa izango da

TUNELA Tramu horrek 4,289 kilometroko luzera izango du, eta horietatik 3,706 tunel barrutik joango dira

MEHATXUA AHTren lanetan, Arrasaten, ezezagun batzuek langile bat pistolaz mehatxatu zuten; ikerketa zabalik dago > 04

ATLETISMOA > MARATOIA

Urdanpilleta eta Biain azkarrenak

Asier Urdanpilleta eta Lorea Biain izan ziren ibarreko azkarrenak, Donostian > 21

'Irrien lagunak' estreinatu eta ume eta helduak zoratu zituzten Porrotzek eta lagunek

Aurten ere Eskoriatzan egin zuten ikuskizunaren estreinaldia eta arrakasta itzela izan zen. Ume batzuk beldurtuta, beste batzuk urduri, asko pozarren... Kolorea, musika... osagarri asko ditu batera ikuskizunak, eta emozioak pilatu egiten dira.

Baina ez da umeen kontua bakarrik; heldu asko ere zoramen puntuan egon ziren. Eta, bitxikeri moduan, Pirritzek, haurdun dagoela-eta, bideo-konferentzia bidez, esku hartu zuen ikuskizunean. > 29



PATXOAK GUZTIONDAKO Ohitura duten moduan, ikuskizunaren ostean, Porrotzek patxoak eman zizkien hurbildutako guztiei.

JOSETXO ARANTZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Ekonomia > 06
Auzoak > 07
Elkarrizketa > 08
Iritzia > 10
Herriak > 11-20
Kirola > 21-28
Kultura > 29-33
Saillkatuak > 34-35
Denbora-pasak > 36
Telebista-Irratia > 37
Berri-zakua > 38-39

JENDARTEA > OSPAKIZUNA

Gaiteroen urteurren jendetsua

Arrasateko gaiteroen taldeak 30 urte bete ditu, eta taldearen historiaren eta gaitarekin egindako kantuz osatutako DVD-CDa aurkezteaz gain, kalejira eta emanaldia antolatu zituzten urtemuga herritarrekin ospatzeko. > 30



Iruñeko gaiteroek eta Otsagabiako dantzariak emanaldia egin zuten.

J.ARANTZABAL



Lagun Aro - Real Madrid saskibaloia partidua ikusteko Nahi?

Zoaz 7. orrialdera

TOKIKOM

ZERBAIT **BERRIA** PRESTATZEN ARI GARA



ARTEA > LUIS PEÑA GANTXEGI

Tradizioa eta modernotasuna uztartu zituen arkitektoa

INGURUA Eraikuntza lanak egiterakoan buruan zuen ideia arkitektonikoa inguruarekin bat etor zedin, lurra aztertzen zuen Peña Gantxegik

EZAUGARRIAK Bereak dira teilatuetan burdinez egindako aleroiak edo zutabeetan kapitel klasikoak imitatuz, lamina metalikoz egindako amaierak

OÑATI Ibarrean, Oñatin, bere jaioterrian egin du lan gehien: hiru etxebizitza bloke eta udaletxearen berritzea; Arrasaten ere badu etxebizitza blokerik

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Luis Peña Gantxegi oñatin jaiotako arkitektoa apirilean joan zen gure artetik; ez, ordea, batean eta bestean lan esanguratsurik utzi gabe, gure ibarrean, bere jaioterrian salbu, eraikin askorik egin ez bazuen ere.

Donostiako Arkitektura Eskolaren Sortzaile izanik berriki omenaldia egin diote bere eraikuntza lanak inguru natural zein kulturalarekin uztartzen saiatzen zen arkitektoari. Arkitektoen eredu edo euren miren jomuga ere izan dira urte luzetan egindako lanak, eta horietaz eta Luis Peña Gantxegiren jardunaz berba egin dugu Iñaki eta Xabier Berasategi arkitekto bergararrekin.

Iñaki Berasategiren ustez, "Euskal Herriko pasa den mendeko arkitekto garrantzitsuen" izan zen Peña Gantxegi. Bere alderdi pedagogikoa azpimarratu du batetik: "Bartzelonatik ekarri zuen arkitektura eskola. Bera izan zen lehenengo Bartzelonan irakasle eta handik, euskaldun batzuek karrera amaitzera etorri ziren berarekin Donostiara. Ni hasi nintzenez oraindik arkitektura eskolarik ez zegoen hemen eta Valladoliden hasi arren, hemen bukatu nituen ikasketak. Ez nuen Peña irakasle izan, baina arkitektoengan eragin handia izan du". Gogoratu du nola doktoretza egiten ari zela Peña Gantxegik Haize Orrazian eman zizkien azalpenak, berea baita hango plaza; eta orduan ikusi zuela zein lotura estua zeukan naturarekin.

ARKITEKTO BEREZIA

Izan ere, Berasategik ez ezik, Peña Gantxegiren obra ezagutzen dutenek inguruarekin duen lotura azpimarratzen dute. "Oso arkitekto berezia izan zen, bere garaian puntu artistikoa izan zuena. Bere obrak beti izan du lotura lurrarekin eta inguruarekin. Aztertzen zuen lurra eta bere ideia ingurura moldatu", esan digu Iñaki Berasategik.

Horren adibide modura Zarauzko Vista Alegre dorrea aipatu digu: "Eraiki behar zutenean oso polemikoa izan zen. Peñak esan zuen arkitektura japoniarra omendu nahi zuela eraikin harekin. Parke batean bloke pila bat egin beharrean, parkea mantendu eta dorre gutxiago eraikitzea zen bere nahia, ingurua zaintzea, alegia".



Kuboaren ertz gogorak hausten dituzte tximiniek Abarka eraikinean.

J.A



Eskuinean Peña Gantxegik egindako eraikina Oñatiko Kale Zaharrean.

J.A

TEILATUAK ETA ZUTABEAK

Ez da izan arkitekto bat moda jarraitu duena, ez eta moda sortu duena; oro arkitektura pertsonala egin du, besteak beste tradizioa eta modernotasuna uztartuz. "Arkitektura aldetik hain pertsonala izanik, berarengandik asko ikasi dugu beste arkitektoek edo bai behintzat bere lanetik; asko eman dio arkitekturari. Baina Peña Gantxegi ez da kopiatzeko arkitekto bat. Ez die sekula ezer inposatu ez arkitekturari ez lankideei. Beretik jardun du", dio Berasategik.

Barrutik, beretik jardunez, bere-bereak diren hainbat egitura utzi ditu eraikinetan. Iñaki Berasategik hitzaldi batean entzun zion bazituela tik batzuk, berak asmatutako prototipo arkitektoniko batzuk.

Teilatuak oso bereizgarriak dira bere lanetan: "Teilatu-hegalak eraikitze oso sistema berezia erabili zuen; lehen egurrezkoak edo ormigoizkoak bakarrik zirenetatik irten eta burdin simple batekin egiten zituen teilatu-hegalak itxura klasiko emanaz, baina ukitu modernoarekin.

Teilatu-hegalak bere ezaugarri diren moduan, aurrez zutabeen amaieretara ere eman zuten bere ukitua. "Zutabeetan tradizioa eta modernotasuna uztartzen zituen; kapitel klasiko bat imitatuz, baina itxura moderno emanaz, bi lamina metaliko gurutzatuz. Berarendako modu egoki bat zen eraikuntza arazoei irtenbidea emateko diseinuaren bidetik", azaldu digu Iñaki Berasategik.

Peña Gantxegiren etxeetan begiratokiak ere errepikatzen diren elementuak direla esan digu Iñaki Berasategik: "Mirakontxako etxebizitzak egin zituztenean bere garaian oso polemikoa izan ziren, baina begiratoki erako konposizio horiek hainbat lanetan errepikatu ditu".

PLAZEN EDERTASUNA

Hain arkitekto berezia izanik, ez da erraza bere lan bakarra aukuratzea. "Bailarako lanen artean Oñatiko udaletxearen berritzea aipatuko nuke, oso lan txukuna egin zuen, eta han ikusi daitezke, esaterako, bere aleroiak", dio Iñaki Berasategik. Etxebizitzaren artean Mutrikuko Imanolena etxea gustatzen zaio: "1964an egindako etxea izateko oso moderno da".

Xabier Berasategik Peña Gantxegik egindako plazak azpimarratu ditu. "Berak egindako plazak oso bereziak dira. Haize Orrazia Txillidaren eskultura izango da beharbada ezaguna, baina plaza horretako parte bat baino ez da. Peña Gantxegik han erakutsi zuen naturarekiko zuen lotura; haizeak, mendiak eta itsasoa bat egiten dute han".

Gasteizko Foruen plaza ere gustuko du: "Bere sasoiaren polemikoa izan zen Txillidaren eskulturaren jendea jausteko arriskua zegoelako, baina ederra izan bada", dio Xabierrek.

Biak bat etorri dira Donostiako Trinitate plazaren edertasuna azpimarratzerakoan, eta ez dira bakarrik. Musikariek hango sonoritatea bikaina dela esaten omen dute. "Van Morrisonen esana du etortzen denean han eman nahi duela kontzertua", kontatu digu Iñaki Berasategik.

Kalean elkarren antza handia duten etxeak ikustera ohitu gara eta prototipoetara errepikatzen diegu. Berezia izan zen Peña Gantxegi eta lan bereziak utzi zituen, hasieran arraroak iruditu arren, gerora jendeak gustuko izan ditzakeenak.

BIOGRAFIA



Luis Peña Gantxegi Arkitektoa

Jaio: Oñati, 1926ko martxoaren 29an.
Hil: Donostia, 2009ko apirilaren 2an.

Euskal arkitekto ezaguna. Donostian, Haize Orraziko plaza eta Gasteizen Foru plaza egin zituen Eduardo Txillida eskultorearekin.

Madrilgo Arkitektura Eskolan diplomatu zen 1959an eta urte horretan Zarauzko Vista Alegre dorrea egiten hasi zen. 1976 eta 1982 urteen artean irakasle izan zen Bartzelonako Arkitektura Eskolan eta ondoren, Donostiako Arkitektura Eskola sortu zuen Oriol Bohigas kataluniarrarekin.

Hainbat sari jaso zituen bizitzan barrena: 1997an Arkitekturako Munibe Saria; Espainiako Arkitektoen Eskolako Urrezko Domina 2004an; eta Mutrikuko Berdela saria 2005ean han egindako 40 eraikinengatik.

DEBAGOIENEKO LANAK

MOIUA (12 ETXEBIZITZA)

> Lizaur kalea, Oñati
> 1965

MONDRAGONESA (100 ETXE)

> Santa Marina auzoa, Arrasate
> 1968

CAJA LABORAL POPULAR (77 ETXEBIZITZA)

> Arrasate
> 1970

LIZAUR (28 ETXEBIZITZA)

> Alzaá kalea, 5 Oñati
> 1971

UDALETXEA BERRITZEA

> Foruen enparantza, Oñati
> 1980

ABARKA (16 ETXEBIZITZA)

> Arantzazuko bidea, Oñati
> 1991

Iturria: www.ganchegui.com

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

Bergara eta Antzuola arteko AHTren tramuko lanen lizitazioa egin dute

AHTko lanekin lotuta, eguen gauerdian ezezagun batzuek langile bat pistolaz mehatxatu zuten Gesalibar auzoaren inguruetan

IKER BARANDIARAN > BERGARA
Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak egubakoitzean baimendu zuen Etxebizitza, Obra eta Garraio Saila Bergara eta Antzuola arteko Abiadura Handiko Trenaren lanen lizitazioa egiteko. Horren aurrekontua 125.071.308 eurokoa izango da.

Bi udalerrien arteko tramu berri horrek 4,289 kilometroko luzera izango du, eta horietatik 3,706 kilometro tunel barrutik joango direla aurreratu dute. Horrez gain, ibilbidean Antzina erreka gainetik 164 metroko biaduktua egin gura dute, eta jarraian 129 metroko trintxera bat ere bai.



Udalatz azpiko tuneleko eta inguruko ebakialdietako lurak Gesalibarko hondakindegira eramaten dituzte.

ARRITXU BARRUSO

PSE-EE, OSO POZIK

Begarako PSE-EE taldeko Mari Carmen Barrenetxeak, prentsa ohar baten bitartez, jakinarazi

zuen oso pozik daudela, alderdi sozialistarendako AHTren proiektua "lehentasunezkoa" delako. Are gehiago, Barrenetxeak azpima-

rratu zuen AHT "ezinbestekoa dela Gipuzkoako eta baita EAE-ko ere garraio sistema eta ekonomia ongizatea ona izateko".

LANGILE BAT PISTOLAZ MEHATXATU

Bestalde, AHTko lanekin lotuta, eguen gauerdian ezezagun batzuek Arrasateko Gesalibar auzoan langile bat pistolarekin mehatxatu izana ikertzen dabil Ertzaintza.

AHTko behargin batek GOIENKARIAri kontatutakoaren arabera, kamioi batekin Gesalibar auzoko hondakindegirantz zihoala, bat-batean motor baten zihoazen bi txanodunek kamioia geldiarazi zioten. Jarraian, langileak kontatutakoaren arabera, ezezagunetako bat kamioiko kabinara igo eta pistola batekin mehatxatu zuen, esanez bide hartatik ez igarotzeko, zerbaitek eztanda egin behar zuelako; hori esan eta alde egin zuten.

Jarraian laneko arduradunek Ertzaintzari deitu zioten, eta enpresak langile guztiak etxera bidali zituen. Ertzaintzak miaketak egin ostean, ez zuen ezer aurkitu eta goizeko hamarretan beharginak berriro hasi ziren lanean. Dena dela, Ertzaintzak jakinarazi digu gertaeren gaineko ikerketa zabalik dutela.



JOSETXO ARANTZABAL

Segiren kontrako operazioa salatu dute

Egubakoitzean manifestazioak egin zituzten Arrasaten eta Bergaran (irudian), Segiko kide izatearen akusaziopean egindako atxiloketak salatzeke. Horrekin lotuta, gaur, astelehena, atxiloketak salatzeke mozioa aurkeztuko dute Bergarako Udaleko osoko bilkuran. Eta Huhez in ikasten duen Maialen Eldua donostiarra espexera bidali du Grande Marlaskak.

ISTRIPUA

Hiru autok talka egin zuten Antzuolan

Auto baten gidaria Zumarragako ospitalera eraman zuten zaurituta

I.B. > ANTZUOLA

Egubakoitz eguerdian zirkulazio istripua izan zen Antzuolan. Hain zuzen ere, 12:00ak inguruan, hiru autok elkar jo zuten, Renault Scenic, Volkswagen Jetta eta Citroen Saxo batek, GI-632 errepidean, Des-kargako gainaren inguruan.

ZAURITU BAT ZUMARRAGARA

Talkaren ondorioz, Citroen Saxo autoko gidaria, 25 urteko gazte bat, auto barruan gelditu zen irten ezinik. Hala, suhiltzaileek esku hartu behar izan zuten mutila ibilgailutik ateratzeko; eta jarraian, larrialdi zerbitzuek Zumarragako ospitalera eraman zuten.

Ertzaintzak zirkulazioa bideratu zuen 13:30ak arte; errepidea libre geratu artean.

OSASUNA

Lan arriskuen prebentzioa berbera

Eguazten iluntzean egingo dute, eta komenigarria da izena ematea

I.B. > ARRASATE

Etzi, eguaztena, lan arriskuen prebentzioa merkataritza eta zerbitzuen sektorean izeneko jardunaldia egingo dute Arrasaten, Debagoieneko Mankomunitatearen bulegoetan, 20:15etik 22:15era bitartean.

Jardunaldia ibarreko merkataritza eta zerbitzu sektoreko enpresari eta langile autonomoei zuzenduta dago, eta Mankomunitateko lan arriskuen prebentzio teknikari Jesus Maria Agirrek gidatuko du.

HAINBAT AZALPEN

Lan arriskuen prebentzioko legea, enpresari eta autonomoen betebeharrak, prebentzio alorrean hartu beharreko neurriak eta beste azalduko dituzte.

POLITIKA

Hamaikabat alderdiko presidente, Iñaki Galdos

Taldeko presidente orde, berriz, Bergarako Eneko Oregi aukeratu dute

I.B. > BERGARA

Atzo, domeka, Hamaikabat alderdiak sortze batzarra egin zuen Donostiako Kursaal-ean; eta Oñatiko Iñaki Galdos Irazabal alderdiko presidente izendatu zuten eta Bergarako Eneko Oregi Goñi presidenteorde.

Ekitaldian alderdiak bost hilabetetan egindako ibilbidea jasotzen duen bideoa proiektatu zuten, eta zapatuan onartutako ponentzia errepasatu. Azpimarratu zuten Hamaikabatek "sozialdemokraziaren ideia berri baten alde" diharduela, "gizarte kohesioa borrokatuz".

Gainera, Galdosek ekitaldian egindako interbentzioan nabarmendu zuen ez datoze la "zatitzera; gehitzera gatoz, batzera, aberastera".



Garaia Berrikuntza Gunean egin zituzten jardunaldiak.

A.E.

JARDUNALDIAK > MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Hondakin gutxiago, ekodiseinuaren bidez

Mondragon Unibertsitateak antolatuta 'Ekodiseinuaren ekarpenak hondakin prebentzioan' jardunaldia egin zuten Garaian

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Hondakinak Prebenitzeko Europar Astearen barruan, Mondragon Unibertsitateak *Ekodiseinuaren ekarpenak hondakin prebentzioan* jardunaldia antolatu zuen egunean. Hondakinak nola ekidin eta ekonomiaren eta ingurumenaren alorrean ekodiseinuaren ekarpenak eskaintzen dituzten aukeren inguruan berba egin zuten. Han izan ziren, besteak beste, Foru Aldundiko Garaipen Iraunkorrekotako diputatu Karlos Ormazabal, Foru Aldundiko Ingurumeneko zuzendari nagusi Javier Zarrarionandia eta Bixente Atxa Goi Eskola Politeknikoko zuzendaria.

BALORE LEHIAKORRA

Atxak azaldu zuen ekodiseinua izan behar dela etorkizuneko "balore lehiakorra", enpresetan estrategia bihurtuko dena. Ekodiseinua produktu bat diseinatzerakoan hasieratik kontuan hartu behar den kontzeptua dela ere argitu zuen Atxak.

"Horregatik, hain zuzen ere, ekodiseinua da garrantzitsua eta kontuan hartu behar da hezkuntza mailan", gaineratu zuen Atxak eguneko jardunaldian.

Baina, kontsumitzaileak non igartzen du ekodiseinuaren ondorioa? "Erosten ditugun produktuak birziklatzeko modukoak dira; material guztia birzikla dai-

teke; energia gutxiago kontsumitzen duten produktuak dira... aspektu horietan igartzen du kontsumitzaileak guk egiten dugun lana", azaldu du Atxak.

EKODISEINU GELA

Mondragon Unibertsitateak 2004an sortu zuen Ekodiseinu Gela. Helburua, diseinu iraunkorrean adituak prestatzea da, eta horrela industria-sektorearen eta unibertsitatearen arteko lankidetzak finkatzea. Gela abian jarri zenetik, 22 ikasle pasa dira bertatik, eta 27 proiektu egin dituzte inguruko enpresetan.

Ekodiseinuan lanean jarraitzeko asmoa azaldu du Goi Eskola Politeknikoko zuzendari Atxak; horren harira, datorren urteari begira ekodiseinuan oinarritutako master bat martxan jartzekoan dabilzala esan zigun.

etxeko leihotik



Iker Barandiaran > 'ibarandiaran@goiena.com'

Kazetaritzaren ustekabe eta motibazioak

Aspaldi kazetaritzan lehenengo lanak egiten hasi nintzenean tarteka lagunek edo ezagunek esaten zidaten kazetariaren lanbidea oso erosoa zela eta ederto biziko ginela; aspaldi ez didate halakorik esan. Nire ohiko erantzuna da ez gaudela makina bati lotuta, sarri lau hormetatik kanpo ere ibiltzen garela eta ia etengabe jendearekin harremanetan gaudela. Horren kontra, baina, erlojua hobe izaten dugu etxean utzi, lana noiz hasi bai, baina askotan noiz bukatuko den jakiten ez dugulako; are gehiago, gaurkotasunari, albisteari, etengabe lotuta egoten bagara.

Bestalde, albisteak, askotan errepikakorrek izaten dira, ez dute ustekaberik eskaintzen eta gaur egungo kazetaritzan are eta denbora txikiagoa dago ikerkuntza egiteko; denbora da falta zaiguna, kazetarioi eta orohar gizarteko gehieni.

Ustekabea izan zen, adibidez, egunean ustez ezezagun batzuek Arrasaten AHTko langile bat pistola batekin mehatxatu izana; eta aldiz, ez gaitu harritu Hamaikabat alderdiko sortze-batzarrean taldeko presidente Iñaki Galdos aukeratu izana.

Eta zer esanik ez, Leitzako albisteak... Kazetari asko zoroaren pare usteko atentatua jaso guran, loari eta asteburuari orduak ziztada baten kentzen... Lerro hauek idazterakoan, berriz, *El País*-en diote atentatua beharrean, muntaia bat izan daitekeela. Beste *Bartolin* bat? Guri lana ematen?

"Denbora da falta zaiguna kazetarioi eta orohar gizarteko gehieni"

> **'Gonzo' kazetaritza**
Ameriketako Estatu Batuetako Hunter S. Thompson idazlearen gaineko liburuak, filmak eta hainbat argitalpen kaleratu izan dituzte azken urteotan. **Kazetaritza muturreraino eramatearen erakusle adierazgarriena zen**

> **Informatu ez**
Badira kazetariak eta hedabideak 'morbo'-a osagai garrantzitsutzat dutenak. Irakurleok hori ustez gura dugunaren konbikzioaz edozein moral, errespetu edo kontraste motaren gainetik pasatzeko errepaurik ez dutenak

Informazioa eta orientazioa banatu zuten UGTko kideek Arrasaten egunean

UGTko autobusa iritsi zen egunean Arrasatera. Urtero INEM eta Europako fondo sozialarekin batera egiten duten kanpainaren barruan, informazioa eta orientazioa banatu zuten Arrasaten.

Felipe Gartzia UGT Euskadiko formazio eta enplegu idazkariak azaldu zuen autobusera joandakoen %45ak formazio ikastaroak eskatzen dituela; eta, %30ak, ostera, orientazioa. Gaineratu zuen, krisiagatik, iaz baino jende askoz gehiago joan dela aurtan autobusera.



A.E.

JARDUNALDIAK > GANDIAGA TOPAGUNEA

Natura eta turismoa aztertuko dute Arantzazun

'Natura Turismoa: hazten ari den segmentu estrategikoa' da leloa

A.E. > OÑATI

Natura eta turismoa izango dute berbagai datozen egunetan Arantzazuko Gandiaga topagunean. *Natura Turismoa: hazten ari den segmentu estrategikoa*-ren I. jardunaldiak egingo dituzte. Hain zuzen ere, abenduaren 2an eta 3an izango dira jardun-

naldiak, eguaztenean eta egunean, Arantzazun.

Irekieran egongo dira Pilar Zorrilla Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailburuordea, Rafa Uribarren Landa Ingurunearen Garapenerako foru diputatua eta Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea.

EGITARAUA

Goizeko 9:30ean izango da irekiera ekitaldia, eta hitzaldiak 10:00etan hasiko dira. Eguenean, goizez hitzaldiak egongo dira eta arratsaldean Arrikruz bisitatuko dute.

HEZKUNTZA > HITZARMENA

Basque Culinary proiektua babestuko du Fagor Taldeak, patronatuan sartu da-eta

Fagor da Basque Culinary Fundazioaren patronatuko kide den lehenengo enpresa

Ferran Adria izango da Basque Culinaryko Nazioarteko Aholku Batzordeko burua

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Basque Culinary Center proiektuarekin bat egin duen lehenengo enpresa Fagor Taldea da, Fundazioaren patronatuan sartzeko hitzarmena sinatu ondoren. Hitzarmena Donostian sinatu zuten joan den egunean Joxe Maria Aizega Basque Culinaryko zuzendari eta Mondragon Unibertsitateko errektoreordeak eta Txema Gisasola Fagor Taldeko zuzendari nagusiak.

Basque Culinary proiektua babesteaz gain, Fagor Taldeak bere produktuak jarriko ditu



Ferran Adria sukaldariburua, erdian, Basque Culinary Centerren ekitaldian, joan den domekan.

VK COMUNICACION

haren instalazioetan eta ikerkuntzan lagunduko du bere baliabideak erabiliz. Gaur egun, bere diru-sarreraren %3 baino gehiago

bideratzen du ikerkuntza-proiektuetara. Txema Gisasolak hauxe esan zuen hitzarmena sinatzerakoan: "Sukaldaritzako profesio-

nalengandik eta honelako ikerkuntza-zentroetatik hurbil egonda, sektorean dauden premiak detektatuko ditugu eta, horietan

oinarrirituta, irtenbideak garatuko ditugu, etxetresna elektriko berriak eta produktu mota berriak sortzeko. Horiek onuragarriak izango dira azken erabilzailearendako".

Hitzarmena lau urterako da, hasieran, eta 2010eko urtarrilaren lein egongo da indarrean. Basque Culinaryk I+G+Ia garatzeko eta hainbat ikerkuntza-arlotan diharduten eragileekin lan egiteko duen helburuari erantzuten dio; eta, Fagor Taldearen aldetik, abangoardiako sukaldaritzaren bultzatzeko helburuari.

FERRAN ADRIA, LAGUNTZAILE

Bestalde, Basque Culinary Centerrek Ferran Adria sukaldariburua izendatu du bere Nazioarteko Aholku Batzordeko presidentea. Sukaldari katalanak Aholku Batzordea osatuko du beste sukaldari batzuekin batera, 2011n martxan jarriko den Gastronomia Zientzien Fakultateko patronatuari nahiz I+G zentroari gai estrategikoen inguruko aholkularitza estrategikoa emateko. Adriak esan du "laguntzea" dela bere helburua, ez "egote hutsa".

JENDARTEA > ELKARLANA

Parte-hartzearen gaineko sarea sortu dute erakundeek

'Parte-hartzea kudeatuz' delako sarea garatuko dute

Arrasate, Bergara, Aretxabaleta eta Oñati daude sare horretan

L.K. > BERGARA

Arrasate, Oñati, Bergara eta Aretxabaletako udalak Foru Aldundiarekin konprometitu dira *Parte-hartzea kudeatuz* izeneko sarea osatzeko eta garatzeko. Aurreneko biak Kudeatuz parte-hartze programaren lehen edizioan izan ziren, eta gainerako biak, bigarrenean.

Udal horietako ordezkariak, Foru Aldundikoek eta Kudeatuz programan parte hartu duten edo horretan diharduten beste 16

udaletako ordezkariak topaketa egin zuten egunean Donostian, eta denek oso balorazio ona egin zuten euren esperientziak.

Udal horiek eta Aldundiak erabaki zuten *Parte-hartzea kudeatuz* sarea sortzea, esperientziak eta ezagutzak partekatzeko. Gipuzkoako udalerrri guztiei zuzendutako sarea izango da, eta datozen hilabeteetan, hura diseinatze eta hurrengo bi urteotarako lan plangintza zehatz bat antolatzeko konprometitu dira.

EKONOMIA > ALOKAIRU SOZIALA

Etxebizitza bahituta duten langabeendako erraztasunak

L.K. > BERGARA

Etxebizitza hipoteka-exekuzioz bahituta eduki eta lanpostua galdu dutenek lehentasuna dute alokairu sozialeko etxebizitza bat eskuratzeko. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak horren gaineko arautegian aldaketa bat

egin du, egoera horretan daudenei erraztasunak emateko.

Aurrerantzean, baldintza bi horiek betetzen dituzten pertsonak dagokion Lurralde Etxebizitza Ordezkaritzan eskaera eta bere egoera egiaztatzen dituen dokumentuak aurkeztu behar

dituzte, eta Etxebizitza Eskatzailen Erregistroan izena eman, aurretik ez badaude izena emanda. Egiaztatu beharko dute lana Langileen Estatutuaren 51c edo 52c artikuluetan zehaztutako arrazoiengatik galdu dutela.

KOPURUAK GORA EGIN DU

Krisiaren ondorioz gero eta etxebizitza gehiago bahitzen dira: EAEn, 2009an 1.533 bahiketa izango direla kalkulatu da. 2007an, 584 bahiketa izan ziren, eta 2008an, 985.

EKONOMIA > PENTSIODUNAK

Aurretik erretiratuek pentsio osoa eskatu dute

Euskal pentsiodun eta aurretik erretiratuek batzarra egin zuten astelehenean

L.K. > BERGARA

Hego Euskal Herriko aurretik erretiratuek eta pentsiodunek errepikatu egin zituzten euren eskaerak joan den astean: Tolodoko Hitzarmena bezalako foroetan ordezkaturik egotea, alargunek pentsioaren %70 kobra

dezatela –gaur egun, %52 kobratzen dute–, eta 65 urtetik gorako aurretik erretiratuek pentsio altuagoak jaso ditzatela, zigor barik; gaur egun, 65 urtetik gora aurretik erretiratzen diren pentsioei zigorra aplikatzen zaie, eta ez dute %100 kobratzen.


Talde horrek Donostian batzarra egin zuen astelehenean, FEVAASEk (Aurretik Erretiratuen eta Pentsiodunen Euskal Federazioak) antolatuta. Debagoiengan, Appalde elkar-
tea da FEVAASEko kide.



Egunsentiaren esku izoztuak

liburuko zenbait poemaren errezitaldia DVDn jasoa. Xabier Lete zuzenean ikus-entzuteko aukera bakana.

Durangoko Azokan salgai



PAMIOLA

auzorik auzo

URIBARRI > Oñatin, Arantzazurako bidean dago Uribarri auzoa, erdialdetik kilometro bira. Lesezarri, Urrexola eta Arantzazurekin egiten du muga auzoak. Inguru paregabean, paseorako hainbat aukera eskaintzen ditu Uribarrik.



Mikel Alberdi, Uribarriko San Andres ermitaren aurrealdean.

A.E.

Mikel Alberdi > Uribarriko auzo-alkatea

"Joan den mende hasieran berri zuten eliza azkenekoz, eta ordutik ez da ezer egin"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Mikel Alberdi auzo-alkateak eman digu Uribarriko gorabeheren berri. Auzo bizia dela esan digu; hala, aste bukaeran ospatu berri dituzten San Andres jaietan gazteen parte-hartzea ona izan da. Gaztaina-erre jana, afaria, meza, luncha, olinpiadak... denetik izan dute.

Auzoaren inguruan bitxikeria bat daukazu.

Bai: irakurri dut Uribarri dela Oñatiko auzo zaharrena. Uribarri goikoa eta behekoa zeuden. Goikoa zen Arantzazu mendia. Urriagandik beherakoa zen, ostera, beheko zatia.

Auzoaren egoera ona da: ume jaioberrria eta 101 urteko ama dituzue auzoan.

Bai, egoera ona da. Denera, 34 baserri daude, eta bizilagunak 100 inguru gara. Gehienak hemen bizi gara, auzoan. Esan bezala, momentu honetan 101 urteko amandrea daukagu Otadui Txikin, eta baita jaioberriak ere.

Saneamendu obrak eginda, zein da zuen kezka nagusia?

Kezka berezirik ez daukagu, saneamendu obrak egin zirenetik aparteko langintzarik ez dugu izan. Momentu honetan ermitaren kontua dago. Egoera oso txarrean dago. Gaur egun, dirua lortzea izaten da zailena; bada, dirua lortzeko hainbat ate jo ditugu.

Aginduta badago; orain, ikusi egin behar da egiten den edo ez.

Joan den mende hasieran berri zuten eliza azkenekoz eliza.

XVI. mendekoa, 1567. urte ingurukoa da. Daukagun informazioaren arabera, joan den mende hasieran -1905- berri ziren hormak. Ordutik hona berrikuntza formalik egin gabe dago. Berri beharra dauka, batez ere ondoko etxeari egin diezaiokeen kaltea kontuan hartuta.

Sanandresak dira auzoko jaiak. Azkenaldian, gazteak ere buru-belarri sartu dira antolaketa lanetan!

Egubakoitz ilunkeran gaztaina-erre jana egiten dugu; iaz gazteen laguntza izan genuen eta aurtengo ere animatu dira. Gure tradiziozko kontuak mantendu ditugu: meza, luncha... baina, beste ukitu bat eman guran, olin-

"Urtzelaiko Emilio eta Gorordoko Andres omendu ditugu aurtengo jaietan"

"Elizaren egoera txarra da, eta momentu honetan hura konpontzea da lehentasuna"

piadak antolatu dituzte auzoko gazteek.

Ingurune paregabean egonda, ze ibilaldi egiteko aukera ematen du auzoak?

Hainbat ibilbide egin daitezke auzoan barrena. Argibilketa netetik sartuta, bide batek, goiko partetik, Urriagainera eramaten zaitu. Behetik gora sartuta Aingerukoa, Zelakua eta Baltzategi aldera joan zaitezke. Goitik behera, ostera, Gorordora.

Aurten jarleku batzuk ipini ditugu bide ertzean; elkartearen ondoan, Argibilketa eta beste batzuk Mixkingo aldean.

Arantzazura doan errepide nagusiak arazoak ematen ditu?

Autoak behetik gora datoze la Barrenekoraino sartuta daude, eta alderantziz ere bai, goitik behera Azkarragako zelaian ere sartu izan dira autoak. Goitik eta behetik abiadura ibiltzen dira autoak. Udalean eskatu genuen abiadura moteltzeko zerbaitek jarritza, baina esan ziguten Diputazioarena dela errepidea, eta Diputazioaren aldetik ezezkia jaso genuen.

Auzoak eman dituen izenen artean, bertsolariak daude.

Bai, Urtzelaiko Emilio eta Gorordoko Andres. Jaietan omenalditxoak egin diegu, gaztaina-erre janarekin batera.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Azaroko zozketa

SARIAK IRABAZTEKO:
943 08 10 50
harpidetza@goiena.com

Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedunentzat soilik.
Harpidetzeko erabili bide berdinak.
Kuota: 10 euro

ANTZERKIRAKO SARRERAK

Txalo konpainiaren Ate joka antzezlanak.



UMEENTZAKO LIBURUAK

Pamiela etxearen umeentzako liburuak.



SASKIBALOIARAKO SARRERAK

Lagun Aro - Real Madrid partidurako sarrerak.



EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA

Euskal Kirol Federazioen Batasunaren zira.



SARI NAGUSIA IRAILA-ABENDUA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



AHTEC NETBOOK LUG N011
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik



- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

Debagoieneko Ospitaleko Larrialdiek IV. Best in Class sarietan urrezko aipamena jaso berri dute. Sari horiek lortzeko hautagaien artean Espainiako 300 ospitale eta osasun etxe zeuden. Sari hauek gaixoarekiko kudeaketa, arreta eta prozesuen kalitatea hartzen dute kontuan. 2007an ere aipamena jaso zuen Debagoieneko Ospitaleko larrialdi zerbitzuak.

Mikel Sanchez > Debagoieneko Ospitaleko larrialdi zerbitzuko arduraduna

"Askotan familia-medikuaren ordeztzen dugu larrialdi zerbitzua"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Mikel Sanchez mediku bilbotarra da Debagoieneko Larrialdi zerbitzuko arduraduna. Gasteizko ospitalean hasi zen lanean, eta 2006ko ekainaz geroztik dago gurean. Sariak ondo daudela esan digu, baina onena erabiltzailea pozik egotea dela.

Zorionak! Urteetako lanaren ondorioa da aipamen hau.

Zoriontasunez hartu dugu Espainiako aipamen hau. Esan behar da urteetako lanaren ondorioa dela, eta larrialdi zerbitzuen asistentzia-kalitatea da saritu dutena.

Honek esan gura du egiten duguna ondo egiten dugula eta kalitateari garrantzia ematen diogula.

2006an hasitako lanaren ondorio dela esan daiteke?

Bai, hala da. 2006an hasi genuen prozesuaren ondorioa da. Orduan, ISO kalitatearekin ibili ginen lanean.

Zer uste duzu baloratu dutela saria ematerakoan?

Parametro batzuk hartzen dituzte kontuan; eta parametro horien barruan gure neurriak non dauden neurtzen dituzte. Adibidez, gaixoak zenbat itxaron behar duen. Espainian osasun gaietan adituak direnek egiten dituzte balorazioak.

Aurrera begira lanean jarraitzeko indarra emango du aipamen honek, ezta?

Bai, aipamena pizgarria izan da guretako, eta era berean gogor lan egiteko balio du. Hau da, ikusi dugu non ibili garen okerrago; hortaz, puntu horiek indartu eta hobeto lan egiteko balio behar digu.

Guk daukagun sistema informatikoaren bitartez, egiten dugun lan guztia gordeta daukagu. Kudeaketa sistema honek etengabeko hobekuntzan laguntzen digu; hala, non gabiltzan okerren ikusten dugu, puntu horiek indartzeko aukera emanez.

Dena dago infomatizatuta.

Bai, gaixoa larrialditara datorrenean datuak hartzen dizkiogu. Hala, duen minaren arabera bere egoera ze kategoriatan dagoen kokatzen dugu –bost kategoria daude–. Hori guztia ordenadorean jasota geratzen da; eta gaixo bat 30 minutu baino gehiago baldin badago itxaron gelan, bere fitxa berdez jartzen zaigu.



Mikel Sanchez larrialdi zerbitzuko sarreran.

A.E.

Ziurtatzen duzue gaixo larrieki lehenetsua emango diezuela?

Ezin da iragarri zenbat jende etorriko den larrialdietara. Batzuetan bi gaixo egoten dira eta beste momentu batzuetan 20. Guk ziurtatzen duguna da gaixoren bat larria den patologia edo min batekin etorri gero, lehenetsua berak izango duela.

Zure ustez, jendeak orokorrean ondo erabiltzen du larrialdi zerbitzua?

Beti ez da ondo erabiltzen. Askotan familia-medikuaren alternatiba bezala erabiltzen du jendeak larrialdi zerbitzua. Izan ere, jendeak badaki plaka bat egiteko, adibidez, familia-medikuak ez diola momentuan egingo; hemen, ostera, berehala egiten dugu.

Hori guztia gure ardura da, herritarrena. Hala, egunen batean min larriarekin baldin bagoaz larrialdietara eta itxaron egin behar badugu, kontuan hartu behar dugu beste egunen batean,

KALITATEA

"Egiten dugun lana ondo egiten dugu eta kalitateari garrantzia ematen diogu"

LARRIALDIAK

"Ziurtatzen dugu patologia larriekin datozenek lehenetsua izango dutela"

ORDUAK

"Eguerdian eta ilunkaran etortzen da jende gehien; baita aste bukaeran ere"

agian, guregatik itxaron behar izan dutela beste gaixo batzuk.

Gomendio bezala, noiz erabili behar da larrialdi zerbitzua?

Zaila da erantzutea; izan ere, nor bere mina ikusten du eta norberarentzat larria izaten da. Larria izatea da gauza bat eta beste bat da gaixoak duen pertzepzioa. Behin gaixoa hona etorri eta aztertu dugunean, orduan esango diogu larria den edo ez gaixo horrek duen patologia, baina aurretik esatea zaila da.

Noiz izaten duzue gaixo gehien?

Esan bezala, ezin da aurreikusi zenbat jende etorriko den. Hala ere, normalean 19:00etatik aurrera gorakada bat izaten dugu; eta, baita eguerdi partean ere. Aste bukaeran ere jende gehiago ibiltzen da; baina, normala da; izan ere, ambulatorioak itxita egoten dira. Astelehen goizetan ere, gaixo asko izaten ditugu.

Zeintzuk izaten dira larrialdi zerbitzuak erabiltzeko min ohikoena?

Gure bailaran Mondragon Taldeak pisu handia du; hortaz, min eta traumatismo asko ikusten ditugu. Baita, lan istripuak ere, baina ez larriak; adibidez, begian zerbait sartu izana izan daiteke lan istripu ohiko bat.

Urteko garaiaren arabera, patologiaak ezberdinak izaten dira; adibidez, negu partean hotz egiten duenez, arnas aparatuekin zerikusia duten min asko ikusten ditugu.

Nagusiak dira gehien etortzen direnak, baina normala da min kroniko gehiago izaten dituztelako.

Zenbat jenderi ematen dio zerbitzua ospitaleak?

Debagoiena osoari ematen dio zerbitzua. Kontuan hartu, baina, larrialdi kasuetarako Erorrioko jendea, adibidez, hona etortzen dela. Izan ere, gertuen duten ospitalea da.

Kutxa Aurreikuspen Plan

Zeure burua zenbat eta gehiago maitatu gaur,
orduan eta hobeto biziko zara bihar.

Gaurdanik zeure buruaz arduratzeak etorkizun patxadatsua dakarkizu.
Kutxa Aurreikuspen Planei esker, aurrea hartuko diozu erretiroari.
Gaur zeure burua maita, eta biharko etorkizun oparoa ziurta.



zer nahi duzu bihar?

kale inkesta

Hiesaren Kontrako Nazioarteko Eguna da bihar.
Azkenaldian beldur txikiago diogu hiesari?Jose Luis Gil
Langilea
Bergara

Badirudi gutxiago entzuten dela hiesaren inguruan; garai baten kezka handia sortu arren, egun baliteke jendea gutxiago arduratzea. Ez da nahikoa ikertzen, gertuagotik zaindu beharreko gaixotasuna dela uste dut.

Gemma Cachafeiro
Langilea
Bergara

Ustez eman diren urratsak direla eta, uste dut jendea ez dela hainbeste arduratzen. Beste hainbat gaixotasunekin moduan, ez da nahikoa ikertzen: medikamentuek txertoek baino diru gehiago ematen dute.

Lorea Askasibar
Langilea
Bergara

Kezkak hor jarraitu arren, akaso ez dira babes neurriak hartzen. Baliteke gazteak hainbeste ez arduratzea. Afrikan, belaualdi ugari ari dira desagertzen; Europan ez lukete halakorik gertatzen utziko.

Igor Basauri
Langilea
Bergara

Dauden medikamentuei esker, badirudi hiesa ez dela heriotza eragiten duen gaixotasuna eta ondorioz, jendea erlaxatu egin da. Ez dakit gazteak arriskuaz kontzienten diren, baina kanpaina gutxiago egiten da orain.

irakurlearen txokoa

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

ARRASATE

> Gernikako oinezkoen zumardian argirik ez

Irakurle batek deitu digu salatzeke Gernikako oinezkoen zumardian, Atxako zerrategitik Garaiara doan tartean aspaldian ez dagoela argiteria publikorik. "Jende asko ibiltzen da paseoan inguru horietan, baina neguan azkar iluntzen du eta ez da eroso argi gabe hortik ibiltzea" esan du irakurleak. Udalari eskatu dio arazo horri konponbidea lehenbailehen jartzeko.

DEBAGOIENA

> Musika eta edukazioa

Irakurle oñatiar bat e-postaz jarri da gurekin harremanetan, eta adierazi du kokoteraino dagoela musika topetara jarri eta auto-ko leihoak jaitzita ibiltzen diren gidariez. "Lotsagarria iruditzen zait: zergatik entzun behar dut kalean lasai noanean reagetoia edo punka? Berdina gertatzen da autobusetan, sakelakoan musika altu jarri eta mundu guztiak entzuteko moduan jartzen dutenean. Ez dut esaten musika ez entzuteko, baina besteok ez dugu zertan eurena entzun" adierazi digu haserre.

OÑATI

> Krisia eta Gabonetako argiak

Oñatin plazako zuhaitza bakarrik jarriko dute Gabonetan, eta irakurle batek deitu digu erabakia txalotzeko. "Ez du balio urtean zehar aurrezteko neurriak hartu, eta gero Gabonetako argietan dirutza gastatzeak", esan digu irakurleak.

ustek uste

Mirian Biteri

'Niri euskaraz',
urte osoan

Eguenean, abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna izango da eta urtero moduan, hamaika ekitaldi egingo dituzte bailaran datozen egunotan. Debagunek, esaterako, egun horretarako egindako *Niri euskaraz* dioen pegatina soinean jartzeko deia egin du.

Nik ere gonbite bera egin nahi diet herritarrei. Izan ere, euskaldunok arduratuta egoteko hamaika arrazoi ditugu. Eguneroko bizitzan gaztelaniak jaun eta jabe izaten jarraitzen badu ere, hori nahikoa ez dela eta Jaurilaritzako Hezkuntza sailak orain arteko hezkuntza eredia aldatzeko asmoa omen du. Oraingoa gizartea euskalduntzeko oso eraginkorra ez bada, zerbaitek esaten dit Isabel Celaák buruan duenarekin okerrera egingo dugula. Eskerrak diru gutxiagorekin bada ere, euskara elkarteek lanean jarraitzen dihardutela.

zorroztailea



Larraitz Ugarte

Oñatiko 'Neira'

"(...) Haren gertukoak diren herritarretako batzuek dagoeneko Oñatiko Neira deitzen dute bera. Gerardok ez du ezizen hori batera gustuko, baina dirudienez ezer gutxi egin dezake hori ekiditeko; hain zuzen ere, jendeak antzekotasun handiak aurkitu dizkie bi kasuei".

El Diario Vasco > 2009-11-23



Oñatiko Jesus *Neira*. Horixe da nere gertuko den pertsona bati hedabideek jarri dioten ezizena. Ezizenari izena ere jarri diote bere anonimato nahia errespetatu gabe. Duela bi aste, larunbat gauz Oñatiko taberna batean mutil bat neska gazte batzuei akosatzen zebilela ikusi eta eurei laguntzera hurbildu zen gizon edo pertsona baten istorioa duzue hau. Akosatzaila neskek ukitzen saiatzen ari zen eta hauek izututa zeuden eurak baino askoz indartsuagoa zen mutil baten akosoa sufritzen. Gure lagunak (beste lagun batzuekin batera) egoera ikusi eta beste aldeira begiratu beharrean, jarrera aktiboa hartu zuen. Emakumeok holako egoerarik jasan behar ez dugunaren uste sendoa dauka berak. Baina ez da jarrera paternalista bat bere erreakzioa azaltzen duena, indarkeria sexistaren aurkako jarrera tinkoa baizik.

Besteak, hedabide atzerakoi, ultrakontserbadore eta emakumeok biktima gisa ikusten gaituztenak dira emakumeak ahul eta gure laguna heroi bilakatu dutenak, morbo publikoaren mesedetan. Bera ez da heroi sentitzen, ez du holakorik nahi, berak egin behar zuena egin zuen eta kitto. Halaxe esan dit niri eta berarekin hitz egin duen orori. Zertara datoz orduan *Neirak* eta heroiak? Zerk egiten du berezi kasu hau? Gure lagunak jaso zuen zartakoak? Ala gertaeraren datak azaroaren 25a gertu izateak? Izan ere, Emakumeon kontrako indarkeriaren aurkako eguna izan da azaroaren 25ean eta urtero lez, aurtan ere modan jarri dute hedabideek gai hau. Eta errealitate gordinaren datu hotzak atera baino, morboa eman dezaketen titularrak bilatzen dira: Nagore Laffageren hiletaren datuak edo euskal *Neirak* kasu.

Emakumeon aurkako indarkeria gaur egungo gizartearen arazo nagusienetako bat da egunkarietako albiste laburrei so azkarra egin ezker. Baina morboak eta titular deigarriak baino, errealitatea azaleratzea eta emakumeon aurkako indarkeria begipuntuan jartzea izan behar dira helburu. Gure lagunak ez du saririk behar, emakumeon aurka indarkeriarekin amaitzea behar du.

**"Indarkeria
sexistaren aurkako
jarrera tinkoa da
berak daukana"**

**"Emakumeak ahul
eta laguna heroi
bilakatu gura dute"**

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Iker Barandiaran Erredakzioa Txomin Madina, Mirian Biteri, Xabier Urtzelai Oinarrizko diseinua Goli Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Oñatiaren Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale • Difusioa: 4.383 ale



ASTELEHENKO GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 14 Bergara > 16 Oñati > 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19
Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



> **ARRASATE**
Akordeoiaren hiriburu bilakatuko da herria berriro datorren asteburuan > 14



> **BERGARA**
Umeendako Gabonetako jolasparkea Udal Pilotalekuan egingo dute aurten > 17



> **ANTZUOLA**
Eskolako jolastokia estaltzeko lanak datorren urtean egin nahi ditu Udalak > 20

BERGARA > INGURUMENA

Udalak landareen eta animalien plan estrategikoa izan nahi du 2011rako

LANDA-EREMUAN

Helburua da udalerrian eta bereziki landa-eremuan egiten diren egitasmoetan planaren irizpideak jarraitzea

UGAZTUNAK

Urtea amaitu baino lehen Udalean ugaztunen gaineko inbentarioa prest izango dute

MIRIAN BITERI > BERGARA

Agenda 21eko plangintzaren hari-
ra, Bergarako Udalak hainbat konpromiso hartuta ditu biodibertsitatearen gainean. Horieta-
ko bat da udalerrian landareen eta animalien gaineko inbentarioa egitea. Informazio hori jasotzeko buru-belarri ari dira lanean azken urteotan.

Jasotako datu guztiekin, Udalak plan estrategikoa egiteko asmoa du. 2011. urterako gertu izan nahi du hori. Horren helburua da Bergaran dituzten animalien eta landareen gaineko katalogoa izatea eta egitasmoaren bat egin behar baldin bada, estrategia hori kontuan izatea. Ingurumen teknikari Naiara Corcuerearen arabera, "bereziki, proiektu horiek landa-eremuan egiten direnean eduki behar da plana kontuan".

Jakina denez, landareen gaineko azterketa dagoeneko egina dago. Euskal Herriko Unibertsitatea arduratu da horren gaineko ikerketa egiteaz. Horretan egun dauden landareen inbentarioa eta horiek behar bezala kudeatzeko hainbat proposamen jasotzen dira; hau da, udal mailan zer egin daitekeen kontserbatzeko eta horien babesa bermatzeko.

UGAZTUNENA, URTE AMAIERARAKO
Bestalde, Desma Estudios Ambientales enpresak ugaztunen gaineko proiektua lantzen dihardu orain. Corcuera azal-



Plan estrategikoa landa-eremuetan egingo diren proiektuetan izango du eragina bereziki; batez ere, San Martzialen.

JOSETXO ARANTZABAL

du du proiektu hori 2007 urtean esleitu zela eta urte amaierarako emaitzak jasotzea espero dutela. Inguruan dauden animalia mota eta kopurua zehazteaz gain, landareekin egin den moduan, Desmak horiek kudeatzeko proposamen teknikoak igorriko dizkio Udalari. Corcuerearen esanetan, "informazio hori jasotzean, Udalak gestio proposamenak aplikatzeko asmoa du".

Jarraian, landareen eta ugaztunen proiektuak amaituta daudenean, Euskal Autonomi Erkidegoko fauna eta flora mehatxatuen katalogoan azaltzen diren bi espezie aztertuko dituzte Ber-

garan. Corcuerearen esanetan, "alde batetik, hegaztien gaineko ikerketa egingo dugu; izan ere, udalerrian galzorian dau-

den hegazti asko egon daitezke-eta".

Horren harira, udal teknikariak gaineratu du Udalak dato-

ESANAK

"Batetik, hegaztien gaineko ikerketa egingo dugu, izan ere, udalerrian galzorian dauden hegazti asko egon daitezke-eta"

Naiara Corcuera > Teknikaria

"Aztertu beharreko beste animalia taldea saguzarrena da. Mendia Bizirik elkarte arduratuko da horretaz"

Naiara Corcuera > Teknikaria

ren hilean jarriko duela ikerketa hori egiteko prozesua eta horren gaineko emaitzak datorren urterako gertu izatea nahi duela.

SAGUZARRAK

"Aztertu beharreko beste animalia taldea saguzarrena da", dio. Kasu horretan, hainbat espezie ere galzorian daudela eta hortaz, "irizpide iraunkorrek" kudeatu ahal izateko aurretik ikerketa egin beharra dagoela esan du udal teknikariak. Corcuera baiezta digu talde horren gaineko azterketa Mendia Bizirik elkarteak egingo duela.



AEDkoek auzotarren laguntza izan zuten saiheskia prestatzeko orduan.



Ederto pasa zuten neska-mutikoeek hankapaloen gainean.

AED



AED Jende iladak sortu ziren pintxoak lortzeko.

AED

ARRASATE > EUSKARA BULTZATZEKO JAIA

Euskara, inoiz baino indartsuago izan zen zapatuan San Andres auzoan

Ordu eta erdi eskasean, Giokelak emandako 50 kilo saiheski banatu ziren

TXOMIN MADINA > ARRASATE
Arrasateko San Andres auzoan euskararen presentzia handitzea gura zuen AEDk zapatuko ekintzekin; eta esan daiteke egun batez behintzat, lortu zutela. Hasieran

jendeari hurbiltzea kosta arren, eguerdi partetik aurrera auzotar asko elkartu zen Gudari plazan.

Euro baten truke, Giokelak emandako saiheskia eta krianza tragoxka hartzeko aukera izan

zen; eta ordu eta erdian, 50 kilo saiheski banatu zituzten. Auzotar ugari ibili zen laguntzen.

Txatxilipurdik umeendako prestatutako ekintzetan, baina, ez zen hainbeste haur bildu. Por-

taloia taldearekin egindako bertso-poteoak, bestalde, umore bikaina zabaldu zuen auzoan.

AEDkoek esan zuten asmoa dela Santa Teresan eta Musakolan ere antzeko jaialdiak egitea.



J.A.

OSINTXU > TRUKE MERKATUA

Esperientzia positiboa izan zen gauzak trukatzeko merkatua

Arropak, jostailuak, disko eta DVDak... Denetarik elkartrukatzeko aukera egon zen atzo Osintxuko frontoian. Dozena bat postu jarri zituzten bertan; ez bakarrik auzotarrek, Bergararik, Arrasatek eta Soroluzetik ere joan ziren-eta. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, baina antolatzaileek esan zuten, espero baino jende gehiago bertaratu zela. Esperientzia positiboa izan zela gaineratu zuten, eta aurreratu zuten datorren uda inguruan errepikatzeko asmoa dutela.

ARETXABALETA > KALE HEZIKETA

Gaztetxo asko bildu ziren 'Manhattan'-en kale hezitzaileek prestatutako ekintzetan

Tatuaje eta txapak egin, graffitiak marraztu edo skatea eta breakdancea praktikatzeko aukera izan zuten egubakoitz arratsaldean.



Gaztetxo ugari ibili ziren graffitiak egiten.

J.A.

T.M. > ARETXABALETA

"Gura genuena zen gaztetxoak lokaletatik eta etxeetatik atera eta kalean biltzea, uste dugu-eta lehen zegoen kaleko bizimodua berreskuratzea ona dela". Horrelaxe azaldu zuen Esti Arrizabalaga kale hezitzaile eta ekintzen antolatzaileak egubakoitzean Errekabarren atzeko partean burututako ekimenaren zergatia.

Izandako erantzunarekin gustura zegoen gainera Arrizabalaga, bere esanetan uste baino jende gehiago gerturatu zen-eta.

KULTURA URBANOA

Grffitiak, tatuajeak, skatean edo break dancean aritzeko aukera... Telebistan askotan ikusitakoak egiteko aukera izan zuten neska-mutikoeek, eta begi onez hartu zuten ekimena; adierazi zuten, ez dira-eta asko eurei zuzendutako horrelako planak.

ESKORIATZA > ARDO DASTATZEA

Aitzorrotzek bizitasuna eman zion plazari, zapatuan

Momentuan erretako txistorrak oso harrera ona izan zuen ardo zaleen artean

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Giro ederra egon zen joan den zapatu iluntzean Eskoriatzako herriko plazan. Aitzorrotz kultura elkarteak antolatuta, Errioxako saldak dastatzeko aukera izan zuten han batu zirenek. Hasiera lasaia izan bazen ere, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen ikuskizuna amaitu zenean, jende askok plazarako bidea hartu zuen, ardoa eta txistorra pintxo beroa jateko asmoz.

URTEKOA, ONDUA ETA ZURIA

19:30erako plaza jendez lepo zegoen. Ordurako, udaletzeko arkupetan, jo eta su zeuden zartaginak txistorra gozoa fri-

jitzen; plazan jarritako bost karpitan, berriz, ardo botilei kortexoa kentzeko astirik ez zuten. Aurreko edizioetan bezala, salmenta txartel bidez egin zuten; 5 euroren truke beste horrenbeste txartel jaso zuten ardo zaleek.

Askotariko salda edateko aukera izan zuten han. Urteko ei dagokionez, Ostatu, Ikasle, Eredun eta Larchago; eta ardo ondoen harira, Mazarredo, Larchago, Salabal eta Marques de Vitoria. Ardo zuria gustuko zutenek, bestalde, Blanco Nieva zuten. Musika ez zen falta izan, dastatzeak iraun zuen bitartean: herriko txistulariak emanalditxo eskaini zuten.



Plaza bete zen Pirritx eta Porrotxen ikuskizuna amaitzean. JOSETXO ARANTZABAL



Txistorra pintxo beroek oso harrera ona izan zuten. JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE > TXATXILIPURDI

Gazteek jaia egin zuten Erguinen

Txatxilipurdik antolatuta, Erguingo gazte txokoak jai berezia egin zuten zapatu goizean. 10:30ean, Erguingo eta Musakolako gazteak gosaltzeko elkartu ziren. Txokolatea gertatu eta hori bizkotxoz lagunduta hartu zuten. Jarraian, zazpi probaz osatutako zirkuitua egin behar izan zuten gazteek.

Binaka zirkuitua ahalik eta azkarren igaro behar zuten. Talde guztiek bikain egin bazuten ere, hainbatek bigarren proba amaitzeko arazoak izan zituzten, ezkerre eta eskuma zeintzuk ziren garbi ez zutelako. Azkenean, Erguingo gazte txokoko David eta Joseba izan ziren irabazleak. Gasteizen zinema ikusteko sarrerak jaso zituzten esandako bi gazteek, sari moduan.



MIRIAN BITERI

OÑATI > GAZTELEKUA

Pablo Mezzelanik gazteak liluratuta utzi zituen

M.B. > OÑATI

Arrakasta itzela izan zuen bari-kuan, Oñatiko gaztelekuko topalekuan, Pablo Mezzelani argentinarrak eskainitako musika saio didaktikoak. Mundu osoan zehar batutako instrumentu etnikoen gaineko azalpenak adi entzun zituzten 50 gaztetik gora.

50 INSTRUMENTU


Ordu eta erdiko saioan, 50 bat instrumentu erakutsi zizkien irudiez lagunduta; tartean Euskal Herrikoak ere, hala nola, txistua edo muxugitarra. Horrez gain, antzekoak diren tresnen arteko aldean gaineko azalpenak ere eman zizkien. Saioa amaitzean, instrumentuak gertutik ikusteko aukera izan zuten gazteek.



Pablo Mezzelani bari-kuan, Oñatiko gaztelekuan. JOSETXO ARANTZABAL

ESKORIATZA > DEBAGOIENEN 1/18 RALLY GAME I. SARIA

Dospistones taldea pozik dago atzoko lasterketak izandako harrerarekin



Eskoriatzako pilotalekuan egin zuten lasterketa. JOSETXO ARANTZABAL

M.BITERI > ESKORIATZA

Debagoieneko 1/18 rally game I. Saria jokatu zuten atzo, domeka, goizean Eskoriatzako pilotalekuan. Guztira, zazpi pilotuk parte hartu zuten; horietatik, bost debagoiendarrak ziren. Soraluzeko Jabik irabazi zuen lehia; eta atzetik Legazpiko Oskar eta Arrasateko Jon geratu ziren. Saikapeneko lehenengo hiru pilotuek garaikurra jaso zuten sari moduan.

Irteeran autoak nondik irten behar ziren zehazteko, aurretik bi klasifikazio txanda egin behar

izan zituzten parte-hartzaileek. Horietan autoek bi bira eman zizkieten zirkuituari.

20 MINUTUKO LASTERKETA

Lasterketak 20 minutu iraun zuen. Denbora tarte horretan pilotuek autoei batera aldatu barik gidatu behar izan zuten. Inork ez zuen lehia bertan behera utzi.

Norgehiagoka amaitzean, Dospistones elkarteko Iñigo Gartzia pozik zegoen guztia aurrekusi bezala irten zelako, eta aurretik zigun dagoeneko lasterketa berria prestatzen hasi direla.



Iñigo Aizpirolea lehiaketen koordinatzailea eta Udaleko Ino Galparsoro eta Oihana Aranburu izan ziren prentsaurrekoan. GOIATZ ARANA

MUSIKA > 17. AKORDEOI LEHIAKETA

Arrasate, akordeoiaren hiriburu lau egunez

Aurtengo edizioa berezia da, Nazioarteko Akordeoi Konfederazioaren neguko biltzarra egingo dute-eta

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Joan den egunean aurkeztu zuen Hauspoz elkarteak Arrasateko 17. Akordeoi Lehiaketa. Txalaparta elkartearen egindako prentsaurrekoan Iñigo Aizpirolea lehiaketaren koordinatzailea eta Udaleko Ino Galparsoro eta Oihana Aranburu izan ziren. Azken edi-

zioetan moduan, hiru zatitan banatuko dira ekintzak.

Batek, Gipuzkoako Akordeoi jaialdiaren 22. edizioa egingo dute; hezkuntza eta promozio izatera du. Bigarrenik, Gipuzkoako 30. Akordeoi Lehiaketa egingo da; antolatzaileek diotenez, Estatu-ko "osatua eta zailena". Eta

azkenik, Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa egingo dute, aurten 17 urte beteko dituen. Kontzertugile izan gura duen akordeoilariendako da eta nazioarteko 22 partaide batuko dira.

UDALAK HAUSPOZ ESKERTU

Ino Galparsoro Arrasateko alkateak Hauspoz elkarteari eskerak eman zizkion Arrasate "akordeoiaren munduko hiriburu" bihurtzeagatik.

GERTAERAK > GAS ISURIA

Hodi baten apurketak gasik gabe utzi zuen erdigunea

Egubakoitzean gertatu zen ezbeharrak; farolak jartzen zeuden langileek hautsi zuten hodia

J.B. > ARRASATE

Arrasate pasealekuan -31. zenbakira arte-, Olarte kalean eta alde zahar osoan gasa moztu behar izan zuten, Arrasate pasealekuko 19. zenbakian -Arkitekto izenez ezaguna den etxearen parean- gas isurketa izan zelako. Eta ez hori bakarrik, zenbait bizilagunek jakinarazi zuten Otalora lizentziaduna kalean ere hainbat taberna gasik gabe geratu zirela.

'EZ GENEKIEN HODIRIK ZEGOENIK'

Ezbeharrak gertatu zen farolak jartzen zeuden langileek gas hodi bat apurtu zutenean. Farolak eusteko makilak lurzoruan sartzen ari zirela apurtu zuten hodia. Apurketaren inguruan

honakoa adierazi zuten langileek: "Ez genekien bertan gas-hodirik zegoenik, eta ez zegoen kartelik horren berri emateko".

Langileek Gas usaina hartu zutenean ohartu ziren zerbait txarto zegoala. Eta berehala deitu zuten 112ra. Udaltzainak agertu ziren lehenengo eta gutxira bertaratu ziren suhiltzaileen hiru kamioi. Hauek lehendabizi matxura aurkitzeari ekin zioten aparailu berezi baten bitartez. Matxuraren toki zehatza aurkitu zutenean Naturgaseko teknikoak hasi ziren konponketa lanekin. Horretarako, noski, gasa moztu behar izan zuten lehen aipatutako kaleetan.



Farolak jartzen zeuden langileek hautsi zuten gas hodia.

GOIENKARIA

GABONAK > DIRULAGUNTZAK DENDARIENDAKO

Gabonak arintzeko, dirulaguntzak dendariendako

Jaurlaritzak dirua emango die, langileak hartzearen eta giroa berotzearen

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak emango die Arrasateko dendariei Gabonetako kanpainan laguntzeko. Hain zuzen ere, lanerako pertsonak kontratatzeke eta herriko giroa animatzeko ekintzak antolatzeke dirulaguntzak izango dira.

LANGILEAK HARTZEAREN

Dirulaguntza jasoko dute dendariak langileak kontratatzearren. Azken 30 egunetan langabezia egon den pertsona izan behar da kontratatu gura dutena, lanaldi osorako hartu beharko dute eta gutxienez 45 egunerako.

Dendariak 1.200 euro jasoko ditu gehienez, lanean hartzen duen pertsonako. Gura dituen beste langile hartu ahal izango ditu dendariak, baina jasoko duen dirulaguntza ez da, inolaz ere, 12.000 euro baino handiagoa izango. Dirulaguntza horiek lortzeko, abenduaren 15a baino lehen bidali behar du eskaera dendariak Jaurlaritzara.

KALEKO GIROA ANIMATZEN

Bestalde, Gabon egunetan herriko kaleko giroa animatzeko ekitaldiak antolatzeagatik ere dirulaguntzak emango ditu aurten Jaurlaritzak. Kultura ekintzak badira, ehuneko ehuneko lagunduko ditu; bestelakoak badira, %90eko laguntza izango dute.

Horri lotuta, Ibai Arte dabil pentsatzen kultura ekitaldi bat antolatzea herriko talde ezberdinekin. Ikuskizuna eta eguna, baina, zehazteke ditu oraindik.



Luko jantzi-dendak martitzenean apaindu zituen dendako erakusleihoak.

O.E.

Jose Riviere > Erretiratuaren ordezkaria

"Gure esaldia da: nagusi barik, nagusiendako ezer ere ez"

UBANE MADERA > ARRASATE

Jose Riviere (Tarrasa, 1937) mila lekutan dagoen erretiratu horietako bat da, erretiratu ostean lehen baino lan handiagoa egiten duen horietakoa. Ibilbide publikoa Abaroan hasi, eta azkenaldian inguruko erretiratuaren ordezkari bihurtu da.

Zenbat kargu dituzu?

Abaroa elkarteko presidentea naiz. Debagoieneko Eskualdeko Batzordeko presidentea ere bai. Eta Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteko presidentek dimititu egin duela-eta, idazkariorde izatetik elkarteko idazkari izatera pasatu naiz orain.

Zelan iritsi da arrasatear bat kargu horietara guztietara?

Abaroa elkarrekin ibarreko elkarte guztiek moduan Eskualdeko Batzordean bi ordezkari ditu; batzorde horrek biotako bat aukeratzeko badu eskualdeko presidente izateko, pertsona horrek lortu du Gipuzkoako elkartean sartzea, han elkartzen dira-eta eskualde guztietako ordezkariak. Gero, ikusten badute pertsona horrek lanerako gogoia duela, interesa erakusten duela, eta kritikotasuna ere bai... ba horrela. Gu gara, gainera, Gipuzkoako elkarteko eskualderik kritikoenak.


Zein zentzutan?

Karta-joko, gastronomia jardunaldi, erretiratuaren martxa, abesbatzen topaketaz... arduratzen dira eskualdeetako ordezkariak. Baina oso kritikoak ez dira. Ez dute ezer errebindikatzen. Diputazioak dirulaguntza ematen du eta horrekin zer egin erabakitzen dute; eta kritiko ere izan behar da.

Zer da kritikatzeko duzuen?

Diputazioari, besteak beste, pertsona nagusiak ez gaudela eztabaida-gune edo erabaki-guneetan. Gizarte Zerbitzuen Legeak onartzen du nagusiok izan beharko garela Diputazioaren, udalen eta dagokien erakundearen kontseilu sozialetan. Estatuan, Toledoko hitzarmenean ere jasota dago, eta Zapatero presidentek ere agindu zuen hori, aurten, Madrilen egiten zuten Imbersoren hirugarren batzarrean; neu ere izan nintzen han.

Dena den, ulertzen dut mahai guztietan egon arren, gure erabakia ez dela bestearen gainetik izango. Batzuetan ekarpenak egin ahal izango ditugu; batzuk onartuko dituzte, eta beste batzuk ez. Gura duguna da ordezkari izatea. Arrasaten, adibidez, bada Hirigintza Batzorde bat hainbat herritarrez osatutakoa; hori neu nago. Arrasateko lau elkarrekitako ordezkariak aukeratu ninduten. Eta orain Diputaziotik ere deitu didate herritarren parte-hartzearekin lotutako foru arauaren proiektua esplikatzeko.



Jose Riviere, Abaroa erretiratuaren egoitza berriaren obren aurrean, San Andres auzoan.

U.M.

"Erreklamatzeko duguna da eztabaida-guneetan egotea, gure ahotsa ere entzun dadin"

"Erretiratuak hilda bageunde moduan kontsideratzen gaituzte eta emateko asko dugu"

Izan ere, halako kontuak arautu egin behar dira; legea egin eta diru partida ipini. Dependentsien Legea? Papera besterik ez da, dirurik ez badago. Eta hori erakunde publikoek egin behar dute. Erreklamatzeko duguna da entzun gaitzela. Gure esaldia da: nagusiendako ezer ere ez, nagusi barik. Erretiratuak hilda bageunde moduan kontsideratu izan gaituzte, eta ez gaudela hilda. Hemen gaude, aktibo gaude eta emateko asko daukagu. Adibidez, historialari batek historiaren gaineko liburu bat idatzi gura duenean, bibliotekak eta kontsultatzeaz gainera, nagusiei galdetzen die. Haiek guztia dute buruan eta gogoan.

"Garraioan asko aurreratu da Arrasaten eta inguruan; Bilborako, baina, bada zer hobetu"

"Egoitzara joan barik, pertsonak etxean geratu gura du; eman ditzatela horretarako laguntzak"

Gutxi, baina eman dira aurrepausoak nagusiekiko...

Bai. Gipuzkoan, Diputazioak sortu du Nagusien Batzordea; Diputazioaren aholkularitza organoa da. Orain arte ez diote kasu handirik egin, baina ondo funtzionatuko balu, asko emango luke. Fabriketako langileez gain, teknikari, medikuak... ere badaude, ekarpen handiak egin ditzaketenak. Arrasaten saiatu ginen hori egiten orain urte batzuk, baina Udala ez zen "busti".

Zein da Arrasateren egoera inguruarekin konparatuta?

Badaude eguneko zentroak, etxebizitza tutelatuak, jangela soziala... pausoak ematen badabil-

tza. Motel? Akaso egoera ere ez da onena. Baina hobe da pausoak ematea poliki, pausorik ez ematea baino. Garraioan ere asko aurreratu da, zerbitzu zein prezioei dagokienez. Hori bai, Bilborako oraindik bada zer hobetu.

Zer eskatuko zenioke Arrasateko Udalarari nagusiendako?

Ongizate gizartea igar dadila, Dependentsien Legea gara dezatela, etxez etxeko laguntzak eman ditzatela... pertsonak ez du gura egoitzara joan; etxean geratu gura du. Beraz, ipin dezatela pertsona horiek etxean behar dituzten laguntzak. Badakit hori dirua dela, baina ahalegin daitezela hori egiten. Eta ez udalek bakarrik, uste dut aurrezki kutxek (bereziki, Kutxak) ere hobetu egin beharko litzuketela nagusiendako ekarpen sozialak. Pentsio gehienak Kutxatik kobratzen dira; ondorioz, Kutxak hobetu egin beharko luke. Ahalegindu behar dugu Gipuzkoan eurekin elkarriketatzen ea zela hobe daitekeen erabakitzeke. Dirulaguntzak emanez... nagusien beharrak errealitate bihurtu daitezke. Eta ahalegindu behar dugu, baita ere, Eudelekin akordioaren bat lortzen, gure ahotza ere entzun dezaten.

ZAHAR BERRI

Euskararen gainean hitzaldi bi, Kulturaten

Jurgen Wolff izango da gurasoei begira antolatu diren saioen hizlaria

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Zahar berriko euskararen gaineko hitzaldiak antolatu ditu Kulturaten abenduaren 2rako eta abenduaren 9rako. Jurgen Wolff Donostiako Tandem fundazioko kidea izango da hizlaria eta gurasoen euren seme alabengana begirako euskararen transmisioa eta seme-alaben eta gurasoen arteko aisialdirako laguntzak ematen ikastea izango dira hitzaldion oinarriak.

BIHAR ETA ABENDUAREN 9AN

Hitzaldiak bihar eta hurrengo martitzenean izango dira. Bihar, euskararen transmisioa izango dute berba, *Umeei nola transmititu euskarra eta erabiltzearen arazoak* izenburu duen saioan.

Bigarren hitzaldia, datorren martitzenean, abenduak 9, izango da. Honela bataiatu dute bigarren hitzaldia: *Nola galdu lotsa hitz egiterakoan, bai umeekin jolasean gabiltzanean bai etxeko lanak egiten laguntzen diegunean*. Hitzaldiak Kulturaten izango dira, 18:30ean.

> POLITIKA

PSE-EEK Udalaren "pasibotasuna" salatu dut, pankarten harira

Alderdi sozialistak prentsa ohar baten bitartez salatu du "pasibotasuna" erakustez gainera, arrasatearrekiko "interes falta eta mesprezua" ere erakusten dituela Arrasateko Udalak. "Gizabidezko elkarbizitza demokratikoaren arauetatik auto-marjina-tu" egiten duela dio.

> MUSIKA

Angerren disko berria salgai izango da eguaztenetik aurrera

Ibilbide luzea daroan Arrasateko Anger taldeak zapatuan aurkeztu zuen *Sedukzioaz* bataiatu duten disko berria. Diskoa Gure Leku tabernan aurkeztu zuten, zuzeneko berezi batekin.

Bada, abenduaren 2an jarriko dute salgai herriko hainbat tabernetan. Durango-ko azokara ere eroango dute.

UDALA > KIROL ZERBITZUA

Agorrosingo tasen gaineko informazio kanpaina egingo dute abenduan

Hastear dagoen 2010. urterako kirol tasen berri emateaz gain, egon daitezkeen zalantzak argitu nahi ditu kanpainarekin Kirol Zerbitzuak

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Udal Kirol Zerbitzuak informazio kanpaina abiaraziko du abenduan eta hilabete osoa iraungo du. Erabiltzaileei 2010. urterako kirol tasen gaineko informazioa ematea da kanpainaren helburua. Unai Asurmedi Kirol teknikariak halaxe azaldu du kanpainaren beharra: "Zalantza eta duda asko dago datorren urteko Kirol Zerbitzuko tasen gainean; bada, hori argitzeko egingo dugu kanpaina".

Kanpainari dagokionez, hiru modutan gauzatuko da: batetik, informazio kartelak jarriko

dituzte kirol eremuetan; bestetik, Agorrosin Ekintza Guneko sarreran dauden tornuetan eskuorriak jarriko dituzte; hirugarrenik, ikastaroetan diharduten erabiltzaileei ere emango diete informazioa begiraleek.

ALDAKETA NABARMENAK

Kirol Zerbitzutik azaldu duteenez, "datorren urteko aldaketa nagusia da Kirol Zerbitzuko tasak ezartzeko orduan aintzat hartu dela herrian erroldatuta egotea". Hori horrela, Bergaran erroldatuta ez dagoenak %50 gehiago ordainduko du abonua;

erroldatutakoak, berriz, 2009an bezala ordainduko du.

Hori azaltzeko, adibide bat erabili du Unai Asurmendi: "2009an abonua osoa zuenak 18 euro ordaintzen zituen, eta aretoko txirrindan izena emanda zuenak, 15 euro. Bada, 2010ean, tasa horiek erroldatu eta ez errol-

datuen artean desberdindu dira. Hala, erroldatuta dagoenak berdin ordainduko du eta erroldatu gabe dagoenak, berriz, %50 gehiago. Hau da, abonua osoagatik ordainduko ditu 27 euro eta areto txirringa ikastaroagatik, 22,5.

ERABILTZAILIEN INKESTAK

Iaz hasitako ildotik, eta abenduaren 23ra arte, ikastaroen gaineko inkestak egingo dituzte Agorrosin -Ekintza Gunearen zein hango eskaintzaren gaineko gogobetetasun inkesta sorta egingen hasi ziren iaz-.

Eskuorriak ekintza guneko harreraren eska daitezke eta Agorrosin dei egiten diete erabiltzaileei inkesta-orriok betetzera animatzeko. Emaitzak urtarriean emango dituzte aditzera.

ANGIOZARKO PILOTALEKUA

Jardunek jolasleku ibiltaria egingo du abenduaren 12an Angiozarko pilotalekuan, 17:00-19:00 ordu-tegian. Hori horrela, ordutegi horretan erabiltzaileek pilotalekua ezingo dutela erabili jakinarazi dute Kirol Zerbitzutik.

ESANAK

"Herrian erroldatuta dagoenak aurten bezala ordainduko ditu 2010ean Kirol Zerbitzuko tasak; ez dagoenak, bikoitza"

Unai Asurmendi > Kirol teknikaria

DATUA

%50

GARESTIAGO

2010eko kirol tasak ezartzekoan aintzat hartu dute herrian erroldatuta egotea. Dagoenak iazko kopurua ordainduko du; ez dagoenak, %50 gehiago.



Bazkari ederrarekin amaitu dute Mizpirualde Astea

Mizpirualdeko aitaita-amamek ondo baino hobeto pasa dute azaroaren 16an hasi eta 21erako astea; izan ere, Mizpirualde Astea ospatu dute eta askotariko ekitaldiak izan dituzte. Egin dituzte, esaterako, mahai-joko ugari eta ikusi dituzte, besteak beste, Musika Eskolako trikitilarien eta abesbatzen emanaldiak. Asteari amaiera emateko bazkaria egin zuten udal ordezkariekin batera aurreko zapatuan. Dantzan majo egin zuten.

oharrak

GAZTEAK

> **Euskal Herrian bidaiatzeko proposamen sorta batu dute**

Gazte Informazio Bulegoak batu du eta eskuragarri jarri du www.bergara.net webgunean. Bailarakako sarrerak daude eta turismo bulegoetarakoak.

LUNTXA

> **Erretiratuendako luntxa eman du Lasai Tokik**

Abenduaren 8an izango da,

12:00-14:00 ordutegian; eta, urtero bezala, herriko erretiratu guztiak daude gonbidatuta.

DEIALDIA

> **Aritzeta gonbita egiten die herritarrei taldean parte hartzeko**

Entseguak egiten dituzte astelehen eta eguaztenetan, 21:00etan, Mizpirualdeko elizan, eta abesbatzan parte hartzeko interesa duenak bertaratu baino ez du. Informazio gehiagorako deitu 660 98 32

78 zenbakira edo idatzi arizeta-abesbatza@gmail.com helbidera.

MUSIKA ESKOLA

> **'Miserableak' ikuskizunaren DVDa eta CDa Musika Eskolan salgai**

Dagoeneko iritsi dira *Miserableak* ikuskizunaren DVDak eta CDak Musika Eskolara. DVDaren prezioa da 15 euro eta CDarena, 7. Jasotzeko jo idazkaritzara, astelehenetik egubakoitzera, 15:30-19:30 ordutegian.

UDALA

> **Autolaguntza taldea osatu nahi dute ezinduen zaintzaileendako**

Mendekoak zein ezinduen euren kargu dituzten pertsonendako autolaguntza taldea sortu nahi du Udalak. Halako gaixoak dituztenendako elkargune izatea da asmoa. Autolaguntza taldean parte hartzeko interesa dutenek Ongizate zerbitzura jo dezakete edo 943 77 91 65 telefono zenbakira deitu.

KINTADA

> **1947an jaiotakoek afaria egingo dute Tartufon**

Abenduaren 5ean egingo dute, 21:00etan. Izenematea gaur bukatuko da, Fraiskozuri kalean dagoen Euskadiko Kutxan ireki duten zenbakian: 009.1.09901.9. Sartu behar dira 60 euro. Joan-etorriarako autobusa egongo da; 20:30ean abiatuko da joanekoa Santa Marina parrokia ostetik.

Urtarrilaren 2an, 3an eta 4an izango da, 3 eta 9 urte artekoentzat; hortik gorakoendako uretako jolasak egongo dira, Agorrosinen

Berrikuntzen artean, Olentzero eta Mari Domingi zaldiz tiratutako karrozan jaitsiko dira menditik

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Gero eta gertuago daude Gabonak eta Udaleko Kultura Sailak labean du Gabonetako egitaraua. Hainbat berrikuntzarekin dator, gainera; nabarmenenak umeendako ekitaldiei dagozkienak: batetik, jolasparkea lekuz aldatzea; bestea, Olentzero eta Mari Domingi garraio mota aldatu egingo dutela.

Jolasparkeari dagokionez, urtarrilaren 2an, 3an eta 4an izango da, 11:00-13:00 eta 17:00-20:00 ordutegian, eta egun osoko sarrerak 5 euro balioko du. Lekuari dagokionez, Labegarietan beharrean Udal Pilotalekuan izango da. Kultura arduradunek azaldu dute horren arrazoiak: "Labegarietan egin izan dugu azken urteetan eta gainbehera etorrita zegoen; gero eta ume gutxiago joaten zen. Erdigunetik urrun dago eta hotza ere egiten du. Hala, Udal Pilotalekura eramatea erabaki dugu".

Pilotalekua Labegarieta baino txikiago denez, adin tartea mugatu beharra izan dute: 3 eta 9 urte artekoendako jolasak egon-

GABONAK > BERRIKUNTZAK

Umeendako Gabonetako jolasparkea Udal Pilotalekuan egingo dute aurten



Umeek ondo baino hobeto pasatzen dute puzgarrietan.

GOIENKARIA

ESKAPARATE LEHIAKETA

Artisau ferian zilarra, narrua... landu ahal izango dituzte ikusleek

Aurten ere artisau feria egongo da Munibe plazan egokituko duten karpan. Abenduaren 18an, 19an eta 20an izango da, eta 12 artisau hartuko dute parte; tartean, Bergarako lauk: Iker Gabilondo (zilarra); Ebert Sanchez (bitxigintza); Koro Iraegi (belusa) eta Emanuela Ghevio (xaboiak).

Aurten izena eman duten artisauen kopurua izan da postu kopurua baino handiagoa; hortaz, aukeraketa egin du Udalak ahalik eta produktu aukera zabale- na egon dadin.

Aurtengo feriare berrikuntza da artisau tailerrak egingo direla, 19an eta 20an, eta horietan ikusleek parte hartu ahal izango dutela. Batetik, 12:00etan, zapi, abaniko eta zapatagileek erakustaldia egingo dute. Bestetik, 18:00etan, herritarrek parte hartu ahal izango dute tailerrotan: 19an, zeramika hotza landuko dute; 20an, narrua eta zilarra. Taldeok, gehienez, hamar lagunekoak izango dira eta aurrez izena eman beharra dago. Izena egunean bertan eman behar da, tailerra emango dutenen postuan.

go dira han. Adin horretatik gorakoendako, uretako jolasak egingo dituzte Agorrosinen.

Fraiskozurin jarriko dituzte, besteak beste, puzgarriak, ludoteka, kale heziketa zirkuitua, *virtual dancing* eta bideojokoak. Agorrosinen ere askotariko puzgarriak egongo dira.

OLENTZERO, KARROZAN

Olentzero eta Mari Domingi zaldiz tiratutako karrozan jaitsiko dira elkarrekin, San Martzialdik, eta ez asto gainean, orain arte bezala. Batetik, hori da berrikuntza; eta bestetik, Olentzero ez dela San Martin plazan egongo umeak altzoan hartu eta gutunak batzen. Hain justu, gutunak batu- ko ditu San Martin plazara iristeko egingo duen ibilbidean zehar. Egun horretarako dei egingo die Udalak herritarrei 19:00etan batu daitezen azoka ostean Olentzero eta Mari Domingiren zain.

HIRU IKUSKIZUN

Hiru ikuskizun ere antolatu ditu Kultura Sailak gaztetxoendako, Zabalotegi aretoan: abenduaren 28an, *Xamarikoeko kutxa majikoa* -3 eta 10 urte artekoendako ikuskizuna- egongo da; abenduaren 29an, Kixka antzerki taldeak egingo du saioa -3 eta 12 urte artekoek zuzenduta-; eta abenduaren 30ean, berriz, Marsel magoak -5 eta 14 urte artekoek zuzenduta-.

INGURUMENA > BIRZIKLAPENA

Abenduaren 19an iritsiko da herrira beira birziklatzeko informazio kanpaina

Domingo Iralan jarriko duten karpan emango dute informazioa, 11:30-14:40 ordutegian

M.B. > BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateak beira birziklatzeko kanpaina ibiltaria antolatu du. Azaroaren 20an abiatu zen, Antzuolan, eta bailara zeharkatu eta gero abenduaren 19an iritsiko da Bergarara.

Kanpainaren bitartez, beira birziklatzeko zein prozesu egiten den eta zein onura lortzen diren azaltzeaz gain, gogora ekarriko dute edukiontzi berdeetan soilik sartu behar direla beirazko botilak, poteak eta flaskaok. Eta azalduko dute, modu argian, edukiontzi berdera ezingo direla bota: portzelanak, zeramikak, tapak, tapoiak, txapak, bonbillak, fluoreszenteak, ispiluak, leihotako kristalak, edalontziak, kopak eta kristalezko platerak. Izan ere,

jarraitu beharreko prozesuan arazo larriak sor ditzakete.

KARPA, DOMINGO IRALAN

Kanpaina egin dute Ecovidriok emandako diruarekin eta jendearekin harreman zuzena izatea da helburua. Horretarako, karpa bat jarriko dute Domingo Irala kalean, 11:30-14:30 ordutegian. Karpa horretan egongo dira gaien adituak diren bi dinamizatzaile eta gerturatzaren direnei beiraren birziklatzearen gaineko informazioa emango diete.

Horrekin batera, ikus-entzuzkoak ere ikusi ahal izango dira, beira birziklatzeko prozesuaren gainekoak eta edukiontzi berdera bota ahal diren gainekoak.



Antzuolan abiatu zen kanpaina aurreko egubakoitzean.

IRATI AGIRREAZALDEGI

BEIRA, GEHIEN

Gaikako bilketari dagokionez, beirarenak daturik onenak izan arren, oraindik egiteko asko dagoela uste du Makomunitate-

ak. Debagoienean erabiltzen den beiraren %66 birziklatzen da -2.000 tona urtean-, baina oraindik ere 1.000 tona zabor poltsara botatzen ditugu.

EUSKARA

Paul Bilbao hizkuntza eskubideez arituko da

M.B. > BERGARA

Udalak herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko programa jarri zuen martxan irailean. Horren barruan, herritarrek aukera dute zenbait tokitan jarritako kutxetan euren kexa, iradokizun zein zorion-mezuak agertzeko. Bada, programa horrekin lotuta, egunerako, Euskararen Egunerako, hizkuntza eskubideen gaineko tailerra antolatu du Udalak, Hizkuntza Eskubideen Behatokiarekin batera.

Tailerra gidatuko du Paul Bilbao, Hizkuntza Eskubideen Behatokiako zuzendariak, eta izango da 18:30ean, kultura etxean. Nahi duen edonor joan daiteke eta saio parte-hartzailea izango da.

Martxoaren 10ean itxi zuten eta ordutik hona askotariko lanak egin dituzte San Martingo zubitik gora, Murgiako bidegurutzeraino

Dena den, azken hamar metroak asfaltatu barik utzi dituzte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

San Martin egoitzatik Murgia auzora doan errepidea bihar zabalduko dute, bederatzi hilabetez itxita egon ondoren –martxoaren 10ean itxi zuten–. Aurrerantzean beraz, Murgiako bizilagunek ez

HIRIGINTZA > LANAK

Egoitzatik Murgiara doan bidea bihar zabalduko dute

dute derrigorrean Berezaoko bidea erabili beharko etxera heltzeko, zaharren egoitzatik gora hartu ahalko dute.

HAMAR METRO ASFALTATU BARIK

San Martin zubitik Murgiara doan errepidea osorik eraberritu dute, azken hamar metroak izan ezik. Horiek asfaltatu barik utzi dituzte. "San Martingo etxe libreen pareko errepide zati bat asfaltatu barik utzi dugu. Etxe horien eraikuntza geldidago egun. Hortaz,

hango urbanizazioa egiten dutenean asfaltatuko ditugu azken hamar metroak", esan digu udal zinegotzi Angel Biainek.

SEI METROKO ERREPIDEA

Hainbat lan egin dituzte Murgiara bidean: alde batetik, zubi berria egin dute, zabalagoa eta egonkorragoa; eta errepide hasieran, eskuinetara zeuden etxeak bota egin dituzte. Beste alde batetik, lurpeko azpiegituretako zerbizuen instalazioak egin dituzte,

bidearen profila zati handi batean aldatu egin dute-eta. Azkenik, bideak zituen malda ezberdinak parekatu egin dituzte.

San Martin zubitik zaharren egoitzaraino eskuin aldetik zabaldu dute bidea; eta handik gora, ezkerretik alegia, babes ofizialeko etxeak eta etxe tasatuak egiten diharduten tokitik. Guztira, 12 metroko zabalera du bideak zatirik estuenetan. Hain zuzen ere, aparkalekurik egokitu ez duten tokietan. Autoendako errepidea

sei metrokoa da. San Martin aldetik 1,50 metroko espaloia egin dute; eta beste aldetik, bi metroko espaloia eta 2,50 metroko bidegorria.

TORREAUZOTIK MADALENARA

Bestalde, udal arduradunek esan digute laster zabalduko dutela Torreauzotik Madalenara doan bidea. Dagoeneko argiak eta eserlekuak ipini dituzte. Datozen astetan margolanak egin eta zuhaitzak landatuko dituzte, besteak beste.



EGUNKARIAREN ALDEKO HERRI BATZARRA

'Egunkaria' auziaren kontra daudela esateko argazkia egin zuten

Ehunka oñatiar bildu ziren zapatuan herriko plazan *Egunkaria* auziaren kontra daudela esateko. Gainera, herri batzarrak deialdia aprobetxatu zuen kamisetak eta laguntza-txartelak saltzeko. "*Egunkaria*-koen kontrako epaiketa abenduaren 14an hasiko dute. Bitartean, epaiketako gastuak

ordaintzen laguntzeko dirua batzen jarraituko dugu", esan digute Oñatiko batzarreko kideek.

Gaineratu digute orainoz ez dutela beste ekintzarik esku artean, baina epaiketa hasi aurretik beste ekitaldiren bat antolatzea ez dutela bazterten.

Egunkaria auziaren kontrako taldea orain dela aste batzuk sortu zuten *Berria* egunkaria sortzeko herri batzordean ibilitako herritar batzuek. Ordutik hona, bilerak eta hainbat ekitaldi egin dituzte; besteak beste, Santa Zezilia egunean herriko plazan egindako koplamanaldia.

JENDARTEA > ANTZERKIA

Gabonetan bi emanaldi egingo dituzte Makalenakoek

M.B. > OÑATI

Makalena elkarteak *1542 Oñatiko Hitzarmena* antzezlanaren bi emanaldi egingo dituzte Gabonetan Santan Ana antzokian; hain zuzen ere, abenduaren 26an 19:00etan eta 22:30ean. Emanaldiak doakoak izango dira, baina bihurtik aurrera txartelak jaso

beharko dira kultura etxean. Bi saioetako sarrerak kolore ezberdinetakoak izango dira.

Olaituri kultura elkarteak kideek esan dute sarreran jasotzen duten dirua –sanmigeletan egindako saioan bezala – Oñatiko Hermansoloña GKErendako izango dela.

HEZKUNTZA > JAIA

Euskararen Eguna ospatuko dute herriko ikastetxeetan

M.B. > OÑATI

Eguena Euskararen Eguna da, eta herriko ikastetxeek askotariko ekitaldiak egingo dituzte. Errekalde Herri Eskolako Haur Hezkuntzakoak eskolan geratuko dira eta Lehen Hezkuntzakoak Zuazola Institutu aurrerantzean bilduko dira, 10:00etan.

Bestalde, Elkar Heziko ikasleek euskaraokoa, bertsoak, koplak eta euskararen gaineko hausnarketa egingo dituzte, besteak beste. Azkenik, Txantxiku ikastolan dantzak, eskulanak, herri kirolak, antzerkia eta bertso paper lehiaketa egingo dituzte, besteak beste.

> KIROLA

Neguko kirolen federatu txartelak egingo dituzte

Aloña Mendi elkarteak eski sailekoek neguko kirolen federatu txartelak egingo dituzte. Hain zuzen ere, gaur eta bihar egongo dira Aloñaren egoitzan, 18:30etik 20:00etara arte. Gainera, esan digute eski denboraldiko aste bukaeretakoa eta Pazko asteko irteerak ia lotuta dituztela. Laster banatuko dute informazioa.



Zineklubaren barruan, asteon *Los limoneros* filma ikusteko aukera egongo da.

GOIENKARIA

ARETXABALETAKO > KULTURA

Dantza, olerkiak eta filma daude Arkupen

Leizarra musika eskolakoek emanaldiak egingo dituzte bihar eta etzi arratsaldean, Zaraia aretoan

Zineklubean, Palestinako gatazka jorrotzen duen 'Los limoneros' filma ikusi ahal da asteon

MIRIAN BITERI > ARETXABALETAKO

Aretxabaletako Kultura Sailak Arkupeneko abenduko programazioa ezagutarazi du. Ekimenak bihar, martitzena, hasiko dira. Leizarra musika eskolak dantza emanaldia eskainiko du bihar eta etzi Zaraia aretoan. Biharkoak 16:45etik 19:45era bitartean iraugo du; eta eguaztenekoak, 18:30etik 19:30era. Horretarako sarrera debalde izango da.

KARMELE IGARTUA, ETZI

Eguaztenean, bestalde, Idazle Eskolak egiten dituen *Ilunabar literarioen* barruan, Karmele Igartuak *Denbora Enaren Hegalatan* olerki liburua aurkeztuko du 19:00etan.


Esandako lanean oinarritutako 40 minutuko poesia irakurketa egingo du idazle aretxabaletarrak. Baina oholtza gainean ez da bakarrik egongo; izan ere, Aitor

Ziardegik eta Andoni Aranek jarriko dute eta musika pianorekin eta gitarrarekin. Saio horren sarrera ere debaldekoa izango da.

'LOS LIMONEROS' FILMA

Eguenean, abenduak 4, zinekluba egongo da. Asteon, zinema zaleek Eran Riklisen zuzendutako *Los limoneros* filma ikusi ahal dute 19:30ean, 4 euroren truke. Palestinako gatazkaz jarduten duen film horrek ikusleen saria jaso zuen iazko Berlingo Jaialdian.

Bestalde, bihartik abenduaren 31ra bitartean, bainikeneko gainera erakusketa egongo da honako ordutegian: astelehenetik eguakoitza, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan, goizean.



GOIENKARIA

Murrukixoko egutegia, Enric Caballerena

M.B. > ARETXABALETAKO

Murrukixoko mendizale elkarteak deitutako argazki lehiaketak badu irabazlea: Enric Caballe Pagonabarrenaren *Kantoizulueta* izeneko lana. 2010ko egutegian erabiliko den irudia da hori. Egileak, gainera, 100 euroko saria jasoko du. Aurten, 15 herritarren argazkiak jaso dituzte, eta bakoitzak launa argazki bidali ditu. Herritarren batek egutegia nahi badu, elkartearekin jarri behar da kontaktuan.

ESKORIATZA > EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Euskararen kale erabileraz jardungo dute eguaztenean

Gaurtik eguaztenera bitartean, euskarazko jostailuen gaineko erakusketa dago ludotekan

M.B. > ESKORIATZA

Eguenean, abenduak 4, Euskararen Nazioarteko Eguna izango da eta urtero moduan, Eskoriatzan hainbat ekitaldi antolatu dituzte horren harira. Eguaztenean hasiko dira ekimenak. Euskararen kale erabileraz hausnartuko dute, 19:00etan, kultura etxean. Hizkuntzaren erabileraren gaineko datuak ezagutaraziko dituzte han; tartean, zenbat euskara entzuten den udalerrian, ume eta gazte eskoriatzarrek euskaraz egiten ote duten, zein gaztekeraz euskaraz baino gehiago egiten den. Galdera horiek guztiak argituko dituzte.

EUSKARAREN ALDEKO MEZUAK

Eguenean, egun guztian zehar euskararen gainean norberak egindako marrazkiak, leloak, bertsoak edo poemak zintzilikatzeko aukera izango dute eskoriatzarrek, herriko plazan. Arratsaldean, 15:30ean, Luis Ezeiza Herri Eskolako ikasle-en jaialdia izango da, herriko

plazan; tartean, euskal dantzak ikusi ahal izango dira han.

Ordu erdi geroago, gaztainera erreak gertatuko dituzte plazan batzen diren denondako; eta 16:30ean, neska-mutikoek ginkanak eta jolasak izango dituzte zain. Eguna behar bezala amaitzeko eta umeek indarrak berreskura ditzaten, txokolate jana egongo da 17:30ean.

JOSTAILUEN ERAKUSKETA

Euskararen egunaren harira antolatutako ekimenak ez dira hor amaituko; izan ere, asteon euskarazko jostailuen gaineko erakusketa bisitatu ahal da ludotekan. Gaurtik eguaztenera bitartean egongo da ikusgai, 17:00etatik 20:00etara. Erakusketan hezitzaileak egongo dira, jostailuen harira gurasoek zein umeek dituzten galderei erantzutuko.

Gaztelekuak ere bat egingo du euskararen egunarekin. Abenduaren 5ean, zapatua, graffiti tailerra egingo du herriko plazan, 17:30ean.

> ESKORIATZA

Gaur arte eman daiteke izena abenduaren 12tik 20ra jokatu den banakako frontenis txapelketan

Gaur, astelehena, da Eskoriatzako banakako II. Frontenis Txapelketan izena emateko azken eguna, kiroldegian edo Inkernu tabernan. Parte-hartzaileek 5 euro ordaindu beharko dituzte izena ematerakoan. Norgehiagokak abenduaren 12an, 13an, 19an eta 20an jokatu dira pilotalekuan eta irabazleak txapela, kopa, ardo botila eta Txalaparta tabernan afaria lortuko ditu.

> ARETXABALETAKO

Copreciren handitzearen gainean herritarrek duten iritzia jasoko du Udalak batzorde baten bidez

Gaur, astelehena, osoko bilkura dago Aretxabaletako udaletxean, 18:00etan. Han eztabaidatuko diren gaien artean, Copreciren handitzea dago. Gaur egungo lantegiaren ondoan dagoen aparkalekuan eraikin berria egin nahi du eta horren harira, herritarren partaidetza bultzatuko du Udalak. Horren gaineko batzordea osatzeaz jardungo dute han. Bestalde, EHNE sindikatuak eta EHGAM elkarteak aurkeztutako mozioak ere eztabaidatuko dituzte.

oharrak

ARETXABALETAKO

> Bertsolari txapelketarako autobusa antolatu dute

Aretxabaletako Loramendi elkarteak abenduaren 13an, Barakaldon egongo den Euskal Herriko Bertsolari txapelketarako autobusa jarri du. 55 pertsonendako lekua dago, eta plazak betetakoan zerrenda itxiko da. Interesa dutenek Loramendirekin jarri behar dira kontaktuan.

IBARRA JATETXEA

Eguneko menua
Plater konbinatuak
Errazioak
Hamburgesak
Oilasko erreak, eramateko.
Araba ibilbidea 29
ARETXABALETAKO
943 79 18 03



Herri Eskola aldamenen dago jolaslekua eta estalita aukera gehiago emango ditu kirol zein jolas jardueretarako.

JOSETXO ARANTZABAL

ANTZUOLA > AZPIEGITURAK

Eskolako jolastokia estaltzeko lanak 2010ean egin nahi ditu Udalak

Proiektuaren kostua 800.000 eurokoa da eta Hezkuntza Sailak 450.000 euroekin finantzatuko du

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Eguenean Goiena Telebistako *Goiena magazinea*-n izan zen Pedro Iturbe alkatea eta herriko hainbat azpiegitura izan zituen hizpide.

Eskolako jolastokia estaltzeko asmoak azken urteotan eman du zeresanik eta proiektua idazten eta herriko eragilerekin aztertzen eta adosten dihardutela esan zuen alkatea. "800.000 euro inguruko proiektua da. Hezkuntzarekin lotua dugu 450.000 euroko finantzaketa; Foru Aldundiaren egoera ekonomikoa ona ez dela jakin arren, espero dugu elkarlanaren bitartez, proiektua babestea eta Udalak ere beharbada beste asmo batzuek bazterrerara utzi beharko ditu aterpearen aldeko

apustua egiteko. 2010erako ea aterpea egiterik dugun", esan zuen alkatea.

OSASUN ZENTROA

Eskolatik gertu dago Torresorua eta osasun zentroa hara aldatzeko asmoa luzatzen ari dela esan zuen Iturbek. "Osakidetzarekin hitz egin eta azken hilabeteen aurrerapausoak eman dira, leku aldaketa egiteko gertu daude eta ea hurrengo hilabeteetan gauzaten den. Osasun zentroa dagoen tokian gaztetxea ipiniko dugu".

Errepideez ere jardun zuten, Sagastiko biribilguneaz, hain zuzen ere. Alkatearen esanetan, "Udalak tramite guztiak egin ditu. Diputazioari 2010ean proiektua garatzeko eskatu diegu, baina dirua da arazo eta eurek ere tramiteekin jarraitu arren, tamalez ez daukagu data zehatzik; ea 2011n posible den".

BASERRIETAKO URA

Azkenaldian herrian egin diren obrez jardun zuen alkatea telebistan. Besteak beste, Estatuko Fondotik jasotako diru laguntzeekin egindako Eztalako eta Kalegoiko lanez.

Orain, beste diru partida bat jasoko du Udalak, 231.000 eurokoa. "Oraindik erabakiak hartu gabe daude, baina baserrietara ura bideratzeko proiektu handi bat dugu esku artean eta horri ekiteko erabil genezake; baita Antiguako eta Errekaldeko argiteria instalazioa berritzeko ere, oso modu eskasean dago-eta".

ARAMAIO

Olentzero: haren etxea ezagutzeko irteera

Zuiako Koadrilak antolatuta, gurasoak eta umeak Mungiara joango dira 19an

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Guraso eta umeendako irteerak antolatzen dabil azken hilabeteotan Zuiako Koadrila. Gabonak gainean ditugula eta oraingoan bisita ezin hobea antolatu dute; abenduaren 19an Mungiara joango dira Olentzeroren etxea bisitatzera. Ikus-entzunezko pantailen bitartez eta tailer eta jolasekin, Euskal Herriko ikazkin ezagunenaren bizitza ezagutzeaz gain, euskal mitologiako beste pertsonaia batzuk ere ezagutuko dituzte txikitxoek.

Autobusa 08:30ean irten-go da Aramaioko kiroldegitik eta 14:30ean itzultzea aurreikusten da. 10 urtetik beherako haurrek heldu batekin joan beharko dute. Izene-mate epea abenduaren 4an amaituko da.

LEINTZ GATZAGA

Batzarra du Gurelek Gabonak antolatzeko

Zein ekitaldi egin herrian adostu gura dute gurasoekin batera

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteko batzordekideek bilera deituko dute egunotan, nahiz eta data zehaztu barik egon. Gabonetarako gero eta gutxiago geratzen dela-eta, ekitaldiak adostu gura dituzte. Aldaketa gutxi egongo dira eta iaz legez Gabon aurreko aste bukaeran irudiak jarriko dituzte elizpean. Gabon egunean, osteran, baserri baserri joango dira kantuan Gatzagako neska-mutikoak. Egun horretarako autobusa zelan antolatu ere erabaki beharko dute bileran. Beste urte batzuetan Gabon abestien entseguak egin izan dituzte aurreko egunetan, baina ez dute arrakasta handirik izan eta aurten baliteke halakorik ez antolatzea.

ELGETA > GABONAK

Gabon kanten lehen entseguan taldetxoa

Zapatuan egin zuten Gabon kantak ikasteko lehenengo saioa; hurrengoa barikuan da 19:30ean

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Hogei bat neska-mutiko elkartu ziren Gabon kantak gogoratzeko eta ikasteko zapatuan egindako lehenengo saioan. Umeak bakarrik ez, guraso taldetxoa ere elkartu zen. Lorea Larrañagaren zuzendaritzapean, besteak, beste gogora ekarri zituzten *Olentzero*, *Hator Hator*, *Bizar Zurieta* eta *Gabeko Izar*.

HURRENGO BARIKUAN 19:30EAN

Gabon egunera bitartean hiru zapatutan elkartzea zen asmoa, baina lehenengo entsegu horretan erabaki dute barikutan ere saioa egitea. Kantu berriak gehitu nahi dituzte urteroko errepertoriara eta zapatu goizetan Eskola kirola egiten duten umeek parte hartzeko aukera izango dute.



Zapatu eguerdian musika gelan lehenengo entseguia egiten.

L.Z.

Kirola



> FUTBOLA

Bergarak ez zuen jakin hamar jokalarirekin zegoen Tolosaren atea zulatzen > 24



> SASKIBALOA

MUK indarra emango dion garaipena lortu zuen zapatuan Destuan (67-79) > 26



> ELKARRIZKETA

Mexikon pilota txapelketa bat irabazita itzuli da Aitor Mendizabal antzuolarra > 26

ATLETISMOA > DONOSTIAKO MARATOIA

Asier Urdanpilleta eta Lorea Biain, ibarreko azkarrenak

OÑATIKOAK

Oñatik izan zituen ibarreko ordezkari gehien, eta azkarrenak ere eurak izan ziren

ERREKORRA

Rafa Iglesiasek egindako markak indarra eman dio probari (2:10:44)

XABIER URTZELAI > BERGARA

Salamancako Rafa Iglesiasek gusua hartu dio Donostiari, aurtengo Behobia-Donostiako irabazlea protagonista izan zelako atzo, oraingoan maratoian (2:10:44). Iglesiasek ez zuen kontrariorik izan, bigarren sailkatu Seboka Dibabari 7 minutuko aldea ateratzen zion-eta.

Emakumezketan Maria Jose Pueyo izan zen onena (2:36:28), baina aragoiarrak sufritu egin zuen, eta negarrez iritsi zen helmugara, Europako txapelketara sailkatzeko marka lortu ez zuelako. Hain zuzen ere, Pueyoren erritmora korrika egin zuten Asier Urdanpilletak eta Arkaitz Ruiz de Loizagak adierazi zuten erritmo bizian joan zirela: "Ez dut uste Pueyori erritmoa jartzen ibili zaizkionak fin aritu direnik. Hogeita hamar laguneko taldea joan gara eurekin, eta adierazten zutena baino azkarrago gindoa-zenez, askok eta askok pot egin



ANOETAN Jesus Egino (2976) eta Jesus Diaz (1476) bergararrak, Anoetako estadiora sartzeko metro gutxiren faltan.

OIHANA ELORTZA

dugu", esan zigun proba bertan behera utzi zuen Ruiz de Loizagak: "Pena, 2:34 egitea zen nire asmoa, baina arriskatu egin dut eta ez zait ondo irten. Ez zuen merezi sufritzen jarraitzeak".

Urdanpilletak ere gogotik sufritu zuen, batez ere 35. kilometrotik aurrera eta Oñatikoa leher eginda iritsi zen helmugara. Atzetik, askoz ere aurpegi hobearrekin iritsi ziren Roberto Zurro bergararra (2:40:02) eta Javier Arconada arrasatearra (2:44:40): "Oso pozik amaitu dut proba, nire asmoa 2:50eko markatik jaitea zelako. Eguraldi ederra egin du korrika ibiltzeko, eta egia esan, Bartzelonako ironmana egin izana ondo etorri zait, fisikoki osorik iritsi naizelako helmugara, Behobian gertatu zitzaidan moduan".

Imanol Molinero izan zen laugarrena (02:48:43), hura ere nahiko ondo, baina bosgarren eta seigarren iritsi ziren Iker Sarabia (02:49:37) eta Asier Osinaga (02:49:40) ez zeuden jendea agurtzen ibiltzeko. Eurekin batera iritsi zen Igor Lazkano (02:49:42), segundo gutxiren aldearekin.

AZKARRENA, SORPRESAZ

Emakumezketan Lorea Biain izan zen azkarrena. Oñatikoa pozik zen, eta harrিতuta geratu zen debagoiendar azkarrena izan zela adierazi genionean: "Ez nuen halakorik espero, sorpresa izan da. Egia da ez dudala batere sufritu, nahiz eta azken 10 kilometroak beti izaten diren gogorrak. Bi hilabete eta erdi egin ditut entrenatzen, baina urte osoan egiten dut kirola."

Asier Urdanpilleta > Ibarreko azkarrena


"Burugogorra naizelako iritsi naiz helmugara, asko sufritu eta gero"

X.U. > BERGARA

Asier Urdanpilleta izan zen atzo ibarreko azkarrena, sailkapen orokorrean 41. postuan iritsi zen helmugara, 02.37.22 segundoko denbora eginda.

Sufrimendu aurpegiarekin gurutzatu duzu helmugako marra.

Azken kilometroak soberan izan ditut. 2.30 minutuko erreferentziari jarraituz hasi dut lasterketa, baina



GOIENKARIA

berehala konturatu naiz hori ez zela nire taldea. Ondoren Maria Jose Pueyoren taldean sartu naiz, baina horiek ere azkar zihozten.

Orduan izan duzu beherakada.

Bai, 35. kilometro inguruan sekulako beherakada izan dut, eta burugogorra naizelako eta esperientzia dudalako iritsi naiz helmugara.

DATUA

97

DEBAGOIENDAR HELMUGAN

Ibarreko 105 lagunek eman zuten izena maratoian esku hartzeko -denak ez ziren irteera puntuan egongo-, baina 97 debagoiendarrek lortu zuten 42 kilometro luze dituen kirol erronka burutzea.



> **MIKEL ALKORTA, URA HARTU BERRI**

Oraindik itzuli bat geratzen bazitzaion ere, Arrasatekoa (151) pauso onean zihon Mirakontxa pasealekuan, metro batzuk lehenago zegoen edatekoen

postuan ura hartuta. Hortik Zubieta kalera, gero Anoetarako bidea hartzeko. Alkorta ez da iraupen luzeko erresistentzia probetan larrituko.



> **ALONSO AHIZPAK, IRRIBARREZ**

Mari Fran Alonsok (1021) eta Raquel Alonsok (1057) ez zuten proba osoan zehar irribarrea galdu: "Uste baino 15 minutu gehiago egin genituen, baina ez ginen obsesionatu. Oso ondo iritsi ginen helmugara".



> **IKER LARREA EZIN UMEAREKIN ANOETARA SARTU**

Iker Larreak (188) bi hilabeteko semearekin amaitu nahi izan zuen maratoia: "Baina epaileak ez dit Anoetara umearekin sartzen utzi. Egia esan, emazteak

ere esan dit ez nauela aurpegi batere onarekin ikusi", adierazi zigun Antzuolakoak barrez. Domekakoa Larrearen 21. maratoia izan zen, denak 3 ordu behetik.



> **ARTZ LOSADA ETA JOSE ANTONIO BIAIN** Oñatiko korrikalariak

Kontxan harrapatu genituen. Losadak ez zuen estreinaldi batere txarra izan haren lehenengo maratoian, nahiz eta proba amaitutakoan onartu zigun azken kilometroetan giharretako arazoekin ibili zela.




Asier Osinaga oñatiarra Anoetan, ibarreko lehena.

XABIER URTZELAI



Alberto Urriolabeitia bergararra (327), maratoiko azken itzulia hasi berri, oraindik irribarrez.



Imanol Molinero, Anoetako lehen itzulian, fresko-fresko.

X.U.



Aitzol Guridi oñatiarra, atzean talde handia duela.

O.E.



XABIER URTZELAI



Javier Arconada arrasatearra.

X.U.



Asier Osinaga oñatiarra.

X.U.

AIPATZEKOAK

Lasterkari denek esan zuten eguraldia aldeko izan zutela

Eguaztenean esan zuen Arrasate Irratian Joxe Landak atzo goizean aterari eutsiko zuela, eta baita asmatu ere. Tantaka batzuk bota zituen, baina ez gehiago. Lasterkari bat egin zuten esaterakoan korrika egiteko sekulako giroa egin zuela. Hori bai, bakarrik joanez gero, Kontxa aldean haize larregi.

Donostiako maratoian ere aurpegi ezagunak

Korrika egiteko zapatilak jantzita, maratoiarekin ausartu ziren, besteak beste, ETBko aurkezle Andoni Aizpuru eta Xabier Euskitze, eta Abraham Olano txirrindulari ohi eta Mikel Astarloza txirrindularia. Anne Igarteburu ere zirkuituan ibili zen, baina bizikletarekin.

Maratoiak ez du Behobiarekin zerikusirik

Behobia-Donostia lasterketan aurrean ibiltzen diren ordezkariak leher eginda iristen dira helmugara, baina ez du maratoiarekin zerikusirik. Atzo, asko izan ziren helmuga gurutzatu eta euren burua lurrera bota zutenak, edo erabat errenka iritsi zirenak. Gaur maratoirik gehiago egingo ez dutela esango dute, baina bihar...

Errekorrak Timothy Cherigaten esku jarraitzen du

Alberto Iglesiasek oso marka ona egin zuen atzo, eta haizeagatik ez balitz, 2:09-ko marka egitetik gertu egingo zela adierazi zuten askok -Atzoko marka eta gero Europako txapelketan izango da seguruenik. Baina, oraingoz Timothy Cherigat izan da gauza bi ordu eta hamar minututik jaisteko. 2002an izan zen hori (2:09:34), eta errekorra berea du oraindik.

Atleta afrikarrak bigarren mailan geratu ziren

Horrelako lasterketetan atleta afrikarren esku egoten da gainontzekoak estutzea, baina atzo bistan geratu zen maratoira joandako afrikarrak bigarren mailakoak zirela. Emakumezkotan lasterketan galduta ibili ziren, Pueyoren, Ana Casaresen eta Amanda Sanchezen atzetik. Eta gizonezkotan, irabazleak 28 kilometro egin zituen bakarrik, hor ausart jokatu zuen Rafael Iglesiasek.

Ibarrekoen sailkapena maratoian

| POSTUA | DORTSALA | IZEN-ABIZENA | HERRIA | DENBORA |
|--------|----------|----------------------------------|--------------|----------|
| 41 | 986 | URDAMPILLETA LIZARDI, ASIER | OÑATI | 02:37:22 |
| 51 | 490 | ZURRO USABIAGA, ROBERTO | BERGARA | 02:40:03 |
| 85 | 2890 | ARCONADA MARTINEZ, JAVIER | ARRASATE | 02:44:40 |
| 129 | 3032 | MOLINERO MENDIGUREN, IMANOL | OÑATI | 02:48:43 |
| 152 | 1885 | SARABIA UGARTE, IKER | ARRASATE | 02:49:37 |
| 139 | 1884 | OSINAGA BEITIA, ASIER | OÑATI | 02:49:40 |
| 140 | 288 | LAZKANO ARANA, IGOR | ESKORIATZA | 02:49:42 |
| 169 | 2249 | MUXIKA GOIKOETXEA, IÑAKI | BERGARA | 02:51:10 |
| 181 | 3017 | PAGALDAI URRESTI, IÑIGO | BERGARA | 02:51:35 |
| 189 | 2822 | ELKORO FERNANDEZ, XABIER | BERGARA | 02:52:03 |
| 223 | 2292 | AGIRREBEÑA OTEO, IBAN | BERGARA | 02:54:19 |
| 265 | 1650 | GARTZIA OIARTZABAL, PATXI | ARRASATE | 02:55:15 |
| 251 | 2945 | MORENO CASTELO, EDU | BERGARA | 02:55:19 |
| 300 | 2814 | ERLE ANDUAGA, BITTOR | OÑATI | 02:56:37 |
| 301 | 30 | JAUSORO MURGIONDO, IBON | OÑATI | 02:56:37 |
| 314 | 1486 | RAMOS ROMEO, RUBEN | ARRASATE | 02:57:01 |
| 321 | 2566 | IBARRA MOÑUX, JABI | BERGARA | 02:57:12 |
| 323 | 1292 | MARTINEZ REMEDIOS, JUANMA | ARRASATE | 02:57:13 |
| 335 | 188 | LARREA SORALUZE, IKER | ANTZUOLA | 02:57:44 |
| 340 | 1907 | USATORRE ARANZABAL, LUIS | ARRASATE | 02:57:57 |
| 462 | 957 | NEGREIRA COBAS, JOSE ANTONIO | OÑATI | 03:00:07 |
| 497 | 2947 | MORENO CASTELO, JABI | BERGARA | 03:02:33 |
| 552 | 1365 | REGUEIRO ALONSO, IÑIGO | OÑATI | 03:05:15 |
| 645 | 2548 | ARANES USANDIZAGA, MIGUEL ANGEL | BERGARA | 03:08:00 |
| 689 | 2476 | GURIDI ZUBIA, AITZOL | OÑATI | 03:09:39 |
| 722 | 2542 | KORTAZAR ALKOTZ, AITOR | ARAMAIO | 03:10:05 |
| 707 | 1174 | ROMERO CALDERON, RAFAEL | ARRASATE | 03:10:11 |
| 757 | 519 | ERAÑA ARROIABE, AITOR | BERGARA | 03:11:08 |
| 743 | 1228 | DURAN GARCIA, ANASTASIO | ARETXABALETA | 03:11:12 |
| 777 | 2587 | GURIDI ALUSTIZA, MARTIN | BERGARA | 03:11:59 |
| 800 | 2643 | MENDIA BILBAO, IBAI | ANTZUOLA | 03:12:15 |
| 794 | 2423 | BARRENA ARREGUI, JOSE LUIS | OÑATI | 03:12:25 |
| 805 | 702 | AZKORBEBEITIA AMILBURU, MIKEL | OÑATI | 03:12:34 |
| 814 | 327 | URRIOLABEITIA MILIKUA, ALBERTO | BERGARA | 03:12:50 |
| 845 | 2833 | GURIDI DORRONSORO, IMANOL | OÑATI | 03:13:36 |
| 858 | 2683 | GOROSTIAGA URRUTIA, ASIER | ARRASATE | 03:14:46 |
| 907 | 2530 | MENDIARAZ ATXA, RAUL | ARRASATE | 03:14:52 |
| 889 | 392 | LETAMENDI MARTIN, JOSEBA | OÑATI | 03:15:06 |
| 897 | 953 | MENDIZABAL GORROTXATEGI, ARKAITZ | BERGARA | 03:15:38 |
| 939 | 2821 | ELKORO FERNANDEZ, AITOR | BERGARA | 03:16:22 |
| 935 | 513 | AGUIRRE MURGUZUR, JOSE ANGEL | OÑATI | 03:16:34 |
| 1018 | 2502 | URTAZA AGIRREZABAL, ANDONI | OÑATI | 03:18:23 |
| 1022 | 2570 | GOROSABEL AZURMENDI, JOSE MANUEL | ARRASATE | 03:19:37 |
| 1062 | 216 | BENGOA LOPEZ, AITOR | ARETXABALETA | 03:20:51 |
| 1059 | 956 | BIAIN BIKUÑA, JOSE ANTONIO | OÑATI | 03:20:59 |
| 1113 | 176 | KORTABARRIA ARANDO, ION | ANTZUOLA | 03:21:47 |
| 1136 | 1172 | GALAN GOMEZ, AMALIO | ARRASATE | 03:23:48 |
| 1225 | 1281 | LARRAÑAGA IRASUEGUI, GORKA | BERGARA | 03:24:48 |
| 1242 | 2104 | AMUTXASTEGI GONZALEZ, DAVID | ARRASATE | 03:24:58 |
| 1257 | 326 | RODRIGUEZ CUESTA, FER | BERGARA | 03:25:30 |
| 1295 | 175 | ZENITAGOIA PILADAIN, XABIER | BERGARA | 03:25:38 |
| 1279 | 2976 | EGINO ZABALETA, JESUS | BERGARA | 03:26:10 |
| 1280 | 1476 | DIAZ ROMAN, JESUS | BERGARA | 03:26:20 |
| 1319 | 2215 | LARRAL BARRENA, AXIER | OÑATI | 03:26:33 |
| 1300 | 1196 | LAZKANO BIKENDI, XABIER | BERGARA | 03:26:37 |
| 1348 | 1437 | ARROYO VIGO, JOAQUI | OÑATI | 03:27:26 |
| 1360 | 2248 | ANDUAGA ELIAS, JOSE MARI | BERGARA | 03:27:32 |
| 1369 | 2416 | IÑURRITEGI ALZELAI, XABIER | OÑATI | 03:27:35 |
| 1405 | 2185 | OSA ISASTI, JABI | OÑATI | 03:28:17 |
| 1399 | 1481 | LOSADA PEREZ, ARATZ | OÑATI | 03:28:23 |
| 1481 | 2610 | TERRAZAS APELLANIZ, FELIX | BERGARA | 03:30:47 |
| 1509 | 2483 | LARREA ARANA, MANUEL JOSE | BERGARA | 03:32:34 |
| 1546 | 2684 | ALBERDI ETXEBARRIETA, IÑIGO | BERGARA | 03:32:50 |
| 1550 | 553 | JUARROS LASKURAIN, ARITZ | BERGARA | 03:32:56 |
| 35 | 1129 | ITURBE MURGIONDO, AGOTZ | OÑATI | 03:33:00 |
| 1568 | 2673 | BRUNA SERRANO, ANTXON | OÑATI | 03:33:56 |
| 1605 | 2501 | URTAZA AGIRREZABAL, AITOR | OÑATI | 03:33:58 |
| 1661 | 512 | ARENAZA PAGALDAY, NESTOR | ESKORIATZA | 03:36:47 |
| 42 | 1098 | BIAIN GALDOS, LOREA | OÑATI | 03:36:55 |
| 1746 | 2457 | ARREGI SAGASTA, ARKAITZ | ARRASATE | 03:39:16 |
| 1755 | 2295 | CHINCHURRETA ALTUBE, IÑIGO | OÑATI | 03:39:48 |
| 1742 | 1334 | LASA ERLE, MIKEL | ARRASATE | 03:40:15 |
| 1752 | 366 | URTZELAI SEGURA, JOSU | ARRASATE | 03:40:28 |
| 1775 | 1822 | AIJASTUI EGAÑA, RUFINO | OÑATI | 03:40:44 |
| 1783 | 151 | ALKORTA OLALDE, MIKEL | ARRASATE | 03:41:16 |
| 1789 | 2712 | SERRANO FLORES, JOSE CARLOS | OÑATI | 03:41:47 |
| 1867 | 1791 | AZKARATE LETURIA, SABINO | BERGARA | 03:45:41 |
| 1883 | 2181 | URRUTIA GARAITONANDIA, IÑAKI | ARRASATE | 03:46:28 |
| 52 | 1009 | BLAZQUEZ DIAZ, TRINI | OÑATI | 03:47:02 |
| 56 | 1021 | ALONSO CASADO, MARIFRAN | ARRASATE | 03:48:14 |
| 57 | 1057 | ALONSO CASADO, RAQUEL | ARRASATE | 03:48:15 |
| 1964 | 174 | ERRASTI JAUREGI, IOSU | ANTZUOLA | 03:50:25 |
| 1982 | 1233 | OREGI LABAIEEN, AITOR | BERGARA | 03:51:24 |
| 1983 | 2390 | ARAMBURU MUXIKA, BASILIO | BERGARA | 03:51:25 |
| 2018 | 221 | ANDUAGA CHACON, IÑIGO | OÑATI | 03:53:39 |
| 2029 | 1931 | GARITANO ARREGI, GORKA | ANTZUOLA | 03:54:14 |
| 2026 | 1705 | CURADO RODRIGUEZ, MANU | BERGARA | 03:54:30 |
| 2028 | 1704 | CURADO RODRIGUEZ, AITOR | BERGARA | 03:54:33 |
| 2043 | 1651 | JAUSORO ARREGI, ANDER | OÑATI | 03:54:49 |
| 2044 | 1836 | AGINAGALDE ELEXPURU, GERMAN | OÑATI | 03:54:49 |
| 2045 | 1649 | LUCAS ETXARRI, IMANOL | OÑATI | 03:54:49 |
| 67 | 1031 | AGINAGALDE ASTIGARRAGA, MIREN | OÑATI | 03:54:50 |
| 2074 | 248 | ARRESE MONDRAGON, ENEKO | ARRASATE | 03:56:53 |
| 2150 | 2331 | ARANGUREN EZKURRA, ASIER | ANTZUOLA | 04:02:41 |
| 2202 | 2261 | VERGUIZAS NIETO, ANTONIO | BERGARA | 04:08:42 |
| 2204 | 1541 | URIBESALGO IÑURRATEGUI, FERNANDO | ARETXABALETA | 04:09:10 |
| 2231 | 394 | OLAÑETA ELEXPURU, IÑIGO | BERGARA | 04:13:05 |

OHOREZKO MAILA > 12. JARDUNALDIA

Bergarak ez zuen jakin hamar jokalariren kontra jokatzeko

35. minutuan bidali zuen epaileak Tolosako San Sebastian kalera; ordurako kanpotarrak 0-1 zeuden aurretik

BERGARA

0-2

TOLOSA

Bergara > Belategi, Elorriaga (Beñat, 76.min) Arazkonaga, Nafarrate, Agirrezabal (Oregi, 86.min), Iltzarbe, Agirre (Cabanillas, 68.min), Loiola, Alzola, Iñaki (Otero, 67.min), Ibañez.

Tolosa > Inazio, Antxon (Colombo, 76.min), Lantzeta, Imanol, Telleria, Gaizka, Arrieta, Zubelzu, Uribe (Artega, 70. min), Balerdi (Etxebarria, 72.min), Valor (Diez, 78.min)

Epailea > Alberto Izquierdo. Tolosako Gaizka San Sebastian kaleratu zuen 35. minutuan, irain egitearren.



Alzola, bigarren zatian, hegaletik jokaldia egin nahian, Tolosako kontrarioa gainean duela; atzean, taldekideak.

J.A.

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bergarak ez zuen jakin zapatuan Agorrosingo berdegunean zuen abantaila kudeatzen, eta bigarren zati osoa jokalaria bat gehiagorekin egonda ere, atera botatzen ez duen taldeak nekez irabaziko du partidurik. Mahoneroek 76 minutu behar izan zituzten atera jaurtiketa bat egiteko, hiru zutoinen artean

asmatzeko. Markel Iltzarbereren botetatik etorri zen ostikoa, eta orduan jakin ahal izan genuen Tolosako atezain Inazio Santamariak ze erreflexu zituen -ordurako bistan zegoen ukabilez ondo moldatzen zela, Tolosako atezainak baloi mordoia urrundu zituen eta horrela.

HASIERA MAKALA

Partidua hasi eta berehala Tolosa Bergara baino hobeto kokatu

zen zelaian. Manu Diazen mutilei asko kostatzen zitzaizen airez zetozen baloietara iristea, eta ez Tolosakoak gorpuzkeraz handiagoak zirelako. Bergara, baina, hasi zen poliki-poliki karburatzen, baina orduan eman zuen Tolosak lehenengo kolpea. Atzaldetik baloia jokatzeko ateratzeko asmoarekin Tolosako Ander Balerdik (10 zenbakia) baloia lapurtu zuen, eta azkar ireki zuen eskuinaldera, Aritz Arrieta (7

zenbakia) azkar desmarkatu zen lekura. Arrietak ez zuen birritan pentsatu, eta eskuin hankarekin botata, baloia sare artera joan zen (0-1). Hain zuzen ere, bi jokalaria horiek izan ziren Tolosako taldeetik arrisku jokaldi gehien sortu zituztenak. Batez ere Balerdi ibili zen ondo, bigarren zatian inozo-inozo txartel hori bat jaso zuen arte.

Gola jasota, Bergarak jarraitu zuen ahaleginean, baina ideia

garbirik gabe. Area ertzetik ateratako faltetan edota korerretan egon zen Bergara gola egiteko gertuen, baina oso gutxitan lortu zuten garbi errematatzea, eta orduan ere kanpora botatzeko.

35. minutuan, zelaierdiko falta baten ondoren, Tolosako Gaizka San Sebastianek zerbait esan zion epaileari, antza batere gusatu ez zitzaiola, Izquierdo jaunak birritan pentsatu gabe aldagelara bidali zuen eta Tolosako euskarria.

Aukera ona zen lehenengo zatia amaitu aurretik markagailuan parean jartzeko, baina Tolosak izan zituen gol aukera garbienak: Lehena (39.min) zelaierdian Bergarak baloia galdu eta Balerdiren jaurtiketa kanpora joan zenean; bigarrena (41. min) area txikian Bergarak atezainak bi jaurtiketa jarraian lurretik urrundu behar izan zituenean; eta hirugarrena (46.min) Tolosaren pase sakon bat mozteko Belategi areatik dezente irten zenean. Alderatzeko Tolosako jokalaria batek jaso zuen, eta zelaierditik gertu, zuzen jaurtita, Bergarak atezainak geldiketa ona egin zuen, baloia barrura zihoalako. Hor amaitu zen lehen zatia.

HORMA BATEN KONTRA

Bigarren zatiko hasierako minutuetan Tolosak ausart jokatu zuen, nahiz eta hamarrek ere egon ez zuelako erasotzea baztertu. Normala den moduan, baina, Bergarak minutuak aurrera egin ahala metroak hartu zituen. Iltzarbe, Alzola, Martin, eta Iñaki hustu egin ziren aurrera iritsi nahian, baita ordezko sartu zirenak ere. Korner batean (85.min), Andoni Nafarratek ondo errematatatu zuen baloia, baina kanpora. Orduan, Bergarak erasoan lerroak aurreratatu zituela ondo aprobetxatu zuen Tolosak, 0-2koa egi-

OHOREZKO MAILA

Mondrak ez zuen aukerarik izan

EUSKALDUNA

3-1

MONDRA

TXOMIN MADINA. > ARRASATE

Partiduaren lehenengo minutuan sartu zuen Euskaldunak lehen gola; ondorioz uneoro aldapan gora izan zuen Mondrak neurketa.

Andoaindarren bigarrena bigarren zatiko hasieran izan zen, eta ondoren Mondrak Jon Muruaren golak itxaropenerako bidea ireki arren, amaieran egindako hirugarren golarekin hiru puntuak Andoainen geratu ziren.

OHOREZKO MAILA

Kontrola etxekoen esku egon zen uneoro

ALOÑA MENDI

3-1

HONDARRIBIA

T.M.. > OÑATI

Pasa den astean 2-0 galdutuan, garaipen gogoz zelairatu zen Aloña Mendi atzo Azkoagainera, eta maitza ikusita, ondo aseta geratu ziren.

Roberto Idigoresek jarri zituen aurretik oñatiarrak, Iñigo Arregik sendotu zuen garaipenerako bidea eta Idigoras izan zen hiru puntuak ziurtatu zituen. Luzapeneko minutuetan egin zuen Hondarribiak bere gol bakarra.

EMAKUMEEN LIGA

Puntu banaketa partidu parekatuan

ALOÑA MENDI

1-1

ARIZMENDI

T.M.. > OÑATI

Joaneko partidua ez bezala (orduan Aloña 7-0 galdutuan), parekatua izan zen oso zapatuan jokatu zen debagoiendarren arteko derbya.

Bigarren zatira arte, hutsean egon zen markagailua. Oñatiarrak izan ziren gola egiten lehenak, baina partidua bukatzeko 15 minutu inguru falta zirenean, Arizmendik berdinketaren gola egitea lortu zuen.



JOSETXO ARANTZABAL

Penaltia huts eginda ere, UDA 2-1 garaile

Indartsu zetorren Elgoibar Aratzabaletera, baina ez zion askorako balio izan. Lehen minutuetan Haritz Igartuak egindako golak aurretik jarri zuen UDA. Bigarren zatian gazi-gozoa izan zen: etxekoek penalti bat huts egin zuten, baina gero Kermanek baloia sareratzea lortu zuen. Azken minutuetan kanpokoek gola sartu arren, garaipena etxean geratu zen.

SASKIBALOIA > LEHENENGO MAILA

Muko mutilek partidu borobila egin zuten La Salleren kontra

Jokalari arrasatearrek partiduko bigarren laurdenean erreakzionatu egin zuten eta norgehiagoka 12 puntuko aldearekin irabaztea lortu zuten

LA SALLE
67-79
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

MIRIAN BITERI > BERGARA
Javi Zurbanoren mutilek partidu borobila jokatu zuten zapa-tuan, Bilbon. Arrasatearrek ATE

Asesores La Salle taldeari 67-79 irabazi zioten. Norgehiagoka nahiko desorientatuta hasi bazuten ere, Arantzabalen bi hiruko- ei esker partidua berdintzea lortu zuten. Jarraian, La Sallek 10-3 partziala egin zuen, zazpi puntuko aldea lortuz; azkenean, lehenengo laurdena 23-16 amaitu zuten.

Bigarren laurdena erabat ezberdina izan zen. Arrasatearrek lehenengo lau minututan 0-10 partziala lortu zuten, Isasi eta Anasagastiri esker. Atsedendira 43-46 iritsi ziren, Javi Zurbanoren mutilen alde.

2-11 PARTZIALA

Hirugarren laurdeneko lehenengo 5 minututan egindako 2-11 partzialak konfiantza eman zien arrasatearrei. Azkenean, 10 puntuko aldearekin amaitu zuten zati hori (52-62).

Azken laurdena, berriz, berdinduagoa izan zen; alde bietako jokalariek saskiratzeak lortu zituzten. 15-17 partzialak garbi azaleratzen du kantxan egondako lehia. Azkenik, esan bezala, 12 puntuko aldearekin pozik itzuli ziren arrasatearrek etxera.



Bilbon jokatu zuten partidua arrasatearrek.

GOIENKARIA



GOIENKARIA

Shotokanekoek lan bikaina egin zuten

Bergarako Shotokan taldekoek erakustaldi bikaina egin zuten Astigarragako Euskadiko txapelketan. Kumiten, kadete mailan, Haizea Iñarra bigarren geratu zen eta Jone Agirrezabal laugarren. Gizonezkoetan, maila berean, Eneko Kruz bigarrena izan zen eta Iker Moreno hirugarrena. 21 urtetik beherakoetan, Kepa Odriozola hirugarren geratu zen.

> PILOTA

Zapatuko norgehiagoka galdu eta DV txapelketatik kanpo geratu da Ibai Bolinaga arrasatearra

Ibai Bolinaga arrasatearra ezin izan du DV txapelketan aurrera egin. Zapatuan Tolosako Beotibar pilotalekuan final laurdenak jokatu zituzten eta Urbietta-Bolinaga bikoteak 10-22 galdu zuen Mendinueta-Aretxabaletaren aurka.

Bikote irabazleak oso ondo jokatu zuen; hutsegite gutxi batzuk baino ez zituen egin. Partidu osoan aurretik joan ziren Mendi-nueta eta Aretxabaleta. Lehenengo bi tantoen ondotik, Urbietta-Bolinagak norgehiagoka berdintzea lortu zuten baina, hortik aurrera, ezer gutxi egin ahal izan zuten.

Futbola

3. MAILA

| Sailkapena | Punt. | Jokat. |
|--------------------|-------|--------|
| 1. Amorebieta | 33 | 16 |
| 2. Real Sociedad B | 32 | 16 |
| 3. Beasain | 27 | 16 |
| 4. Zamudio | 27 | 16 |
| 5. Amurrio | 26 | 16 |
| 6. Durango | 24 | 16 |
| 7. Aretxabaleta | 24 | 16 |
| 8. Basconia | 24 | 16 |
| 9. Elgoibar | 23 | 16 |
| 10. Zalla | 23 | 16 |
| 11. Gernika | 22 | 16 |
| 12. Arenas Getxo | 21 | 16 |
| 13. Portugalete | 21 | 16 |
| 14. Santurtzi | 19 | 16 |
| 15. Laudio | 18 | 16 |
| 16. Leioa | 18 | 16 |
| 17. Eibar B | 17 | 16 |
| 18. Lagun Onak | 15 | 16 |
| 19. Retuerto Sport | 14 | 16 |
| 20. Salvatierra | 6 | 16 |

Emaizak

| | |
|---------------------------|-----|
| Real Sociedad B - Beasain | 0-0 |
| Eibar - Gernika | 1-0 |
| Arenas Getxo - Zalla | 0-0 |
| Santurtzi - Laudio | 1-1 |
| Amorebieta - Durango | 1-0 |
| Retuerto - Basconia | 0-0 |
| Leioa - Zamudio | 1-4 |
| Aretxabaleta - Elgoibar | 2-1 |
| Salvatierra - Portugalete | 0-2 |
| Amurrio - Lagun Onak | 3-2 |

Hurrengoak

Portugalete - Aretxabaleta

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

| Sailkapena | Punt. | Jokat. |
|-----------------------|-------|--------|
| 1. Ondarroako Aurrera | 30 | 12 |
| 2. Pasajes | 28 | 12 |
| 3. Zarautz | 22 | 12 |
| 4. Ordizia | 20 | 12 |
| 5. Idiazabal | 19 | 12 |
| 6. Oiartzun | 19 | 12 |
| 7. Trintxerpe | 18 | 12 |
| 8. Berio | 18 | 12 |
| 9. Tolosa | 18 | 12 |
| 10. Bergara | 17 | 12 |
| 11. Hondarribia | 15 | 12 |
| 12. Aloña Mendi | 14 | 12 |
| 13. Euskalduna | 13 | 12 |
| 14. Hernani | 12 | 12 |
| 15. Mondra | 12 | 12 |
| 16. EHU Vasconia | 10 | 12 |
| 17. Real Union | 9 | 12 |
| 18. Beti Gazte | 8 | 12 |

Emaizak

| | |
|---------------------------|-----|
| Bergara - Tolosa | 0-2 |
| Aloña Mendi - Hondarribia | 3-1 |
| Berio - Pasajes | 1-2 |
| Ondarroa - Real Union | 2-1 |
| Euskalduna - Mondra | 3-1 |
| Trintxerpe - Oiartzun | 1-1 |
| E.H.U. Vasconia - Hernani | 1-0 |
| Idiazabal - Ordizia | 0-0 |
| Zarautz - Beti Gazte | 3-1 |

Hurrengoak

| | |
|-----------------------|--|
| Hondarribia - Bergara | |
| Pasajes - Aloña Mendi | |
| Mondra - Ondarroa | |

BESTE KATEGORIAK

| | |
|-------------------------------|-----|
| GAZTEEN LIGA NAZIONALA | |
| Ariznabarra - Aretxabaleta | 2-1 |

| | |
|----------------------------|-----|
| GAZTEEN EUSKAL LIGA | |
| Abetxuko - Bergara | 2-1 |

| | |
|-------------------------------|-----|
| ERREGIONAL PREFERENTEA | |
| Antzuola - Aretxabaleta | 0-1 |

| | |
|--------------------------|-----|
| LEHEN ERREGIONALA | |
| Bergara B - Gazteak | 3-1 |
| Mondra B - UDA Arizmendi | 2-2 |

| | |
|-------------------------------|-----|
| GAZTEEN OHOREZKO MAILA | |
| Union Txiki - Mondra | 4-2 |
| Hondarribia - Aloña Mendi | 2-0 |

| | |
|---------------------------------|---------------|
| GAZTEEN LEHEN MAILA | |
| Aretxabaleta B Arizmendi - Urki | 2-0 |
| Amaika Bat - Bergara B | Bertan behera |

| | |
|--------------------------|-----|
| OHOREZKO KADETEAK | |
| Ordizia - Bergara | 1-1 |
| Aloña Mendi - Urola | 5-2 |

| | |
|--------------------------|-----|
| KADETEEN 1. MAILA | |
| Aretxabaleta - Arizmendi | 9-0 |
| Bergara - Aloña Mendi B | 0-3 |
| Arrasate - Eibartarrak | 7-0 |

| | |
|--------------------------------------|-----|
| INFANTILAK, TXAPELDUNEN FASEA | |
| Arrasate - Hernani | 3-1 |
| Aretxabaleta Arizmendi - Touring | 5-1 |

| | |
|--------------------------|----------|
| EMAKUMEZKOEN LIGA | |
| Aloña Mendi - Arizmendi | 1-1 |
| Bergara - Amaika Bat | 3-0 |
| Mondra | Atsedena |

saskibaloia

MAILAZ MAILA

| | |
|--------------------------------|-------|
| LEHENENGO MAILA MUTILAK | |
| La Salle - MU | 67-79 |

| | |
|-----------------------|-------|
| SENIOR MUTILAK | |
| MU - Soraluze BKE B- | 50-36 |
| Aloña Mendi - Ruibal | 92-61 |

| | |
|----------------------|-------|
| SENIOR NESKAK | |
| Bareak - Eskoriatza | 40-62 |

| | |
|------------------------------|-------|
| GAZTE MUTILAK | |
| Gros Xake - MU A | 61-73 |
| Aloña Mendi - Erroibide | 63-77 |
| Soraluze BKE - Internacional | 31-84 |

| | |
|---------------------------------|-------|
| KADETE MUTILAK | |
| Aloña Mendi - Bide Bide Take | 63-59 |
| Soraluze BKE - Epi Kristaldegia | 53-55 |

| | |
|----------------------------|-------|
| INFANTILAK MUTILAK | |
| Zast Mitxelena - Ointxe | 50-38 |
| Zarautz - Soraluze BKE | 30-68 |
| Aloña Mendi - Zast Lizardi | 29-39 |
| Servimasa BKE - LEK | 47-52 |

| | |
|---------------------------|-------|
| INFANTILAK NESKAK | |
| Andraitz A - Soraluze BKE | 34-10 |

eskubaloia

MAILAZ MAILA

| | |
|--------------------------------------|-------|
| GIPUZKOAKO LEHEN TERRITORIALA | |
| Soraluze BKE - Egia | 31-31 |
| Izarraitz Aloña Mendi - Alcorta | 30-41 |

| | |
|---|-------|
| GIPUZKOAKO BIGARREN TERRITORIALA | |
| Iñautzi - Arrasate | 19-25 |

| | |
|---------------------------------|-------|
| GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK | |
| Aloña Mendi - Rotula | 36-44 |

errugbia

MAILAZ MAILA

| | |
|---------------------------|-------|
| SENIOR GIZONEZKOAK | |
| Arrasate - Gernika | 35-17 |

| | |
|----------------------|------|
| SENIOR NESKAK | |
| Arrasate - Durango | 5-10 |

| | |
|------------------------|-------|
| GAZTEAK MUTILAK | |
| Durango - Arrasate | 26-05 |

Harmailatik

Debagoieneko kirola GOITBn

Astelehenero 22:15ean.

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoak!



Aitor Mendizabal > Pilotaria

"Goian onenek egiten dute debuta, eta zaila izan arren, ni ahaleginduko naiz"

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Mexikotik etorri berria da Aitor Mendizabal Antzuolako pilotari gaztea. San Martin de las Piramides herrian Munduko Pilota Batzarrak antolatutako txapelketa irabazi du Ortuellako Diez bikotekide zuela. Han bizitako esperientziak berba egin digu; eta baita orain hasi berri duen DV txapelketaz ere.

Mexikoko bi anaiak diruz lagundutako txapelketa da irabazi berri duzuna.

Munduko Pilota Batzarrak antolatzen duen txapelketa da, eta horren barne dago Euskal Herriko Pilota Federazioa. Alba anaiek ematen dute dirua txapelketa antolatzeko; izan ere, frontoi bat dute anaiek han, eta haien asmoa da euren semeek mundu mailan jokatzeko pilotan.

Gustura zaude han egindako lanarekin?

Bai, oso gustura itzuli gara. Horrelako aukerak aprobetxatu egin behar dira. Gainera, pilotan irabazi egin dugu eta, azken finean, horretara joan garenez, gustura geratu gara.

Txapelketa bi modalitatetan jokatzeko da: banaka eta bikoteka. Banaka sei jokalaririk ibili ziren: Euskal Herriko hiru, bi mexikar eta AEBetako bat. Bikoteka, ostera, bost bikote ibili ginen: hiru bikote mexikar, Venezuelako bat eta gu geu.

Urduri hasi zineten, baina txapelketa samur irabazi duzuela esan daiteke?

Egia esan, nahiko erraz irabazi ditugu partidua. Hasieran urduri jarri ginen, baina behin erritmoa hartuta samur irabazi dugu txapelketa.

Denok finen aurka jokatu ondoren finalera lehenengo bi bikoteak pasa ginen. 22-6 irabazi genuen finala Mansalva eta Albaren aurka.

Mexikarren jokatzeko modua eta hemengoa ezberdina dela esango zenuke?

Euskal Herrian profesionalen ibili zen Medinaren bitartez zabaldu da han euskal pilota; baina han denetarik egiten dute. Tenisko pilotak, fronteniskoak... denetarik erabiltzen dute. Eskularruak jarrita ere jokatzeko dute, pilota gogorrarekin. Berez, hori da gehien jokatzeko den modalitatea, *guante* deitzen diotena.

29 urte ditu Medinak. Bi urtez ibili zen profesionalen heman, eta bigarren mailako lau t'erdiko finala irabazi zuen. Maila oneko jokalaria da.

Eta, hango jendeak jarraitzen du pilota?

Bai, asko. Jokatu ditugun ia partidu guztietan frontoia bete-



Mendizabal pilotari gaztea, Antzuolako pilotalekuan, Mexikon irabazitako dominarekin.

A.E.

MEXIKO

"Txapelketa urduri hasi genuen, baina behin erritmoa hartuta samur irabazi genuen"

DV TXAPELKETA

"Errioxako Merino dut bikotekide DV txapelketan; ahalik eta lan onena egin nahi dugu"

PILOTARIA

"Txikia naiz, eta batzuek esaten dute hori nire kontra dudala, baina ez dut uste horrela denik"

ta egon da, 500 pertsona inguru. Asteazkenean jokatu dugun partiduan jende gutxiago egon da, baina aste bukaeran asko.

Gainera, hango jendeak apustuak egiten ditu pilotalekuan; baina elkarren artean egiten dituzte; hau da, artekarien laguntza barik.

Mexikon lortutako garaipenaz gain, nola baloratzen duzu aurtengo denboraldiko lana?

Ondo. Elgetako lau t'erdiko txapelketako finala jokatu nuen, eta galdu egin nuen arren, garrantzitsua da finalera heldu izana.

Orain, DV txapelketarekin hasi naiz. Najeran jokatu genuen lehenengo lehia eta garaipena lortu genuen. Errioxako Merinorekin nago bikotekide DV txapelketan.

Merinoren kontra jokatu izan duzu, baina bikotekide moduan lehen aldiz zaudete batera?

Bai, elkarrekin jokatzeko dugun lehenengo aldia da. Antolatzaileek euren jartzen dituzte bikoteak; eta, ez, ez gara elkarrekin entrenatzen.

Bikotekide batetik bestera aldea dago; batzuekin hobeto molda zaitezke, eta jokatu ere hobeto egin dezakezu, baina, esan bezala, hori ez dugu guk aukeratzen.

Ze helburu duzu DV txapelketari begira?

Ahalik eta lan onena egitera aterako gara. Orain dela bi urte txapelketa irabazi genuen; iaz, ostera, lehenengo txandan geratu ginen kanpoan.

Orain finalaurrekoa gertatzen zaigu, gu ahaleginduko gara finalera sartzen eta irabazten. Ahalegina, behintzat, egingo dugu.

Elgetan irabazitako lau t'erdiko txapelketa da orain arteko lorpen handiena?

Bai, Elgetako lau t'erdikoa irabazi nuen 2007an, eta urte berean DV txapelketa irabazi nuen. Lorpen haien ondoren ez dut aldaketarik igarri. Txapelketa mordo jokatzeko ditugu; eta batzuetan beste batzuetan baino hobeto ibili naiz. Txapelketa horiek irabazteak ez du esan gura gora igoko naizenik.

Gora igotze hori zelan ikusten duzu?

Zaila, oso zaila. Onenek debuta egiten dute, bik edo hiruk. Ahalegina egingo dugu eta zortea izanez gero... Nirekin ibili den jendea igo da, maila oneko jendea. Ni ahaleginduko naiz, baina ez da samurra.

Pilota alde batera utzi gabe, irakasle ikasketak egin dituzu.

Bai, Huhezina nabil heziketa fisikoko irakasle ikasketak egiten. Dena ondo joanez gero, aurren bukatuko ditut ikasketak. Pilota munduan edozer gauza pasa daiteke; hortaz, ikasketak izatea garrantzitsua da.

Pilotari moduan txikia zarela diote. Uste duzu hori zure kontra duzula?

Batzuek esaten dute baietz, baina nik uste dut ez duela zerikusirik. Indarragatik diote... baina, adibidez, makurtzeko orduan hori nire alde daukat.

Ahal dudanean tantoa bukatzea gustatzen zaidan pilotaria naiz. Ahal denean aprobetxatu egiten dut bukatzeko.

BERGARA

Gure gaztetxoak beisbolean aritu ziren zapatuan bigarrenenez

GOGOZ ETA ILUSIOZ Horrela ibili ziren zapatuan gaztetxoak Ipintzako futbol zelaian

EGUZKIA ETA HOTZA Eguzkiak gutxi berotzen zuen eta hotza egiten zuen arren, gaztetxoak gustura ibili ziren

BEDERATZI TALDE Hainbat ikastolatasteik etorritako bederetzitako taldek parte hartu zuten

NAROA ODRIOZOLA > BERGARA

Eguraldia lagun izan zuten gaztetxoek zapatuko eskola kirol saioan. Hotza egin zuen arren, eguzki izpiek goizean goizetik jo zuten Ipintzako futbol zelaian.

Oraingo honetan, Beisbolera jokatu zuten gure gaztetxoek. Ohiko kirola ez den arren, gogoz eta ilusio handiz ibili ziren. Goizeko 9:15etan hasi zen lehendabiziko saioa eta 12.15etan azkeneko bi taldeek jokatu zuten. Ikastola desberdinetatik etortitako bederetzitako taldek parte hartu zuten. Hala nola, Mariaren Lagundia, San Martin D, Aranzadi 3, Elgeta, Antzuola B, San Martin A, Aranzadi 4, Antzuola A eta San Martin B taldeak izan ziren partaideak.

Hainbat talde jokatzeko hasi baino lehenago, entrenatzen ibili ziren hotza saihesteko asmoz. Eta beisbolean jokatzeko amaitu zutenean, futbol partidua egitera animatu ziren zenbait gaztetxo.

GIRO POLITA

Lehiakortasuna alde batera utziz, ondo pasatzera joan ziren gaztetxoak. Goizean goiz guraso gutxi batzuk hurbildu ziren arren, denbora pasatzen joan zen heinean jende gehiago agertu zen gaztetxoei animatzera. Hala ere, ez zuten animo asko behar izan, emozioz eta gogoz iritsi ziren eta zelaira. Adiskidetasuna nabaria zen eta hala demostratu zuten bi taldeek amaieran elkar agurtu zutenean. Datorren zapatuan eskubaloien txanda izango da.



Mariaren Lagundia D. Atzean: Asiera, Yuriko eta Ioritz. Aurrean: Xabi, Antxon, Ion, Jackson eta Alazne.



Elgeta. Goian: Etor, Unai, Andoni, Jabi eta Irune. Behean: Gari, Aitor, Veronica eta Ainara.



San Martin D. Goian: Jairo, Ion, Alex, Ion, Beñat eta Iñaki. Behean: Xabi, Izaro eta Olatz.



Aranzadi 3. Goian: Yeni, Maite, Mireia eta Eider. Behean: Asier eta Alex.

ZEIN DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUN KIROLA?



Olatz eta Izaro
San Martin D

Beisbolera jokatzeko duten bigarren aldia da Olatz eta Izarorentzat. Izan ere, aurreko urtean ere ibili ziren beisbolean. Esan digutenez, beraien kirolik gustukoena da erraza delako eta guztiek parte hartzeko aukera dutelako.



Antxon
Mariaren Lagundia D

Atsedean tartean hurbildu ginen Antxonengana. Berarentzat ere ez da beisbolean jokatzeko duen lehenengo aldia. Gainera, gehien gustatzen zaion kirola dela esan digu, "polita iruditzen zait baina ez da oso erraza".



Ion, Mikel eta Aritz
Antzuola B

Beisbolean jokatzeko hasi aurretik aurkitu genituen hiru mutiko hauek ipintzeko futbol zelaian. Adierazi zigutenez, gustuko dute beisbola, baina futbola da gehien gustatzen zaion kirola eta honetan jokatzeko pasatzen dute aisialdiko denbora gehiena. Hala ere, Mikelek azaldu zigunez, eskubaloia ere gustuko du berak.



Maria, Irati, Lorea, Miren eta Marina
San Martin A

Patineteekin zetozela bost neska hauengana hurbildu ginen. 11:15etan zuten beisbolean jokatzeko txanda eta minutu batzuk lehenago heldu zuten Ipintzako futbol zelaira. Aurten beisbolean jokatzeko duten lehen aldia da. Gainera, gogoko duten arren, beraien kirol gustukoena saskibaloia eta futbola dira. Zergatiaz galdetuzan argi izan zuten erantzuna: "onak garelako".

Nora Salbotx > Amaiur eskolako irakaslea

"Eskola txikiek ez dute inertziaz funtzionatzen, bizirik daude, osasuntsu"

OIHANA ELORTZA > ESKORIATZA

Eskola txikien inguruko jardunaldiak egin dituzte Huhezi fakultatean. Hizlarien artean, Nora Salbotx izan da, Nafarroako Amaiur herriko eskolako irakaslea.

Adin ezberdinetako ikasleak daude gela berean eskola txikietan. Zenbateraino da aberasgarria hori?

Uste dut pedagogiaren eta metodologiaren historia gure alde dagoela zentzu horretan. Gizakiok interakzioan eta guk baino zerbait gehiago dakitenekin batera ikasten dugula diote psikopedagogo askok.

Hitzaldian egon zen Elena Laizek ezan zuen eskola dela pertsonak adinka sailkatzen dituen esparru bakarra.

Bai, egia da. Familian, plazan edo beste edozein tokitan adin ezberdinetako pertsonak elkarrekin ibiltzen gara. Eskola moldatu da lanaren eredura eta irakasleen konbenientziara, eta hori bizitza errealitatetik urrun dago, artifiziala da askotan.

Adin ezberdinetakoak egoteak gela barruan lan gehiago eskatzen du? Pedagogia ezberdinarekin prestatzen dira eskolak?

Bai, plus bat eskatzen du, baina ez hainbeste, testuliburuekiko lotura gutxiago dutelako. Nonbait aurkitu badaitezke irakas-kuntzarekiko militantzia eta konpromisoa duen jendea, hori eskola txikietan izaten da.

Nolakoa da bueltan jasotzen den ordaina?

Atezainak, zuzendariak, kipu-la nahikoa ote dagoen konprobatzen dutenak, umei ipurdia gar-



Nora Salbotx.

HUHEZI

dugu, eskola txikiak beti hor egon direlako. Baina orain beste fase baten gaude: herritarrek eskola txikiari, bertakoari, eutsi gura diote. Hirietatik ere jende asko doa landagunera, euren seme-alabak han hazi gura dituztelako. Osasuntsu gaude orain.

Administrazioak ere egiten du apustu eskola txikiak zabalik mantentzearen alde?

Administrazioaren arabera koka da hori, baina Euskal Herrian oro har gure gainetik pasa direla esan genezake.

Zenbat eskola txiki daude egun Euskal Herrian?

132. Horietatik 78 Nafarroan, 26 Gipuzkoan, 28 Bizkaian eta bospasei Iparraldean. Araban ez dago bere burua eskola txikitzat hartzen duen eskolarik.

Urtero egiten duzue eskola txikien aldeko jaia. Eskola txikia zabalik badago, herria bizirik dagoela diozue sarri. Horrenbestekoa da?

Bai. Herriko ohitura edo jai konkretu batzuk mantentzeko, adibidez Santa Ageda edo Aratusteak, klabeak izan dira eskola txikiak. Bestalde, toki askotan zerbitzu moduan ere funtzionatzen dute: hara joaten dira biztanleak fotokopiak ateratzera eta Interneteko lehen konezioak ere eskola txikietan egon dira toki askotan.

Ze etorkizun ikusten diezu eskola txikiei?

Administrazioak badu zeregina, baina baita eskola txikien parte garenok ere. Gure diskurtsoa sendotzeko eta zabaltzeko lanean jarraitu behar dugu.

"Eskola askotan egin da irakasleen konbenientzira, eta hori artifiziala da sarri"

"Herria bizirik mantentzen dute eskola txikiek, hori argi ikusten da"

bitzen dietenak... denok gara parte. Katalunian eta beste herrialde batzuetan bada konpentsaziorik, baina Hego Euskal Herrian ez, ez behintzat ekonomikorik. Afektiboa, aldiz, bai.

Askotan entzun dugu gurasaok gutxi inplikatzeko direla irakasle eta ikasleekiko harremanetan. Eskola txikietan ere horrela da?

Ez, ez, hemen lan-talde horrek funtzionatzen du. Momentu jakin bat arte inertziaz funtzionatu

NERABEAK > TEKNOLOGIA BERRIAK

Gazte zein nagusiek ezagutu behar dituzte teknologiak

Juan Carlos Alonso psikologoaren esanetan, ezjakintasunagatik kezkatzen dira gurasoak

TXOMIN MADINA > OÑATI

Telebista, ordenagailuak, bideojokoak, sakelako telefono eta musika entzuteko aparailu ezberdinen eta gazteen arteko harremanaz hitz egin du Juan Carlos Alonso psikologoak Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean. Teknologia horiek guztiek zer eragin duten eta beraien erabilera egokirako zein irizpide jarraitu behar diren azaldu zituen Alonsok. Bere ustez, teknologia berrien eragina ez da berez ona edo txarra, "erabileraren arabera" baizik. Ordenagailuek, eta batez ere sare sozialek, nahiko arduraz sor-

tzen dute gurasoaren artean: zertarako erabiltzen duten, zeinek hitz egiten duten ordenagailu aurrean daudenean, zer kontatzen duten... Alonsoren ustez, baina, berez, onak dira sare sozialek, "abantailak ere badi-tuztelako". Bere esanetan, "arazoa akaso gurasa askoren ezjakintasunean dago. Horregatik egokiena teknologia berriak gertutik ezagutzen hastea da".

Azkenik, Alonsok gomendatzen du, era berean, egokia dela telebista ikusteko orduan edo bideojoko eta ordenagailuak erabiltzerakoan, tarteka seme-alabekin batera egotea.



Ume eta gazteak telebista ikusten.

NICOLAS SANGUINETTI

> HITZALDIAK

Umei euskara erabiltzeko arrazoiak zelan transmititu jakin gura dutenendako hitzaldia

Umei euskara erabiltzeko arrazoiak zelan transmititu azalduko duen hitzaldia emango du Arrasaten Jürgen Wolff-ek. Hitzaldia abenduaren 2an, eguaztena, izango da, 18:30ean, Kulturateko areto nagusian. Bestalde, hurrengo eguaztenean, abenduaren 9, euskaraz hitz egiteko beldurra nola galdu azalduko du hizlari berak toki eta ordu berdinean. Hitzaldi biak Arrasateko AED elkarte-ko Zaharberri taldeak antolatu ditu, eta Debagoieneko guraso guz-tiei zuzenduta daude.



Haurdun dagoen emakume bat.

SEAN DREILINGER

ELIKADURA > AMEN ELIKADURA

Elikadura onaren alde, farmaziak

Gipuzkoako 81 farmaziatan abiatu dute amaren elikadura ona azpimarratzeko kanpaina

O.E. > ARRASATE

Azaroan hasi eta 2010eko otsailera arte, Gipuzkoako 81 farmaziatan kanpaina egingo dute haurdun edo bularra ematen ari diren emakumeen elikadura osasuntsuaren alde. Tartean daude, esaterako, Arrasateko Erkuden

Etxeberria eta Bergarako Estella botikak. Farmazia horiek guztiek informazioa emango dute, adibidez, amaren esneak dituen onurak edo amaren elikadura txarrak umearengan duen eraginei buruz. Gura duen emakumeak agenda bat hartuko du farma-

zian bertan, elikadura osasungarriari jarraipena egiteko. Gipuzkoako Sendagileen Elkarteak babestutako kanpaina da. Izan ere, elkarte horrek argi du haurdunaldian eta bularra eman bitartean, amaren elikadura onak ze garrantzia duen umearendako. Amak gaizki jateak umearengan izan ditzakeen ondorioak ere gogoratu ditu: pisu gutxi, anemia eta kaltzio falta, adibidez.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, zatoz gure webgunera



guraso.com

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> GAITEROAK

Dolara anaiek eta lagunek taldearen 30. urteurrena kalean ospatu zuten > 30



> ANGER

Arrasateko musika taldeak diskoa aurkeztu zuen Gure Leku tabernan > 32



> MIKEL LASKURAIN

Bergarako aktorearekin izan gara asteburuan zer egiten duen jakiteko > 33



Joxepa behiarekin San Ferminetako kantu euskaratuak abestu zituzten.

JOSETXO ARANTZABAL



Umeek ere parte hartu zuten.

J.A.



Porrotx muxuak banatzen.

J.A.

Umorea, musika eta muxuak; hutsik egiten ez duen errezeta

ESTREINALDIA

Pirritx eta Porrotxen *Irrien lagunak* lana eskoriatzan eskaini zuten lehen aldiz, eta lortutako arrakasta itzela izan zen.

TXOMIN MADINA > ESKORIATZA

Eskoriatzako kiroldegia. Zapatu arratsaldea, 17:30 pasatxo. Kanpoan hotza, barrua leporaino beteta: ehunka neska mutiko, guraso, osaba-izeba edo aiton-amonek lagunduta. Txikienak urduri daude; urduri, edo akaso beldurtuta. Eta bat-batean, zoramena nagusi. Ez dira Beatlesak, ezta Madonna edo Des-

kontrol ere... Porrotx eta Marimotots dira agertokira igo direnak Zer datorren ondoren? Bada, ordu eta erdi inguru iraungo duen etengabeko festa.

GONBIDATU UGARI

Pirritx, haurdun egonda, ezin izan da Eskoriatzara gerturatu, baina konexio bidez hartuko du parte. Dena den, Porrotx eta Marimotots

ez dira bakarrik egongo: Idoia eta Xabi izango dituzte lagun musikan, eta Iñigo dantzan. Baita beste hainbat gonbidatu ere: trizikloan dabilen elefantea, izeba Arantxa, Xabi Bihurri, Joxepa behia... Olentzerok eta bere astotxoak ere ez dute hutsik egin gura izan.

Agertokian dantzan eta kantuan ari diren bitartean, gauza bera gertatzen da ikusleekin ere.

Ume zein gurasoek hainbeste aldiz entzundako eta dantzatutako kantutak buruz dakizkitez, eta izerdi patsetan baina gustura asko bukatuko dute Euskal Herriko pailazo maitatuenean emanaldia.

Muxu, puzkar eta erorketak; katxiporretak eta txorizopanplonak. Eta nola ez, *Maite zaitut*. Zergatik aldatu formula, emaitza ezin eraginkorragoa bada?

IRITZIAK



Irati, Leire, Maddi eta Leire

Ederto asko ibili zen laukote hau. "Oso ondo pasatu dugu: dantzan ibili gara, eta bukaeran, Porrotxek-eta hala eskatu dutenean, muxu asko bidali dizkiegu..." kontatu ziguten, oraindik ere barrea ahotik kendu ezinda zebiltzala. Gehien gustatu zitzaiena zer izan zen galdetuta, ez zuten zalantzarik egin: "Antzerkia egin duten momentuak gustatu zaizkigu gehien". Esan zigutenez, ia abesti denak buruz zekizkiten, etxean ere entzuten dituzte-eta Pirritx eta Porrotxen kantutak.



Naiara

"Primeran pasatu dut, baina onena, *Maite zaitut* abestu dutenean izan da" kontatu zigun Naiarak. Aitortu zuen, baita ere, Olentzero han egon zenez, Gabonetarako opariak eskatzeko aprobetxatu zuela.



Eneko eta Joseba

"Primeran pasatu dut, baina onena *Maite zaitut* abestu dutenean izan da" kontatu zigun Naiarak. Aitortu zuen, baita ere, Olentzero han egon zenez, Gabonetarako opariak eskatzeko aprobetxatu zuela.



Ilda Madinabeitia

Semearekin eta ilobarekin joan zen eta ederto pasatu zuten, baita berak ere: "Izugarri gustatzen zaizkit, senarrarekin ere eztabaidan aritzen naiz ni neu etortzeko! Ez dakit zer duten, baina oso bereziak dira, primerakoak".



Gaur egungo Arrasateko gaiteroen taldea osatzen duten bost lagunek hitza hartu zuten aurkezpenean.

JOSETXO ARANTZABAL



Iruñeko gaiteroak izan ziren eguneko gonbidatu bereziak.

J.A.



Herritar askok jarraitu zuten kalejira.



Otsagabiako dantzariak.

J.A.



Kulturateko argazki erakusketan Arrasateko hainbat musikari ageri dira.

J.A.

JENDARTEA > URTEURRENA

DVD-CDa salgai dago Maiztegi eta Erdiko kaleko kioskoetan, Goxo-goxuan, Kajoi tabernan eta Eroskin, 12 eurotan

CDak 15 kantu ditu; eta DVDan Arrasateko gaiteroen gaineko historia batu dute

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Arrasateko Erdiko kaletik gora gaita doinua igotzen entzun genuen lehenengo alditik 30 urte pasa dira; eta hori modu borobillean ospatu gura izan dute.

Arrasateko historiaren soinu banda zati bat gaiteroen eskutik

Esteban eta Enrike Dolara anaiak liluratuta utzi zituen gaita doinuak Nafarroan, eta Arrasaten taldea eratzea erabaki zuten. Hortik gaur egunera arteko bidea erakutsi dute Artemanek ekoiztutako DVD baten; horri, Shot! grabazio estudioarekin lankidetzan egindako 15 kantuz osatutako CDa gehitu diote.

LAGUN HANDIZ INGURATUTA

Dolara anaiak eta Eduardo Abarrategi, Iñaki Barrena eta Igor Gonzalez kide gazteagoek lagun asko egin dituzte bidean eta horietako asko gonbidatu zituzten dis-

koan parte hartzera. Gainera, gaiteroak ahaleginu dira ahalik eta instrumentu eta pieza desberdin gehien batzen: "Erakutsi gura genuen gaita mota askotako taldeekin bateragarria dela; hala, soka talde, organo, haize talde eta bestelakoekin batera kantuak egin ditugu", azaldu zuen Enrike Dolarak.

KALEZALE PORROKATUAK

DVD-CD lan bikoitzaren aurkezpena Kulturaten egitekoa zen arren, gaitero kalezaleek gurago izan zuten aurretik kalean gora kalean behera ibiltzea. Hala,

eguerdian Portaloian Iruñeko gaiteroek diana jo eta Arbolapetara jo zuten kalejiran Otsagabiako dantzariekin batera. Han, saio txiki bat eskaini eta Herriko Plazara jo zuten. Ordurako, jende asko batu zen musikak eta dantzak erakarritan.

IA TXIKI GELDITU ZEN KULTURATE

Horren ostean, ia txiki gelditu zen areto nagusia, asko izan ziren-eta han batutako arrasatearrak eta baita Gasteiz, Iruñea, Tutereta eta beste leku askotatik etorritakok. Artemaneko Gorka Etxabek gidatutako ekitaldian, argitalpe-

na babestu duten erakundeetako ordezkariak ere esku hartu zuten: Arrasateko alkate Ino Galparosoro, Foru Aldundiko Kultura zuzendari Haritz Solupe eta Kutxako Kultura sustapeneko Mikel Irizar, besteak beste. Guztiek azpimarratu zuten gaiteroek egindako lana eta herria girotu eta euskal kultura bultzatzeko egindako ahalegina.

Dolara anaiak hunkituta zeuden batez ere lan hori egiterakotan izan duten musikarien laguntzarengatik. Duten kezka bakarra da gaitaren soinuek herrian erreleburik izango ote duen.

Elkarlana



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



 kutxa



ADEGI



CAMARA DE GIPUZKOA
KAMERAREN BAZKUNDEA
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA
MERCANTILIAZko BAZKUNDEA



Donostia Udale
Ayuntamiento de San Sebastián



gipuzkoa aurrera

Elkarlanean, ilusioak, helburuak eta proiektuak aurrera.

Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-privatutik elkarlanean ari gara,
indarrak eta ahaleginak batuz.

Gipuzkoa guztiaren gainera dagoelako.

MUSIKA > ANGER

Denboraren kabuz izugarri ondu den taldea

NON: Arrasateko Gure Leku tabernan.
EGUNA: Zapatua, azaroak 28.
ZENBAT JENDE: 80 lagun inguru.
IRAUPENA: Ordu eta laurden.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Arrasateko Anger taldeak disko berria izango du aste honetan kalean; eta, aspaldiko partez, hainbat kontzertu egingo ditu jarraian. Izan ere, azken urteotan taldea nahiko geldirik izan dute eta bost urte luze pasa dira aurreko *Biluztu* diskoa kaleratu zutenetik.

Musakolako taldeak aldaketa txiki bat izan du epe luze honetan; hain zuzen ere, Little Little Much, Anal Bag eta bestelako proiektuetan aritutako Iban da bateria jotzaile berria.

DISKO AURREKO AURKEZPENA

Diskoa oraindik esku artean ez zuten arren, *Sedukzioaz* izeneko lan berria hasieratik bukaerara interpretatu zuten. Bistan denez, aurkezpena egiteko ez zuten leku handi bat aukeratu; horren ordez, gurago izan zuten Gure Leku tabernan lagun artean egitea; eta, jakina, taberna txiki gel-ditu zen.



Arkaitz kantuararen gorenean abesten eta alboan Beñat gitarrari su garrak ateratzen.

IKER BARANDIARAN

Anger taldea hastapenetan metalaren alorrean gogor hasi zen, baina poliki-poliki musika ikuspegia zabaldu eta melodia gehitu diote emaitzari. Irekitze hori asko igarri zen *Biluztu* lane-

an, baina azken honetan gehiago areagotu da tendentzia hori. Hala, erritmoetan, batez ere, oraindik metalaren pisua eta indarra oso presente dauden arren, bestelako doinuak entzun

daitezke. Horien artean, nabar-menak dira post-hardcorearen tenpo, iluntasun eta ezaugarri bereizgarriak; rockaren gero eta eragin handiagoak eta, zergatik ez, stoner kutsua ere.

Are gehiago, Angerreko taldekideek inoiz ez diete aurreiritziei beldurrik izan; eta oraingotan ere ausartu dira kanturen baten pop-rocka eta baita sanba erritmoak sartzen ere.

DENETARIKO ESTILOAK

Bistan da taldekideak asko hazi direla agertoki gainean: Ekainek baxua jotzeko estilo handia dauka, erritmoa fisura barik zizelkatzen du; Beñat *guitar-killer*-a bihurtu da eta melodia guztietara heltzen da; Iban bateria jotzaileak pultso berria eman dio taldeari eta Arkaitzek, *glam* estiloa gehitzeaz gain, ahots-erregistro gero eta aberatsagoak ditu abeterakoan. Hori guztia emaitzean oso presente dago, eta baita zuzenean kantuak borobiltzerakoan: irmotasun handiarekin, melodia xuxurlariatik abiatuta eta rap rezitatuetatik igarota, post-hardcorearen iluntasunera edo hardcorearen mugetara helduta.

Bestalde, Musikerriarekin elkarlanean kaleratu duten disko horrek *Biluztu*-ren kritikotasunaren bidetik jarraitzen du. Hala, gizarteak galdutako baloreak berbagai ditu, eta bizi ditugun engainu eta kontraesanak azalera ekartzen dituzte.

Gizarte laguntzarako Prestakuntza

✚ kutxa

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

Bergarako UNED.
Gizarte Laguntzan Trebatzeko Eskola
San Martin Agirre plaza 4 20570 Bergara
Tel.: 943 76 90 33 • Faxa: 943 76 27 21
Matrikula internet bidez egiteko:
www.uned.es/ca-bergara

Idazkaritzako ordutegia:
Asteartetik ostiralera:
10:30-13:00 eta 17:00-20:00
Zapatuetan: 09:00-13:00

GERIATRIA LAGUNTZAILE DIPLOMA

Iraupena: 252 ordu (urtariletik ekainera).

Hizkuntza: Gaztelania.

Datak eta ordutegiak: Kurtso hasiera urtarrilaren 15ean.

MATRIKULA EPEA:

Idazkaritzan: 2009ko abenduaren 1etik 23ra arte.
Interneten: 2009ko abenduaren 31 arte.

ASISTENTZIA TOTALA

Eskolak asteazkenetan, ostegunetan eta ostiraletan izango dira 17:00etatik 21:00etara

Prezioa: 168 €.

Matrikulan %25eko deskontua (ezin izango da metatu) izango dute:

- Langabezian dauden eta INEMen izena emanda duten pertsonen (egiaztagiria aurkeztu beharko dute).
- Kutxako bezeroak direnak.

MODALITATE ERDI-PRESENTZIALA

Derrigorrezkoa da elkarrizketara eta ebaluazioko 6 saiotara joatea.

Prezioa: 250 €

Matrikulan %25eko deskontua (ezin izango da metatu) izango dute:


- Langabezian dauden eta INEMen izena emanda duten pertsonen (egiaztagiria aurkeztu beharko dute).
- Kutxako bezeroak direnak.



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

✚ kutxa



JOSETXO ARANTZABAL

Emanaldi hunkigarria, barru-barrukoa

Jende asko hurbildu zen atzo, domeka, gauean Elgetako Espaloia kafe antzokira, Xabier Leteren errezitaldia entzutea. Joxean Goikoetxea musikariak lagunduta eta ia trantzean zeuden entzuleen aurrean, bere testuetan oinarrituta, emanaldi sakon eta hunkigarria egin zuen. Are gehiago, ikaragarriko indarra erakutsi zuen errezitaldia interpretatzen.

ASTE BUKAERA...

Mikel Laskurainekin



Azken aste bukaeretan lanean egon da Laskurain *Street marketing* antzezlanarekin; orain dela astebete Oñatin egon zen.

JOSETXO ARANTZABAL

"Lanik ez dudanean, Bergara, Hernani eta Lekeitio artean ibiltzen gara"

Mikel Laskurain bergararra aktorea da eta astero ikus dezakegu ETB1eko 'Wazemank' saioan

Hernanin bizi da eta baratzea du etxe ondoan; udaberrian hasiko da tomateak eta letxugak landatzen

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Mikel Laskurain (Bergara, 1965) aktorea da. ETB1en ematen duten *Wazemank* saioan ikus dezakegu eguaztenero Anjel Alkainekin, Ainere Tolosarekin, Jon Iraolarekin, Mikel Pagadizabalekin, Iñake Irastortzarekin, Ana Elordirekin eta Egoitz Lasarekin. Egun ematen diharduten saioak apirila baino lehen grabatu zituzten. Laster hasiko dira saio berriak grabatzen. "Aldi bakoitzean 13 saio grabatzen ditugu. ETBko arduradunek oraintxe esan digute 13 atal berri grabatu behar ditugula. Urtarrilean hasiko gara", esan digu. Gaineratu digu hurrengo astean hasiko direla ETB1eko Urtezaharreko programa berezia prestatzen.

Wazemank-eko 13 saioak grabatzeko hiru hilabeteko lana izaten dutela esan digu: "Telebistako saio batek ematen duena da egonkortasuna. Hiru hilabeteen egunero egiten dugu lan zortzi orduko jardunarekin". *Wazemank* saioa egiten lagun handiak egin dituela eta lantaldean giro oso ona dagoela esan digu. "Zuzendaria asko haserretzen da gurekin. Esketxak grabatzeko

orduan norbait barrezka hasten denean, guztiok egiten dugu barre".

Egun, Trapu Zaharrak taldearekin dihardu *Street marketing* antzezlanarekin. Hain zuzen ere, turismo sektorearen Q-a eta praktika egokiak sustatzeko Basquetour-Turismoaren Euskal Agentzia burutzen ari den kanpainaren barruan emanaldiak egin dituzte herririk herri. Hainbat

emanaldi egin ditu; besteak beste, Arrasaten, Oñatin eta Bergaran egon da.

BERGARATIK LEKEITIORA

Aste bukaeran lan egiten ez duenean lagunekin eta familiarekin egotea gustatzen zaio, eta hiru herritan dituen lagunekin konplitu behar du. "Ni bergararra naiz, baina Hernanin bizi gara. Gainera, neskalaguna -Miren

Gojenola aktorea-lekeitiarra da. Hortaz, herririk herri ibiltzen gara. Askotan esaten dugu hiru koadrila eta hiru elkarte ditugula. Gainera, senitartekoak ditugu Bergaran eta Lekeitio eta semeen lagunak Hernanin", esan digu. Lagunekin afariak eta bazkariak egitea atsegin duela esan digu, eta lana izaten dutela agenda antolatzen. "Autobidean gora eta behera ibiltzen gara herririk herri". Bergarara askotan joaten dela esan digu.

BARATZEKO LANAK

Hernanin baratzea dauka, etxe ondoan. Oraindik porru eta letxuga batzuk dituela esan digu, baina neguan lan gutxi izaten duela: "Baratzean ibiltzea gustatzen zait. Uda partean izaten dut lan handien. Udaberrian, giroa epeltzen duenean hasiko naiz tomateak eta letxugak landatzen".

Kiroliek egiten ez duela dio. "Ez dut korrikarik egiten, ez dut bizi-kletarik erabiltzen eta ez naiz futbolzalea. Dena den, noizean behin lagunekin tabernetan elkartzen naiz futbola ikusteko. Ingurukoek botatzen dituzten astakeriekin barre galantak egiten ditut!", dio.

"Telebistan egiten ditudan saioak ikusten ditut; ez daukat inolako aurreiritzirik"

Onerako edo txarrerako telebistan egiten dituen saioak ikusten dituela esan digu. "Ez daukat aurreiritzirik. *Wazemank* saioa eta aurretik ETBrako egindako *Noaoa* saioa emisio guztiak ikusten ditut".

Mikel Laskurainek gogoan du oraindik telebistan egin zuen lehen lana; hau da, ETBn ematen zuten *Funtzioa* saioan egindakoa. "Zuzeneko musika zen nagusi. Kantu batzuetan agertokian agertzen zen behiaren atzeko aldea nintzen. Bi lagun sartzen ginen mozorro barruan. Aurrekoari gerritik heltzen nion eta behiaren atzeko hankak mugitzen nituen". Orduetik hona, telebistako beste hainbat saiotan parte hartu du; dena den, askok *Goenkale*-n egindako paperagatik gogoratzen dute. "Lau urtez sartu nintzen *Puskas*-en paperean. Gustura ibili ginen. Nork esango zigun orduan *Goenkale*-k horrenbeste urte iraungo zuenik!". Telesaileko kapitulu berriak ez dituela ikusten aitortu digu.

iragarkilaburrak.com

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Baserria salgai. Guztiz berrituta. 180 metro koadro, 2.000 metro koadroko lur-sailean. Prezio interesgarria. 648 56 41 38.

Aramaio. Herri erdi-erdian 91 metro koadroko etxebizitza. 32 metro koadroko ganbararekin. Bizi izateko moduan dago, baina berritu beharra dauka. Aukera ona. Premiazkoa da. 110.000 euro. 615 73 85 77.

Arrasate. Erguin kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, komuna eta sukalde. 606 86 71 97.

Bergara. 80 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Justo Garate plazan. Sukalde eta bi komun jantziak, hiru logela, egongela, balkoia, despentsa eta garaje itxia. Jantzita utziko genuke. Ia berria eta oso egoera onean. 650 79 28 63 edo 626 11 55 14.

Bergara. Etxebizitza salgai Bolun. Egongela, hiru logela, sukalde, bi komun, trasteleku eta garajea. Aukera ona. 688 67 10 31.

Eibar. Eibar erdialdean, txokoa berritua, sukalde eta bainuarekin, saltzen edo alokatzen da. 90 metro koadro. Egoera ezin hobea. Interesatuak deitu 669-29 34 27 telefonora (Sandra).

Marieta (Araba). Etxe bakarra saltzen da. 200 metro koadro eta nahiko berria: 7 urte. 5 logela, 3 komun, 2 autorentzako garajea eta 40 metro koadroko egongela, behoko suarekin. 900 metro koadroko lorategia, eginda. 628 45 09 62.

Oñati. Bidebarrieta auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi bainu, sukalde eta ganbara. Garajea aukeran. 620 02 51 95.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. 40 metroko apartamentu kapritxosoa ematen da errentan herri erdialdean. Aproximatu.

posa pertsona bakarra edo bikotearentzat. 600 euro hilean. 943 85 06 23

Arrasate. Erdialdean guztiz berrituta 60 metro koadroko etxebizitza. Bi logela. 635 71 79 57.

104. ERRENTAN HARTU

Arexabaleta. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 679 09 33 34.

Arrasate. Arrasateko hiru gazte langilek etxebizitza errentan hartuko lukete. 665 75 40 36.

Arrasate. Bikote urtarillaren letik aurrera bi gela edo gehiagoko etxebizitza alokatzeko prest. Deitu 665 72 79 38 edo 635 70 96 43 zenbakira.

Bergara. Errentan hartuko etxe bila nabil. Deitu 697 88 35 62 telefono zenbakira.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke, bi edo hiru logelarekin. Deitu 636 80 87 68 telefono zenbakira.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 600 25 98 54 edo 687 61 63 00

Bergarako neska batek etxebizitza hartuko luke errentan, merke. Deitu 649 40 72 49 telefono zenbakira.

105. ETXEAK OSATU

Antzuola. Sagasti auzoan pertsona bat behar da etxea osatzeko. Behoko solairua da eta terraza dauka. 618-12 08 01

Arrasate. Erdigunean logela ematen da errentan. Deitu 619-78 63 41 telefonora.

Arrasate. Gelak errentan Makatzenan, sukalde erabiltzeko eskubidearekin. Telebista, DVDA, kafe-makina... erosotasun guztiak. Bista polit eta giro ezin hobea. Interesatuak deitu zenbaki honetara eta Alexandragatik galdetu. 690 61 08 26

Arrasate. Pertsona bat behar dugu lau gelako etxebizitza osatzeko. Langileak bizi dira bertan. Deitu 605 77 51 66 edo 943 79 46 13 zenbakietara

Eguneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com
www.goiena.net-en

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU/ALOKATU.

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).

PROFESIOALEN IRAGARKIAK (MODULO A)

MODULO 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 670-59 73 62

Arrasate. Gela bila nabil. Mutil arduratsua naiz eta lan finkoa daukat. Miguel Barrios. 943 79 74 13 edo 647 28 82 41

Bergara. Gela ematen da errentan Irizar pasealekuan. Bikote batentzat edo pertsona bakarrentzat. 943-03 62 00 edo 696-03 80 07

Donostia. Gela errentan Donostian. Oso ondo kokatutako etxebizitza batean. Etxean pertsona bakarra bizi da. Ohe bikoi-tza, ikasteko mahaia eta armarioa. Ekainera arte, besterik ez. Deitu 20:30etik aurrera 669-96 23 55 zenbakira.

Donostia. Gela alokatu emakume batentzat. Donostian, metro eta autobus geltokitik erdibidean, gela bat alokatzen da pisu konpartitu batean, emakume batentzat. Berdin ikasle edo langile. 943-6516 92. Hartu ez ezan mezua utzi.

Donostia. Antigua, hondartzatik gertu, gela bat ditur pisua konpartituzko. 627-45 99 01

Iruñea. Etxeak hiru logela ditu baina bi lagunendako da. Bero-gailua, igogailua eta internet dago. Lekua oso lasaia da. Mutil langilea eta jatorra naiz. Berdin zait neska ala mutila bazara, beraz anima zaitzez! Pedro. 647-88 60 24

Iruñea. Gela alokatzen da Iruñean. Telefonoa: 658-80 34 07

2/ GARAJEAK

202. EROSI

Bergara. Garaje itxia erosi nahi dut erdialdean. Deitu 635 20 81 22 telefono zenbakira.

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garaje bat hartuko nuke errentan San Lorentzon. Deitu 665 73 51 59 telefonora.

304. ERRENTAN HARTU

Debagoiena. Taberna hartuko nuke errentan. Deitu 677 05 39 06 telefonora.

Debagoiena. Taberna hartuko nuke errentan. 638 10 29 63

Oñati. Lokal txikia, etxabea edo garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. 665 73 51 59.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Beasain. Emakume euskalduna behar da etxeko lanetarako, goizez Beasainen. Telefonoa: 678-49 23 46

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA - TRABAJO TEMPORAL

ALDIBATEKO LANA

943-16 20 48
Senpere, 7 (zentru komertziala)
BEASAIN

Ikusi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

402. ESKAERAK

Altsasu. Adinertaineko emakume altsasuarra naiz eta haurrak edo adiudak zaindu edo etxeko lanak egiten nituzke. Deitu 654-23 08 66 telefonora.

Arexabaleta. Alfonbra eta moneta garbitzen ditut, lehorean, etxez etxe. 659 62 02 49

Arexabaleta. Emakume arduratsua gertu adinekoak zaindu, etxeko garbitasun lanak egin edo umeak zaintzeko. Esperientzia adinekoekin. Mari. 943-53 33 92

Arexabaleta. Goizetan atari edota etxeak garbituko nituzke, orduka. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72

Arrasate. Emakume gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 636-25 56 68 edo 943-25 02 94

Arrasate. Emakume gertu nagusi zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 619-78 63 41

Arrasate. Arrasateko neska gazte euskalduna arratsalde lan egiteko gertu, umeak zaintzen edo etxeak garbitzen. Esperientzia handikoa. 618-41 24 79 edo 943-08 14 25

Arrasate. Etxeak garbitu edo umeak zainduko nituzke. Mari. 649-30 13 60

Arrasate. Neska euskalduna eguerdian etxe zein atariak garbitzeko prest. 663-04 53 99

Arrasate. Bergara eta Arrasate. Emakume garbitasun lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eguneko edozein ordutan egin dezake lan. 650-62 12 94

Arrasate. Hemengo neska prest edozein lanerako, orduka ere bai. 659-55 27 16

Arrasate. Umeak zaindu edo garbiketarako egiteko nituzke. 649-30 13 60

Arexabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Lan egingo nuke garbiketa lanetan: elkarrekin, tabernak, bulegoak eta abar. Asteazken zein asteburuetan. Erreferentzia onak. Deitu 648 19 10 38 telefonora.

Arexabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Neska gertu asteburuetan tabernan lan egiteko. Sukaldean, barran zein jangelan. Ordu-tegi malgua. Legezko paperak daukat. 620 54 60 59

Arrasate, Arexabaleta edo Eskoriatza. Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). 618-00 08 28 edo 943-79 82 43

Bergara. Emakume gazte gertu garbiketa lanak egiteko. Orduka lan egingo nuke. Deitu 671 33 75 54 telefonora

Bergara. Etxeko lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziadun mutila etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Telefonoa: 650-17 74 87

Bergara. Neska bergararra gertu etxeak garbitu, nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. Telefonoa: 943-53 29 18

Bergara. Garbiketarako lanak egin eta pertsona edadetuak zainduko nituzke. Harremanetarako telefonoak: 649-83 08 82 edo 943-76 44 27

Bergara. Emakume gazte gertu garbiketa lanak egiteko. Orduka lan egingo nuke. Deitu 671-33 75 54 telefonora.

Bergara. Esperientziadun mutila etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko gertu. 650-17 74 87

Bergara. Esperientziadun emakume gertu orduka etxeko lanak egiteko. 622-60 84 68

Bergara. Esperientziadun neska nagusiak zainduko prest. Aste bukaeretan, jai egunetan eta gauetan lan egingo nuke. Telefonoa: 630-88 54 46

Bergara. Urte askoko esperientzia duen neska gertu sukalde laguntzaile lan egin edota etxez etxe nagusiak zainduko. Telefonoa: 637-18 07 23

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetarako. 610-82 02 17

Debagoiena. Gazte arrasatearra muntatzaile edo zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. 605-76 05 59

Debagoiena. Bergara-Arrasate. Emakume gertu edozein lan egiteko. 09:00etik 14:00etara. Pertsona nagusiak gurtura zainduko nituzke. 669-98 46 47

Debagoiena. Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo furgoneta gidari lanetarako. Legezko paperak daukat. Telefonoa: 628-48 05 41

Debagoiena. Antzoko lanetan esperientzia duen emakumezko batek lan egingo luke helduak zein umeak zainduen. Ordu-tegi malgua eta lanerako presutasuna. 669-02 91 30

Debagoiena. Gertu nago tabernari edo zerbitzari jarduteko, garbiketa lanak egiteko eta pertsona edadetuak zainduko. Telefonoa: 671-71 90 03

Debagoiena. Mutil gazte gertu zerbitzari edo garbiketa lanak egiteko. 610-95 79 79

Debagoiena. Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zainduko, egunez zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak daukat. Ana. 648-60 27 87

Debagoiena. Emakume gazte gertu nagusi zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko: etxeak, atariak, tabernak edo bestelakoak. Sukaldean ere ariko nintzateke. 676-28 87 84

Debagoiena. Emakume gertu pertsona edadetu zein haurren zainketa lanak egiteko. Etxean bizi izateko prest. Telefonoa: 663-65 78 43

Debagoiena. Emakume gertu pertsona nagusiak edo umeak zainduko, edota garbiketa lanak egiteko. Orduka edo gauzez. Telefonoa: 678-23 54 93

Debagoiena. Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informa ditut. Telefonoa: 671-35 22 60

Debagoiena. Garbiketa lanak edo nagusiak zainduko gertu. Eli Cerezo. 630-20 12 03

Debagoiena. Gertu nago pertsona edadetu zein haurren zainketa lanak egiteko. Garbiketa lanak ere egingo nituzke, egunez zein gauzez, eta orduka. 638-54 75 93

Debagoiena. Lau urteko esperientziadun neska nagusiak zainduko gertu. Etxean bizi izaten ere bai. Telefonoa: 626-78 22 95

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Telefonoa: 680-30 24 64

Debagoiena. Neska esperientziaduna gertu nagusiak zainduko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauzez ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. Telefonoa: 660-37 20 47

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeak garbituko nituzke. Harremanetarako telefonoa: 669-98 46 47

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egingo nituzke. Harremanetarako telefonoa: 943-75 22 30 edo 636-17 27 65

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Arratsalde eta baita aste bukaeretan ere. Telefonoa: 697-93 73 32

Debagoiena. 27 urteko mutila gertu arotz edo soldatzaile lanetarako. Baita publikitate banatzaile ere. Autoa daukat. Telefonoa: 691-79 53 34

Debagoiena. Edozein lan egiteko gertu mutil gazte. Manuel. Telefonoa: 943-75 22 30 edo 636-17 27 65

Debagoiena. Emakume edozein lanetarako gertu. Socorro Mora Soria. Telefonoa: 627-14 63 79

Debagoiena. Emakume edozein lan egiteko prest. Ana Luisa de los Santos. 671 27 78 36

Debagoiena. Emakume gertu edozein tokitan lan egiteko, baita baserriko lanak egiteko ere. Telefonoa: 639-88 64 13

Debagoiena. Esperientziadun emakume garbiketa lanak egin, nagusi zaindu edo supermerkaturan lan egiteko gertu. Paperak ditu. Telefonoa: 636-01 91 12

Debagoiena. Garbiketa lanak egin edota pertsona edadetuak zainduko nituzke, egun osoz. Telefonoa: 627-14 63 79

Debagoiena. Gazte arrasatearra edozein lan egiteko prest. Esperientziaduna zerbitzari lanetan eta makina muntaketa lanetan. 605-76 05 59

Debagoiena. Gizonetako lanerako gertu. Harremanetarako telefono zenbakia: 645-72 92 87

Debagoiena. Elektrikaria naiz, teknikari komertziala. Javi. Telefonoa: 669-49 83 24 edo 680-30 30 52

Debagoiena. Emakume gertu etxeko lanak egiteko, etxean bertan bizi izaten. Telefonoa: 650-70 98 76

Debagoiena. Iturgin laguntzaile lanak egingo nituzke. Magno Alberto. 600-76 43 14

Debagoiena. Mutil gazte edozein lan egiteko gertu. Gidabaimena daukat. Jhony. Telefonoa: 943-75 22 30 edo 636-17 27 65

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Telefonoa: 638-10 29 63

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: tabernan, garbiketarako lanetan, baserriko lanetan... Telefonoa: 671-45 96 26

Debagoiena. Neska arduratsua esperientziaduna gertu garbiketa, dendarri, azafata edo bestelako lanetarako. Telefonoa: 639-86 96 76

Debagoiena. Neska boliviarra gertu edozein motatako lanetarako. Egunez zein gauzez. Esperientziaduna. Legezko paperak daukat. Telefonoa: 618-1471 34

Debagoiena. Neska gazte zerbitzari lanak egiteko, garbiketa lanak orokorrean egiteko edota pertsona nagusiak zainduko gertu. 671-71 90 03



IBARGARAI 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmikorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak.**

Antzuola:

- Buzinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

Elgeta:

- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

Soraluze:

- Atxuri 49 m². 117.618 €.



DEBA GARAIA
INMOBILIARIA

Telefono Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Arrizuri, 97 m², garajearekin.</

Debagoiena. Neska gertu edo zein lanetarako. Telefonoa: 679-17 11 35

Debagoiena. Neska gertu garbiketara, ume edo nagusiak zaintzen zein zerbitzari lanetan aritzeko. Telefonoa: 660-56 65 58

Debagoiena. Neska gertu zerbitzari, garbiketara edo ume zein nagusiak zaintzen lan egiteko. Legezko paperak dauzkat. Telefonoa: 628-48 05 41 edo 943-71 21 15

Debagoiena. Paperak eguneratutako dauzkan mutil gazte gertu zerbitzari, lorezain edo garbiketara lanak egiteko gertu. Telefonoa: 647-19 36 95

Debagoiena. Pertsona edadetuena eta umeen zaintza lanak egiteko gertu nago. Esperientziaduna naiz gaian eta baita oso arduratsua ere. Etxean zein kanpoan egingo nuke lan. Luis Marina. Deitu 606-85 67 08 telefonora.

Debagoiena. Neska langile eta esperientziaduna garbiketarako egiteko prest. Orduka. Deitu 669-205798 edo 665-700063 telefono zenbakietara.

Deba. Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Telefono zenbakia 665-74 18 66. Marian.

Donostia. Nikaraguako mutil bat nahiz eta Donostian bizi naiz, bertan edo inguruko herrietan lanetan bat egiteko prest nago. 3. adineko pertsonak zaintzen edota beste edozertan. Interesatuak deitu 943-65 40 57

Donostia. Neska euskalduna, haur hezitzailea, haurrak zaintzeko prest. Donostia eta inguruko herrietan, edozein ordu-tegitan. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe. Deitu 616-38 31 64 telefono zenbakira.

Gernika-Lumo. Erizain laguntzailea geriatrian lan bila dabil Gernika-Lumo aldean. Eskarmentu handia zaintze lanetan. Orduka zein egun osorako. Deitu 645-70 40 20 zenbakira eta Marisarengatik galdetu.

403. BESTELAKOAK

Zugatik egiten dut. Denborarik ez badaukazu posta, banketxe eta abarretara joateko, nik egingo dut zugatik. Errekaduak ere bai. Deitu 605 74 52 19 telefono zenbakira.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Batxilergoko gaztelera eta literaturako eskolak jasoko nituzke Oñatin. 688 63 82 28.

Baxu elektrikoko eskola partikularrak hartuko nituzke. Bergara, Arrasate edo Eibarren. Orduete edo pare bat ordu astean. Nerea. 652 71 74 96.

Bergara. Batxilergoko bigarren mailako eskolak jasoko nituzke. 686 51 07 86.

Debagoiena. EHUKO Psikopedagogia ikaslea naiz eta Ikerketa Diseinu ikasgaiarako eskola partikularrak jaso gura nituzke. 686 20 31 35.

502. EMAN

Debagoiena. Neska euskalduna LHko nahiz DBHko eskola partikularrak emateko gertu. Natur Zientzien batxilergoa eta EGA titulua dituteta Erizaintzako ikasketak egiten ari naiz. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara nahiz Oñatira joateko arazorik ez. 690-66 19 80 edo 943-03 78 31.

Debagoiena. Musika eskolak. Gitarra elektriko zein akustiko eta harmonia eskolak ematen ditut. Maila eta estilo guztiak. Jon. Telefonoa: 679-22 86 07

Arrasate. Ingeniari industrialia naiz. LH, DBH edo batxilergoko eskola partikularrak emango nituzke: matematika, marrazketa teknikoak, fisika, ingelesa eta abar. 667-32 35 00

Arrasate. Ingeniaritza ikasi duen gazte batek DBH eta batxilergoko eskolak emango nituzke. Mikel. Telefonoa: 634-84 41 96

Arrasate. Neska euskalduna Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Egurdieta deitu. 663-04 53 99

Arrasate. Diseinu Industrialako ikaslea naiz eta DBHko ikasle bati eskola partikularrak emateko prest nago. Arrasaten bizi naiz eta bertan zait nire etxera etortzea edo ni ikaslearen etxera joatea. : 645-73 53 95

Beasain. Irakasle diplomata, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako ikasleei edozein ikasgai buruzko klase partikularrak emateko prest. Deitu 615-00 20 44 telefonora.

Bergara. Ingelesko eskola partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Elkarriketa lantzeko ere bai. Telefonoa: 637-52 89 83

Bergara. Lehen Hezkuntza, DBH, batxilergo eta ingelesko eskolak emango nituzke. 675-00 59 48

Bergara. Neska euskalduna Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Egurdieta deitu. 663-04 53 99

Bergara. Umeendako ingeles eskolak ematen ditut. Aitor. 671-76 22 28 edo 943-76 01 99

Bergara. Mintza praktika. Ingelesko elkarriketa saioak eskaintzen ditut Bergaran. Telefonoa: 654-94 87 26

Eibar. LH, DBH eta Batxilergoko partikularrak emateko mutila prest. 630-81 77 87

Gasteiz. Biologian lizentziatutako batxilergo arteko natur zientzia eta euskarazko eskolak ematen ditu Gasteizen eta inguruetan. 945-56 43 83.

Oñati. Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntzako, DBHko eta batxilergoko eskola partikularrak emateko prest nago (matematika, marrazketa, fisika...). 678-27 27 57

6/ MOTORRA

601. SALDU

Honda Varadero XL 1000v motorra salgai. 2006koa. Egoera oso onean. 23.000km. Estra askorekin: hiru maleta, esku-berogailua eta Givi defentsak. Beti garajejan. 605 71 24 73.

Yamaha FZ6 Facer S motorra salgai. 600cc. 98ZP. 2007koa. 32.000 km. Givi maleta ekipa osoa. Extrak. 4.500 euro. 679 81 87 87.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Ardiak salgai. Ardiak salgai. Hamar, hogei... kopuru desberdinak aukeran. 620-13 83 86

Kanarioak salgai. Anilladunak. Interesatuak deitu zenbaki honetara eta galdetu Mikelengatik. Deitu 635-75 54 53 telefono zenbakira.

Pit Bulla. American pit bull terrier txakurkumeak salgai. ADBA pedigiarekin oso prezio onean, 400 euro. Aita AEBetarik ekarria. Chinaman/Eli. 628-84 00 22

Sabueso txakurrak. Sabueso edo untxari txakurrak salgai. 100 euro. 15-74 34 90.

Untxi nanoak salgai. Gabonetarako opari aproposa, eskaiozu Olentzerorik! 676-90 05 47.

703. EMAN

Katakume eme bat ematen da opari. 685 79 07 61 zenbakira.

704. BESTELAKOAK

Katua. Urriaren 10ean katu ilegorria galdu genuen Bergarako Labegarietan, Santa Katalina auzoan. Aiki izena du. 943 76 33 78

Setter gordin zuri-beltza galdu zen asteartean, azaroaren 17an, Makatzenan. Galdu zenezan katea zeraman arrastaka. 699 18 13 34.

Txakur txiki bat aurkitu da Lizarragan. Txuria da eta 3 hilabete ingurukoa. Lepoko polit bat dauka. 686-92 51 95.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Baserritar erropa. 6-8 urteko mutikoarendako alkondara, 6 euroan eta gomazko albarka beltzak 10 euroan. Artilezko galdzerdiak opari. Deitu 656 78 64 64 zenbakira.

Bergara. Tronpeta salgai. Deitu 638 89 78 76 zenbakira.

Bikiendako EasyWalker markako karroa salgai. Deitu 943 03 66 80 telefono zenbakira.

Eskiatzeko materiala. Buzoa, 10 neurrikoa, 15 euroan. Botak, 6-7 urteko umeentzat, 20 euroan. 1.40 neurriko eskiak 15 euroan eta metroboteko bastoiak 6 euroan. Gore-Tex eskularruak opari. Deitu 656 78 64 64 telefono zenbakira.

Debagoiena. Dendarako altzariak saltzen ditut: mostradorea, erdiko mahai handia, bitrinak eta esekitzekoak. Deitu 627-96 19 22 telefonora.

Gasolio-galdara. Osagarri guztiekin. Roca modelo. 20.000 kcal. 12 berogailurentzat. Base-rrirako egokia. Prezio negoziagarria. Deitu 943 79 34 74 edo 616 23 81 74 zenbakietara.

Hiztegia. 'Lur hiztegi entziklopedikoa' salgai. 350 euro. Ondo zainduta, ia-ia erabili barik. Deitu 625 83 84 13 zenbakira.

Nokia 5800 mugikorra salgai. Movistarkoa. Berria. 150 euro. 661 68 11 24.

Nokia 6124 telefonoa salgai. Vodafone etxekoa. 30 euro. 617 13 17 51

Patineteta. Umeen karrorako patineteta unibertsal salgai. 650 96 23 08

PlayStation 2 saltzen dut: 50 joko, memoria-bartela eta urrutiko-kontrolarekin. 150 euro. 659 68 06 06.

Routerra. Hariarik gabeko routerra salgai. Telefonikako Amper Zyxelarekin batera. Deitu 608 36 26 07 telefono zenbakira.

Samsung I700 poltsikoko telefonoa salgai. Oso ondo dago. 30 euro. 615 49 09 36.

Ebanozko klarinetak salgai. Oso aproposa hasten direndako. 360 euro. Deitu 948-15 05 47 edo 646-16 74 74 telefono zenbakietara.

Gitarra akustikorako pedalaria salgai. Gitarra akustikorako pedalaria salgai. Erdi prezioan. 943-77 19 20

Liburuak salgai. Liburu sortak salgai, denetariokak. Oso-oso merke. 665-73 59 83

Tronpeta salgai. Tronpeta salgai Bergaran. Deitu 638-89 78 76 telefono zenbakira.

Sofa-oheta. Kanpoko neurriak 1,97x1,92 eta oheak 1,40x1,90. Mugimendu bakarrean irekitzekoa. Urdina eta oso gutxi erabilia. 500 euro. 616 09 46 34.

Ibiltzeko zinta elektrikoak salgai. Domyos etxekoa. Lau programa ezberdinekin. Berria. 270 euro. 652-76 25 41

Monozikloa saltzen dut. Monty etxeko monozikloa salgai. Pare bat aldiz bakarrik erabilia, berria. 100 euro. 605-73 07 77

Bikiendako karro-kapazoa salgai. Bikiendako Arrue etxeko karro-kapazoa salgai. 2008koa. Oso praktikoa eta egoera bikainean. Deitu 649-00 53 42 telefonora.

Umeendako motxila. Salewa markakoa. Aulkia, motxila, eguzkitarako bisera eta ez bustitze-ko sakua. Prezio erdian saltzen dut. 645-72 08 11

802. EROSI

Akordeoi pianoa erosiko nuke. 120 baxukoa. Deitu 699 10 74 45 telefono zenbakira.

Zilarra erosiko nuke. Zilarra erosiko nuke. Saltzeko badaukazu, deitu zenbaki honetara: 656-75 76 98

Lursaila erosiko nuke Bergara inguruan. Sarrera onekin ahal bada. 669 17 09 51.

Klarineteta erosiko nuke. Bigarren eskuko klarineteta erosiko nuke. Zuriñe. 627-22 45 79

Oñatin lur saila erosi edo alokatuko nuke. 609 11 72 96

803. EMAN

Egongelako mahaia oparitzen dut. Baxua, kristalezkoa eta altzairuzkoa. 635 72 58 14

806. GALDU

Bi giltza galdu dira Etxarri Aranatzan. Biak uztaite batean bildurik. Hots egin 699-75 04 50 telefonora.

Bizikleta lapurtu dute Etxarri. Etxarri bizikleta lapurtu dute, laranja, txuria eta beltza. Amortiguadorea ere badu saltoka ibiltzeko. Hots egin 699-75 04 50 telefonora.

Eratzuna galdu da Oñatin. Urriaren 31n eratzuna galdu nuen Oñatiko Ugarkalde eta Euskadi etorbidea artean. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. 943-78 06 34 edo 656-74 53 90

Neoprenozko trajea galdu dut. Lekiñio, Eusebio Maria Azkue kaleko 5. zenbaki inguruan neoprenozko trajea erori zaigu tenderetetik, aurkituz gero deitu: 665-70 42 96 edo 656-79 28 61.

Paparreko (orratza) galdu nuen Bergaran azaroaren 21ean; espaloitik zaharren egoitzara bitartean. 676 36 64 12

Poltsikoko telefonoa galdu dut. Bergaran edo Elorrioren, azaroaren 12an. Gorria eta beltza da eta Nokia etxekoa. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. Deitu 639-64 23 36 telefono zenbakira.

Umearen jertsea galdu dugu. Umearen jertsea galdu genuen azaroaren 1ean, Arientzan. Marraduna da, urdina eta marroia. Urtebete inguruko neurrikoa. Aurkitu baduzu deitu 943-53 34 59 telefono zenbakira

807. AURKITU

Arexabaletan pultsera aurkitu. Azaroak 24an Azbeko aparkalekuan zilar koloreko pultsera aurkitu nuen. Zurea baldin bada, deitu 615792066 telefono zenbakira.

Arrasate. Ikasle Egunean, Arrasateko Basati tabernan, Trango markako txamarra beltza trukatu nuen poltsikoan MP3a

zuen beste batengatik. Txamarra eta MP3a erreperatu nahi badituzu, dei diezadazu. Zurea baldin bada, deitu 626 32 04 72 telefono zenbakira.

Bergara. Gabonetako loteria txartel bat aurkitu dut. Galdu duenak dei diezadala 943 76 26 57 zenbakira.

Gurpildun aulkia agertu zen zapatuan, azaroaren 21ean, Bergarako kiroldegiko taberna aldemenan. Galdu duena pasa dadila tabernatik.

Kaskoa aurkitu nuen Oñatiko plazan, azaroaren 15ean, domekan, iturri ondoan. Bizikletan ibiltzekoa. Galdu duenak dei diezadala 658 75 64 65 telefono zenbakira.

Etxebila
higiezinak

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

ALDE ZAHARRA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 37.990.000

AMARA Madril etorb. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 21.800.000

AMARA Santxo Jakituna. Azkena 50m2 terraza. 2 logela. Eguzkitsua. 62.000.000

AMARA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 38.625.000

AMARA Apartamentu polita. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Argitsua. 39.900.000

AMARA 100m2. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 58.000.000

AMARA 2 logela, egongela, bikoitza, sukaldea, bainugela. Berritua. 41.500.000

AMARA Atikoa, 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 39.950.000

ASTIGARRAGA 2 logela, egongela, sukaldea, Bainugela. Kanpora begira. 29.950.000

ALTZA Oso polita. 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Kanpora. 36.990.000

ALTZA 3 logela, suakidea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 28.950.000

BIDEBIETA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 30.900.000

BIDEBIETA 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 36.500.000

LEZO 75m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Eguzkitsua. 31.990.000

ERRENTERIA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 31.500.000

HERNANI 2 Atiko herri erdian. Igogailua. Berritzeko. 21.000.000 bakoitza.

ALOKAIRUAN

ERRONDO GAINA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Bistak. 850€

ZENTROA 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Oso polita. 1.200€

PASAI SAN JUAN 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 675€

PASAI SAN JUAN Oso apartamentu polita. Balkoia. 600€

www.etxebila.net
www.etxebizitza.iragarkilaburrak.com
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

Gipuzkoa kultura



Elena Odriozola ilustratzailearen 'Txoritxoak'
Eguaztenez, abenduaren 2an, 22:15ean

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!

sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 3 | | | | | 6 | | |
| | 4 | | | | | | | |
| 8 | 5 | | 2 | | | | | |
| | 8 | 2 | 6 | 4 | 3 | | | 5 |
| | 5 | | | | | | | 2 |
| | 6 | | | | | 8 | 3 | |
| | | 8 | 6 | 4 | 2 | | | 7 |
| 3 | 6 | | 9 | 7 | 5 | | | |
| 7 | | | 8 | | | | | 9 |

bila-bila 7



hitz gezidunak

| | | | |
|--|-------------------|--------------------------------|----------------|
| | Pilota handi | Zuhaitz mota | Euri erausiak |
| | Bahituran hartu | GOITB-ko saioa | Istua, txistua |
| | Ohoín, ebasle | | |
| | Bizkaiko herria | | |
| | Aitzur txiki | | |
| | Pl., edontzi mota | | |
| | | | Kontsonantea |
| | | | 48 ordu barru |
| | | Betea | |
| | | Tantaloa | |
| | | | Euskal fonema |
| | | | Kontso. bustia |
| | | | |
| | | | |
| | | GOITB-ko saioa (jarraitzen du) | |

GOIENKARIA

soluzioak




| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| T | N | L | N | O | I | P | N | B |
| D | T | D | A | E | R | R | E | A |
| T | M | T | R | I | B | R | O | K |
| H | M | T | R | E | N | X | T | U |
| J | S | J | A | U | S | B | E | D |
| L | X | L | R | X | P | A | U | J |
| D | L | D | R | L | A | I | R | G |
| A | G | A | R | A | R | A | G | A |
| M | U | M | B | U | S | T | E | D |

Hieroglifoa: Dela.

hieroglifoa

Euskal Herriko egunkaria.



hizki salda

Aramaioko bost pertsona ezagunen abizenak.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| D | T | E | S | T | U | B | U | M |
| A | Z | K | A | R | R | A | G | A |
| G | X | T | L | A | I | R | L | D |
| J | A | U | A | P | B | R | X | L |
| D | Z | N | B | E | A | U | S | J |
| T | U | X | E | N | R | T | M | H |
| K | O | L | R | B | R | I | M | T |
| A | G | I | R | R | E | A | T | D |
| B | N | P | I | O | N | L | N | T |

asteko horoskopoa

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Gauzak egiteko itzelezko indarra daukazu, baina ez dakizu nondik hasi. Denera heldu nahi duzun arren, ezin duzu, eta guztia erdizka uzten duzu.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Eginbehar larregi daukazu, eta denera heldu gura baduzu laguntza eskatu beharko duzu. Bestela, aukera paregabeak galduko dituzu beharrean.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Krisialdia maitasun kontuetan; izan ere, batek baino gehiagok dauka interesa zuzan eta zuk ez dakizu ziur zer gura duzun. Hartu gauzak patxadaz.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Poztasun handia, guztia ondo egingo duzue eta. Lehendik egindakoak emaitzak izango ditu, eta diruz hobeto ibiliko zinateke, gutziengatik ez balitz.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Arazaok agintearekin, nabarmentzeko zure gogoak direla-eta dena zure kontura egiten duzulako, inori ezer galdetu barik. Horrela ibiliz gero, lagunen konfiantza galduko duzu.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Aste ona beharrean, dena ondo egingo duzu. Gainera, lagunak zure alde daude, eta eurei esker behar interesgarriak eskuratuko dituzu.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Egitasmoek ez dituzte uste zenituen emaitzak eman, errealtatetik kanpo daude eta. Hausnartu eta aztertu objektibitatez akatsak, hobekuntzak egin ahal izateko.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Edozein arlotako egitasmoei heltzeko une egokia, baina lehenengo aztertu ondo egogera. Normalean baino zoriontsuago zabilzanez, dena lar polita ikusten duzu.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Gutziek eragin kaltegarria izango dute zure ekonomian. Beharra dela-eta bidaia laburrak egin beharko dituzu. Aztertu autoko motorra, errepidean arazoak izan ditzakezu-eta.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Anaiaren batek izango dituen arazoak direla-eta, normalean baino gehiago arduratuko zara sendiaz. Ondorioz, zure bizitzako lehentasunen inguruan hausnartuko duzu.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Askatasun gogoia eta dena zure kontura egiteko nahia direla-eta, arazoak izango dituzu bikotekidearekin, lotura lar estua dela irudituko zaizulako.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Beharreko baldintzak hobetzen dabilzan arren, oraindik ez duzu lortu espero zenuen guztia, eta horrek etsipena eragiten dizu. Ahalegindu sentimendu hori baztertzeko.

gazte zerbitzua

BEKAK

> **Euskal etxea.** Eusko Jaurilaritza. Bi bekatarako deialdia egiten du Kanpoko Euskal Gizatalde eta Euskal Etxeen eremuan pertsonen espezializazioa bultzatzeko. Epea: abenduaren 10a.

> **Masterrak.** Eusko Jaurilaritza. EHUan master ofizialak burutzeko ikasleei zuzendutako dirulaguntzak, betiere langabezian baldin badaude. Epea: abenduaren 11.

LANA

> **Lan egin gurako zenuke Gabonetan?** Begiratu www.gipuzkoangazte.info gure blogean. Adi!, eskaintzak jaso ahala osatuz goaz.

> **Begiraleak.** Txatxilipurdi elkarteak. Gabonetako Txikilandia parkean lan egiteko begirale bila dabil Txatxilipurdi. 18 urtetik gora baduzu, bidali zure curriculumaz azaroaren 30 baino lehen, ldazkaritza@txatxilipurdi.com-era

> **Begiraleak.** Jauzika Heziketa Elkartekak begiraleen lan poltsa ireki du, Azpeitiko Udalak Gabonetan egingo dituen haur, nerabe eta gazteei zuzenduriko ekintzetan lan egiteko.

> **Liburutegirako teknika-ria eta administrari laguntzaileak.** Portugaleteko Udala. Liburutegirako teknikaria eta Gizarte Ongizate Sailerako administrari laguntzaileak kontratatatzeko oposaketa deialdia. Epea: abenduaren 7a.

LEHIAKETAK

> **I Rock in Bara rock lehiaketa.** Partaideek make-ta bat aurkeztu beharko dute, gutxienez bi kanturerekin. Epea: azaroaren 30a.

> **Bakarriketa.** Amasa-Villabonako bakarriketa lehiaketa. Euskaraz eta gai librean, 10-15 minutuko iraupenarekin. Epea: 2009ko abenduak 21.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

astea GOITBn

Astelehena, 30



> **Donostiako maratoia 'Harmailatik'-en**
22:15

Atzo Donostiako maratoia egin zuten debagoiendarraren adierazpena eta irudiak bilduko dituzte *Harmailatik* programan.

- 13:15 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Kantari.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Sakonduz.
- 15:45 Ikusmira.
- 16:15 28 Klip.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Kalekanto.
- 18:15 Ilunpean.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Kantari.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Harmailatik.
- 23:00 Gipuzkoakultura.
- 23:30 Goiena Magazinea.
- 00:30 Emisio amaiera.

Martitzena, 1



> **Joserra Gartzia 'Ilunpean' programan**
22:15

Joserra Gartzia irakaslea eta bertsozalea elkarrizketatuko du Jon Berezibar kazetari arrasatearrak *Ilunpean* saioan.

- 13:15 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Kantari.
- 14:15 On Ein.
- 14:45 Berriak.
- 15:10 Harmailatik.
- 15:50 Ikusten.
- 16:20 Itsasoari begira.
- 16:45 Berriak.
- 17:10 Marrazki bizidunak.
- 17:35 Wazemank.
- 18:15 Gipuzkoakultura.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Kantari.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Ilunpean.
- 23:00 Wazemank.
- 23:30 Goiena Magazinea.
- 00:30 Emisio amaiera.

Eguaztena, 2



> **Erakusketa, musika eta liburua**
22:15

Elena Odriozolaren erakusketa, Yolanda Arrietaren liburua eta Imanol Urbietaren diskoa *Gipuzkoa Kultura*-n.

- 11:35 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Kantari.
- 14:15 Udazken loreak.
- 14:45 Berriak.
- 15:10 Ilunpean.
- 15:50 Sakonduz.
- 16:20 28 Klip.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:35 Harmailatik.
- 18:15 Ur eta lur.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Kantari.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Gipuzkoa Kultura.
- 23:00 Kalekanto.
- 23:45 Goiena Magazinea.
- 00:45 Emisio amaiera.

Eguena, 3



> **Iñaxio Garro Aretxabaletako alkatea zuzenean**
19:45

Iñaxio Garro Aretxabaletako alkateak kazetari eta herritarren galderak erantzungo ditu, *Alkateak zuzenean* atalean.

- 13:15 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Kantari.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Gipuzkoa kultura.
- 15:45 Kalekanto.
- 16:15 Ikusmira.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 18:00 Sakonduz.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Kantari.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Puntu Puntu.
- 22:45 Erreportajea.
- 23:20 Itsasoari begira
- 23:45 Goiena Magazinea.
- 00:45 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 4



> **Durangoko liburu eta disko azoka**
19:45

Durangoko liburu eta disko azoka abenduaren 4tik 8ra egingo dutela gogoraraziko dute *Goiena Magazinea*-ren barruan.

- 13:15 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Kantari.
- 14:15 On ein.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Ur eta Lur.
- 15:45 Itsasoari begira.
- 16:15 Ikusten.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 18:00 Ilunpean.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Goiena Magazinea.
- 20:45 Kantari.
- 21:15 Goiena Magazinea.
- 22:15 Sakonduz.
- 22:45 Udazken loreak.
- 23:15 Kale kanto.
- 23:45 Magazinea
- 00:45 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> **Eskola txikiak eta Anger musika taldea**
10:30

Eskola txikien egoera eta garrantziaz berba egiteko, Nora Salbox nafarra elkarrizketatuko dute gaur, astelehena, Arrasate Irratiko *Igo autobusera* irratsaioan. Bestalde, Arrasateko Anger taldeak *Sedukzioaz* izeneko azken diskoa aurkeztuko du, bost urte pasa ostean egindako lana.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Uda Giroan

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kiroalak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen erreposoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com))

12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Uda Giroan
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

telealbistekak

> GOITB

Donostiako maratoiaren esperientzia kontatuko dute Debagoieneko korrikalariak 'Harmailatik' programan

Atzo, domeka, Donostiako maratoia egin zuten 3.000 korrikalari inguruk, tartean 105 debagoiendarrek. GOITBko kazetari eta kameralari talde bat ere hantxe izan zen, maratoia grabatzen. Eta han ikusi eta entzundakoak emitituko dituzte, hain zuzen ere, gaurko, astelehena, *Harmailatik* programan.

Saio hori gidatzen duen Xabier Urtzelai kazetari arrasatearrak, maratoia egin zuten debagoiendarren iritziak, esperientziak eta testigantzak jasoko ditu eta lasterketaren irudiekin batera tartekatuko ditu adierazpen horiek guztiak. *Harmailatik* programa gauean emitituko du GOITBn, 22:15ean. Bihar, martitzena, errepikapena botako dute 15:10ean, eguerdiko albistegiaren ostean.

> IKUS-ENTZUNEZKOA

Kameratoia egingo dute abenduaren 12an Bermeon, Euskal Herriko ikus-entzunezkoen IV. rallya

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak antolatuta, Kameratoia egingo dute abenduaren 12an, Euskal Herriko ikus-entzunezkoen IV. rallya. Bermeon egingo dute, eta hango Udalak eta Topaguneak gazteen sormena sarituko dute. Lehiakideek 10 orduko tartea izango dute hiru minutuko bideolana grabatu, editatu eta aurkezteko. Lanak euskaraz egin behar dituzte eta gaur, astelehena, da izena emateko azken eguna. Internet bidez eman daiteke izena, www.kameratoia.com helbidean sartuta. Sari ezberdinak egongo dira eta irabazleen artean 3.600 euro banatuko dituzte guztira. Bideoa ekoizteko kamara, ordenagailua eta beharrezko tresneria norberak eraman behar ditu.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

ERAKUSKETA IRAUNKORRA: 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 8 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

PLANETARIUM

Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta. Asteartetik ostiralera: 17:30 (eusk.) eta 18:15 (gazt.)
Asteburu eta jai-egunetan: 12:00(eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.), 18:00 (gazt.)
Eboluzioa (Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu)
Biziaren Jatorria (Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa)
Infinity Express (Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia)
Kartoizko Suziriaren Jatorria (Haurrei zuzendutako saioa)
Donostiatik zerura begira (Zuzeneko saioa. Ikas ezazu gurekin zeruko objektuak ezagutzen eta disfruta ezazu Astronomiaz)
Itsua izar begiekin (Ipuin animatu bat, non itsu batek eta tirano batek, unibertsoaren ezagupenera hurbilduko gaituzten)

ASTE BURU ETA JAI-EGUNETAN

Erakustaldiak, Zientzia ikuskizunak, Planetarium Txikia, animazioak, etab.

BESTE ZERBITZU BATZUK

Doako aparkaleku zabalak. Jatetxe-kafetegia
Ingurune aparta. Denda
Haur-parkea. Kontsignak
Lorategi botanikoa.
Gipuzkoako eraikin garrantzitsuen maketak

Sarrerak egun osorako balio du. Nahi adina aldiz sartu eta ateratzeko aukera.

Famili giroan edota lagun artean egun polit bat pasatzeko aukera paregabea!



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org
Orduetgia
Astelehenetan ixita.
Asteartetik ostiralera: 10:00-19:00
Asteburu eta jai-egunetan: 11:00-19:00

zorion agurrak



ARETXABALETA
Ailait Santamaria Lopez
Azaroaren 12an, urtebete. Zorionak, printzesa! Hori da hori morenatxo ederra! Muxu handi bat etxe-ko guztien partetik!



OÑATI
Kepa Lopez Las
Azaroaren 15ean, 4 urte. Zorionak, txapel-dun! Txokolatezko muxu pila etxe-ko guztien partetik. Ez ahaztu sekula asko maite zaitugula!



SORALUZE
Manex Osinaga Aranzeta
Azaroaren 21ean, 6 urte. Aimar eta Maddiren partetik, zorionak!



ARRASATE
Ane Zeziaga Zaitegi
Azaroaren 21ean, 5 urte. Zorionak, ziprintin! Patxo handi bat danon partetik.



OÑATI
Olga Zabaleta
Azaroaren 22an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat etxe-koen partetik.



ARRASATE
Naroa Alberdi Segovia
Azaroaren 25ean, 5 urte. Zorionak, *printzesa*, familia guztiaren partetik.



ARRASATE
Iban Sancho eta Maialen Gonzalo
Ibanek azaroaren 24an eta Maialenek 27an, 5 urte. Arizmendi Arimazubiko lagun eta Argixoren partetik, mila kilo zorion!



BERGARA
Jon Zeziaga Luarizaristi
Azaroaren 27an, 8 urte. Zorionak eta muxu potolo bat etxe-koen eta familiaren partetik.



OÑATI
Mirari Zilaurren
Azaroaren 27an, 42 urte. Zorionak zure urtebetetzean, zorionak ta urte askotarako, zorionak ta muxu bat zuretako!



ARRASATE
Maren Esteve Vargas
Azaroaren 27an, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Txokomarrubizko hiru muxu potolo zuretzat familia eta lagunenez, eta Pantxitoren besarkada handia.



ARRASATE
Ana Ugarteburu eta Jesus M. Elkoro
Azaroaren 28an. Zorionak, aittita eta amama! Muxu asko zuen familiaren partetik, bereziki Eder eta Aishak.



ARRASATE
Andres Ugarteburu
Azaroaren 28an, urtebetetzea. Zorionak, birraitita! Muxu asko familiaren partetik, bereziki Eder eta Aishak.



OÑATI
Ainhoa Xpe Zubia
Azaroaren 28an, 30 urte. Zorionak, *guapa!* Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat kuadrilakuen partetik.



ARETXABALETA
Gorka Dovao
Azaroaren 28an, 21 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxeko partetik ondo pasatu zure egunean.



BERGARA
Oier Lete Davila
Azaroaren 28an, 2 urte. Zorionak familiaren partetik. Bereziki anaia Martinek.



OÑATI
Helene Zabaleta Madinabeitia
Azaroaren 28an, 5 urte. Zorionak, politta! Eta muxu handi bat familia danan partetik, bereziki, Ekain, Izaro eta Aiuriren partetik. Eta zorionak aitatxori be bai, e! Ondo pasatu.



BERGARA
Lucia Cuesta
Azaroaren 28an, 65 urte. Zorionak, amama! Muxu asko zure familiaren partetik, bereziki Lucia, Hugo eta Danelek.



ARRASATE
Naroa Fernandez
Azaroaren 29an, 7 urte. Zazpi muxu familiaren partetik!



ARRASATE
Nerea Dovao
Azaroaren 29an, 26 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxeko partetik ondo pasatu zure egunean.



ARRASATE
Asier Luengo
Azaroaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak, aitatxo! Muxu asko zure familiaren partetik, bereziki Eder eta Aishak.



OÑATI
Iker Arregi Marin
Abenduaren 2an, 9 urte. Zorionak, Iker, Oñatiko senitarte guztien partetik. Gogor jarraitu futbole-an. Muxu handi bat denon partetik. Muak.



OÑATI
Ander Jausoro Arregi
Azaroaren 30ean. Zorionak eta urte askotarako etxe-ko guztien partetik eta bereziki Itziar eta Leireren partetik. Osaba, belarrixak gertatu.




ARETXABALETA
Ander Lopez de Armentia
Abenduaren 3an, 11 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zeure eguna, etxe-ko guztien partetik.




ARRASATE
June Iriarte Balerdi
Abenduaren 3an, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Zure familia eta bereziki Aner, Malen eta Naroaren partetik!



OÑATI
Xabier Barrena Biain
Abenduaren 4an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxe-koen partetik. Ondo pasatu eguna.



ARRASATE
Malen Balerdi Berezibar
Abenduaren 6an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Aitatxo, amama, aittita, Pablo, Aner, Martin, Naroa, June eta Noraren partetik.



BERGARA
Markel Larrañaga Larrañaga
Abenduaren 6an, 5 urte. Zorionak, Markel! Oso-oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu pila bat Oñatiko familiaren partetik.



ARRASATE
Ibai Tamayo Kortabarria
Abenduaren 8an, 3 urte. Zorionak, Ibai Spiderman! Txokolate goxo-goxo bat prestatu zure urtebetetze ospatzeko. Putz fuertekin 3 kandlei. Ondo pasatu eguna: Naroa.

ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

Internet bidez

Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.

Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

e-postaz

Mezu bat bidali zorionagurrak@goiena.com helbidera.

Honako datuak emanaz: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

Edo etor zaitez Goienako ordezkarietara batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu. Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean aterako ditugu.

kuxkuxeroa



Txomin Madina

Nire lehenengo aldia

Aitortzen dut berandu ibili naizela, baina ulertuko duzuen moduan, adin batetik aurrera zaila egiten da izan dudana aukera izatea.

Ez dakit izan den kuriositatea (edo beharra) berandu heldu zaidalako edo beste barik, hainbeste jende lilurata daukan fenomeno beranduegi ezagutu dudalako. Batzuek autoan izan dute lehen kontaktua, nik neuk hori ere ez. Akaso tabernetan bai. Ordu txikietan abesti ezagun baten doinuak entzun eta jendea besarkatzen eta muxuak banatzen hasten

"Harritu egin nau arruntak diren helduak zoramen zurrunbiloan sartuta ikustek"

zenean, orduan bai susmatzen nuen zerbait egon zitekeela guzti horren atzean. Baina esandakoa, aitortzen dut asteburu honetan ikusi ditudala zuzenean lehen aldiz **Pirritx, Porrotx, Marimotots** eta euren tropa guztia.

Ez dakit lehen aldia ona edo txarra izan den; interesgarria behintzat bai. Harrituta geratu naiz duten erakarpin indarrarekin, agertokian daudenean umeek jartzen duten lilura aurpegiarekin. Are harrituago gurasoekin: gizon eta emakume itxuraz arruntak, patata-tortilla hitzak entzun orduko zoramen zurrunbiloan murgildu eta dantzan eta kantuan hasten direnak.

Beti entzun izan da bigarrenean gozatzen dela. Proba egin beharko.

HARTU PARTE!

Kintadak, aste bukarako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: astelehena@goiena.com

Goienkaria

asteburuko albuma



Txibistoko beteranoak. Seguruena gazteenek ez dute horren berri izango, baina orain dela 25 urte Euskal Herriko kontzertu areto txukunenetakoa izan zena abian jarri zuten Bergaran argazkian ageri direnek; batzuk aretoaren eragile izan ziren eta gainontzeko guztiek zerbitzari, garbitzaile, DJ edo bestelako zerginetan lan egin zuten. Txibistok 1984tik 1992ra iraun zuen, eta lanean hasi zirela 25 urte bete diren honetan 51 lagun batu ziren Tartufon (Txibisto zegoen alboan) afaria egiteko. Primeran pasa zuten eta falta diren bi langile izan zituzten gogoan: Javi Lazkano eta Aitor Arantzabal.



Bizikleta lagun. Oñatiko koadrila hau gustura asko ibiltzen da bizikleta gainean urtean zehar eta euren *ikasturteari* bukaera emateko Arlabanera igo eta Dorletako amabirjinari eskertza egin zioten orain dela egun gutxi, ume eta gutxi, gainera. Urtean gustura ibili direla eta datorren urtean ere hala jarraitu gura dutela esango zioten seguruena. Halako botoak egin ostean, baba-jana ederra jan zuten elkartearen, eta orain atsedena hartuko dute datorren denboraldia hasi arte.

jaiotakoak



Izar Akemi Etxeberria Ramirez
Soraluze > 3,840 kilo. Azaroaren 21ean. Gurasoak: Sonia (Colombia) eta Aitor (Bergara). Argazkian, Izar Akemi jaioberria, sehaskan lo.



Irati Nafarrate Belloso
Aramaio > 3,220 kilo. Azaroaren 22an. Gurasoak: Amaia (Tolosa) eta Ramon (Aramaio). Argazkian, Irati jaioberria, amarekin.



Leire Martin Unamuno
Bergara > 3,120 kilo. Azaroaren 25ean. Gurasoak: Maider (Bergara) eta Gorra (Bergara). Argazkian, Leire jaioberria, amama Ana Marirekin.



Maialen Arregi Unamuno
Bergara > 3,300 kilo. Azaroaren 25ean. Gurasoak: Erkuden (Bergara) eta Xabi (Bergara). Argazkian, Maialen jaioberria, sehaskan.



Iker Isasti Arkauz
Oñati > 2,660 kilo. Azaroaren 21ean. Gurasoak: Ana (Oñati) eta Iban (Oñati). Argazkian, Iker jaioberria, izeba Susirekin.

BABESLEA



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Joxerra Garzia > Komunikazioan aditua

"Ez dugu Michael Robinson modukorik"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Abadia Saria emango diote egubakoitzean Gipuzkoako Foru Aldundian gazte hizkeran eta euskararen alde egindako lanarengatik. Euskaraz eta ahozkotasan arduratuta, liburu, eta txostenak argitaratu eta Unibertsitatean dihardu aspalditik lanean, euskara normalizatu egoki baten alde lanean. *Jendaurrean hizlari* da haren azken lana.

Arduratuta zaude gazteek ez ote duten euskaraz ganoraz egiteko biderik.

Nik errua ez diet gazteei botatzen. Nire ikasleak ezagutzen ditut eta jende majo eta gainera euskaltzalea da, benetan gainera, ez zurikeriaz. Nik uste beraiek adina guk daukagula errua, ze guk eman diegun euskaraz ez die balio. Nik nahiago dut nire ikasleak pertsona osasuntsu eta normalak izatea. Hizkuntzek ez dute eskubiderik, eskubideak hiztunok daukagu eta hiztunok sano bizitzeko eskubidea daukagu. Ni erdaldun banintz eta esneak gainez egiterakoan, nik etsiko nuke nire haserrealdian "Cáspita" batekin? Ez nintzateke haserretuko.

Gaztea irratiko sms-ak ere aztertu zenituzten esatariek normalizazio horretan lagun zezaten.

Gero erraz esaten da ni beti naizela ezkor, baina gertatzen diren gauzak ikusita, iruditzen zait ez naizela nahikoa ezkor. Euskadi Gazteakoak konbentzitu genituen irratia bera gazte-hizkerarako tresna izan zitekeela. Aplikazio bat eta guzti sortu genuen eta batzuk esan zuten igarri eta guzti egin zela sasoi baten. Ba hori erabaki eta gutxira, arduradunek edo ez dakit

nork erabaki zuten Los 40 irrati espainiarraren kopia izan behar zuela Gazteak.

Hedabideetan ere eredu onak ez omen dira sarri ikusten.

Espanian, adibidez, badago Michael Robinson: kalean gazte-leraz ikasi eta gramatikari lau ostiko emanda, inguruko beste edozein esatari baino graziosoagoa dena. Zoritxarrez euskaraz ez daukagu Michael Robinson moduko figurarik. Eskolan ari gara *zintzaizkiokete* modukoak fabrikatzen, funtsezkoa falta dugunean eta komunikabideetan ere larregi begiratzen zaio alde formalari.

Batek esaten du "Entrenatzailea zirkunstantzia aurpegiarekin irten zen aldageletatik", zeta eta eseak ondo ahoskatuta, eta bigarren batek dio, Arrasaten entzun moduan, "Entrenadoriak halamoduzko aupegiaz urten euen bestuarixotik". Lehena gure komunikabideetan hobesten dugu, baina egokia bigarrena da; aldagelarena bakarrik aldatu behar da agian, baina zuzenena horixe da.



SARIA Hilaren 4ean emango diote Abadia saria.

JON BEREZIBAR

TEST-A

Jaioterrria: Legazpia. **Bizilekua:** Donostia. **Adina:** 55 urte. **Lanbidea:** Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea. **Lelo bat:** 68a baina lehentxoagokoak bagara ere, "debekatua dago debekatzea". **Abadia Saria:** Sari batzutan aurrez daukazu arrisku bat zeu izan zaitzkeela, baina niri honek erabat ustekabeen harrapatu nau. Lagun batek deitu zidan esanez, ea irratian oker entzun zuen; hori pertsona nagusiei ematen zietela!

ai, ene!



Argidun graffitiak

Graffitietan azken aldiko moda da Halo izeneko sprayak erabiltzea. Horrek daukaten berezitasuna? Margoak erabili beharrean, *Light painting* teknika erabiltzen dutela. Hau da, Led argiekin egiten dituzte marrazkiak.

<http://www.thecoolist.com>

biharamuna

Marijo Deogracias


Espetxe-estatu

Barikuan Emakumeen aurkako indarkeria eta immigrazioaren jardunaldietan, Gasteizen, **Dolores Juliano** eta **M^a Antonia Caro** bat etorri ziren esaten, "estatu onuradun batetik espetxe-estatu batera pasa garela". Zigor kodearen arabera, emakumeen kontrako eraso guztiak delitutzat jotzen direlako zioten eta zigorra lehenesten dela bergizarteratzeari uko eginez. Sinistuta nago espetxe-estatu baten bizi garela. Auzitegi Nazionala horretan tematuta dabil. Taldekide izatea delitu dela eta zigor kodeak horrelakorik esan ez arren, **Grande Marlaskak** 34 gazte atxilotu ditu asteon. Zapatuan horixe salatzen Bilbon izan nintzen (**Torrealdai, Uria, Otamen-**

di, Auzmendi eta **Oleagari** elkartasuna adierazteko abenduaren 19koa gorde dut). Atzo ere espetxe-estatu horrekin gogoratu nintzen terrorismoaren biktimen omenaldian. **Leonor Legaño, Manuel Jodar** polizia nazionalaren alargun eta AVTko kidea, espetxe zigorrez aritu zen; senarra hil ziotenek 340 urteko zigorra izan arren, ez dutela 20 urte baino gehiago egingo espetxean. Beldurra eman zidan komentario horrek. Delituri egin barik, taldekide izateagatik, euskal herritar asko dago espetxean. **Tom Cruise**k *Minority report* filmean egiten zuen. "Badaezpada" horrekin, azkenean, **García Berlangaren** filmak zioen moduan, *Todos a la cárcel*.



eguraldia



MAXIMO
+08

MINIMO
+05

Euria zaparrada nahiko handi eta laburretan botako du. Tenperatura ere albiste izango da, nabarmen egingo du-eta behera.

www.euskalmet.net



Zein kirolarik merezi du herritarren saria?

Egin zure proposamena! ➔

ANTOLATZAILEAK



BABESLEAK



LAGUNTZAILEA



KOORDINATZAILEA

